


Contrapas

Berceac oroc isan dira

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 5. ZENBAKIA. ABENDUA. 1991

5



Garacico herria
 Benedica dadila
 Heuscarari en
 Beharduyen t
 Heuf
 Ialgui ad
 Berce gende
 Ecin scriba ça
 Oray dute ph
 Euganatu cire
 Heuf
 Ialgui adi

Heufscara
 oroc preciaz zē
 iaquin harrē
 ren dute
 n heufscara.
 scar
 o egon bahiz
 bagueric
 ebiliren
 ietaric.

Lengoageran
 Estimatzegucitan
 Oray aldiz hi
 Ohoria orotan.

Heufscara
 Berceac oroc isan dira
 Oray ezta erideyten
 Heufscararen pareric.

PATZIKU PERURENA / INAZIO MUJICA / JEAN BAPTISTE CHAHO
 AMAIA ITURBIDE / INAKI IRAZABALBEITIA / ISTVAN ORKÉNY /
 MIROSLAV HOLUB / JOSÉ LUIS MENDEZ FERRIN / XVII
 MENDEKO TXINATAR ANONIMOA / SAN JUAN DE LA CRUZ /
 MAITE GONZALEZ ESNAL / M. ANDRÉS URRUTIA / KARLOS
 SANTISTEBAN / GAZTELU / ORIXE / SANTI ONAINDIA / LINO
 AKESOLO

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 5. ZENBAKIA. ABENDUA. 1991

5

A U R K I B I D E A

SAIOAK

PATZIKU PERURENA
Koloreak Lizardiren poesian 5

IÑAZIO MUJICA
Ipuingintzaz 17

SAIO ITZULPENA

JEAN BAPTISTE CHAHO
Barde baten izaitia
Itzultzailea: Jean Pierre Chaho
Aurkezpena: Patri Urkizu 29

LIBURU KOMENTARIOAK

AMAIA ITURBIDE
Hiru poema liburu 41

NARRAZIOAK

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Kateak itsusiak baitira 47

IÑAZIO MUJICA
"Tu Quoque"
(Joanen Ebanjelio Gainean) 57

ITZULPENAK

ISTVAN ORKÉNY
Minutu bateko ipuinak
Itzultzailea: Maite Gonzalez Esnal 71

MIROSLAV HOLUB
Itzultzailea: Maite Gonzalez Esnal 75

XOSÉ LUIS MENDEZ FERRIN
Marisorgina
Itzultzailea: M. Andres Urrutia 79

XVII MENDEKO TXINATAR ANONIMOA
Lotolore Bikainaren Monastegia
Itzultzailea: Karlos Santisteban 83

SAN JUAN DE LA CRUZ
Cántico Espiritual
Itzultzaileak:
Gaztelu, Orixé, Santi Onaindia,
eta Lino Akesolo 92

AZKEN BERRIAK
BOLETINA 101

1. EUSKO JAURLARITZARI
PROPOSATUTAKOA 109

2. IDAZLEAK ESKOLETAN 110



Hegats
Literatur aldizkaria
5. zenb. 1991

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
PATRI URKIZU / MAITE GONZALEZ ESNAL

ERREDAKZIO BATZORDEA:
MIKEL FERNANDEZ ABAITUA, XABIER AZURMENDI, RAMÓN
ETXEZARRETA, MAITE GONZALEZ, IÑIGO ARAMBARRI,
IÑAKI BERNAOLA, JOXAN MUÑOZ, PATRI URKIZU.

PARTE HARTZAILEAK:
Patziku Perurena / Iñazio Mujika / Jean Baptiste Chaho /
Jean Pierre Chaho / Patri Urkizu / Amaia Iturbide /
Iñaki Irazabalbeitia / Istvan Orkény / Miroslav Holub /
Maite Gonzales Esnal / Xosé Luis Mendez Ferrin /
Andres Urrutia / Karlos Santisteban / San Juan de la Cruz /
Gaztelu, Orixe, Santi Onaindia, Lino Akesolo

MAKETAGILEA:

Lamia
Plazuela del Consejo, 3-4º
31001 Iruñea

SUSKRIPZIOA:

BEGOÑA ANDONEGI
Euskal Idazleen Elkarte
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskubia
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 420010
ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

ALDIZKARI HONEK
EUSKO JAURLARITZAREN
LAGUNTZA JASO DU

SAIOAK

2

SAIO



PATZIKU PERURENA

Koloreak Lizardiren
poesian

IÑAZIO MUJICA

Ipuingintzaz



PATZIKU PERURENA

Koloreak Lizardiren poesian

Obarra: *Ondoko aipamen bakoitzaren aurretik ageri den lumeroa, kolorea ageri deneko orrialdeari dagokio, Lizardiren poesilan guziak bilduz EREINEk atera zuen liburuan.*



Hagitz zabaldua da euskaldunok koloreekiko sentiberatasun haundi haundirik izan ez dugulako eritzia. Askoren uste-tan Lizardi izan omen zen euskal nortasuna edo izadia kolorez jantzi zuen lehen-biziko poeta ohartua. Orain berriro mundutik joan zaigun Koldo Mitxelenak berak, hala esan zuen, *Lizardirekin urre kolore eder bateraino jasoa geratzen zela batibat euskal paisajea*. Antzeko zerbait esaten du joan den aspaldiskoan izuen gordeleketan barrena dabilen euskal poeta gazte batek ere: *Lizardirenean badago poema osoak estaltzen dituen urretasun bat, udazkeneko argitasun hori, J.V. Turner erromantikoaren kuadroetakoa bezalakoa, baina ia berezkoa dena*. Egia da: batzutan biziago, bestetan hilago, urre dizdira lehun batek laztantzen du Lizardiren poesi guztia. Baina esatea ez da aski; egin dezagun froga:

Urre kolorea:

Lizardiri, J. Sarrionandiak sinalatzen duen gisan, kasik berez, oharkabean, egiten dio ahotik eskapo *urre* hitzak. Haren poesilanak irakurri ondoren, oro har, udazken arratsaldetako urre dizdira hura gogoan duela geratzen da bat. Erruz ageri da *urrezkotasun* hori poeta liri-koaren irudimenean. Honatz horren lekukotasun batzuk:

- 37. *Ire goi urdiñaren / urre lainotsupean, beeko txikerkerion azkaia balegok.*
- 41. *Esan amatxo: aingerutxoak / egoa urrezko badute zeru urdinean urre dirdira nik nola ikusten ez ote?.*
- 43. *Eguzkiaren urrezko yaia berri izeki zaneke begia itxirik zeukan aurtxoak zeru-azpia ikusteko*
- 45. *urrezko ariz lotuta; pozik txoria... ibai, mendi, baso, zelail ta udaren urrea nonahi.*
- 65. *urrezko txilibitoak aoratu, ta abia ziran.*
- 67. *Non dira? ... Antxe, urdiñaren sakonean ezer ez duzu ikusten argizko auts-irakin-antzean*
- 87. *beean, berriz, urrezko yarioz argiak belarrean oi-ditun begibil zoliak.*

91. *oro laiño mee batek estalia,
urrez oro eguzkiak jantzia.*
141. *egunaren atariruntz zauri bat, gordiña,
zauri bat gordin, odol beharrean urre.*
143. *urrezko zauria.*
155. *Uda! Mendiak i au eguerdi,
ta urrezko opor aro, ta abaro-aldi.*
159. *Gure inguru lurra lurrun-yario,
urre urtuzko yasak baitaragio.*
161. *Zuhaitz-tartetandiko urre nabarra;
bezagun udaren bitxi bakarra.
Begoz emendik ate ire ederkiak;
ar bitzate besteek laztan goriak,*
171. *Yainko-muño-gaiñetara baiño leen
(ederra baita bizia!)
urrezko itsaso bebilt urduria.
Itzal dudala laguntzaille lerdin.*
199. *Beetik nator ibarrak izoztuta itziaz
mendia yaiez dago urrezko yantziaz.*
241. *Begiek, urre gar-uts; entzumenak, ezti gorri;
amesmenak sortu dizu zelai zoragarri.*

Urre hitzaren inguruan egindako jostaketa poetiko zoragarri hauek dira Lizardiren olerkigintza maizenik eta estilizatuenik bustitzen dutenak. Zoragarriak dira, esate bateko, eguzkia deskribitzeko egiten dituen joko batzuk: *urrezko zauria, urre urtuzko yasa, urrezko itsaso, urrezko yario...* Urrea *urtu* egiten dela dirudi poetaren irudimeneko labe irakindura orduko. Ongi aztertuz gero, froga liteke ederki urretasun honek Lizardigan hartzen duen sinbologi erlijiozkoa ere:

41. *Esan amatxo: aingerutxoak egoa urrezko badute,
zeru urdinean urre dirdira nik nola ikusten ez ote?.*

Urretasun hori, eguzki goxoaren sinbolopean dabil beti Lizardiren gogoan, ekialdeko horitasun horren kutsuan. Han ditu bere erroak kristautasunak ere. Han bere zainak, gure kristau elizetako aldare urreztatuek ere.

Beraz, urretasun hori, arrotz delako egiten

zaigu hain eder, hain xoragarri; eta ez inondik inola ere, hemengo paisajeari darion berezitasuna delako. Lizardik urre koloreari dion maitasun grina, sinismena barrena dator kiona du. Ez du gure mendi baso zelaietatik jaso. Alderantziz, sinismen kristauren sinbolo nagusi bezala, erantsi egiten dio urretasun hori, halakotik deus guti duen gure paisaje lakar nabarrari, Orixek, *nibirri-nabarra* deitu zionari. Lizardi arrotz eta berri xalea zen; giputz gehienak bezela, bertako euskal sen zaharra bereganatzeko haina izpiritu indar ez zuen gizona. Hori nabari du ederki, koloreen trataeran bertan. Baina, alderdi hau, seinlatu baizik ez dut egiten. Nahi duenak azter beza barrenago eta xeheago. Nik ez baitut orain horretako, ez lekurik ez betarik ez gogorik.

Horia :

Urre kolore dizdiratsu horretatik gehiegi urrutiratu gabe kolore horia dugu hurrena. Lizardiren gogoan, zalantzarik gabe, elkarren senideak dira urre kolorea eta horia, bai irudimen sinboliko aldetik bai sinismen aldetik. Begira honako pasarte honi:

147. *Yaun orail eder legorteen aita
Katez loturik egona baita.*

Eta geroxeago, kateak hautsi ondoren, *eguzkiaren urre jasa* bete betean. Batzuren batzuk, euskal horia, **gori** hitzetik datorrela diote. Horren aztarren gisakorik ere baluke honek:

159. *Urre urtuzko yasak baitaragio
Euri gori ortaz basoa aterri.*

Goikora joaz, eguzkia da gure jainkosa zaharra, konforme. Baina, ez Lizardik deskribitzen duen *Yaun orail, legorteen aita*; egunsentian ongi etorrika hartzen dugun *Amandre xuria* baizik. Lizardiren gogoak kristautu egiten du gure eguzkiaren argi zaharra. **Yaun orail** bihurtu, gure **Amandre xuria**. Ohartua edo oharkabea, Lizardiren **hori-tasun** horrek, badu inondik ere ekialdetik, hots, kristandadetik dator kion eragin erlijiozkoa, eta

bestetik berrixaletasun grina. Lizardiren garaiko euskal poetek, eta gutxiago aurrekoek, ez baitute hark bezala inoiz erabili kolore **horia**. Arestian aipatzen nuen aztarna horixe bera nabari du, milatan aipatua izan den poema honek:

177. *baina nik, izkuntza larrekoa
nai aumat ere noranaikoa
yakite egoek igoa;
soina zahar, berri gogoa;
azal orizta muin betirakoa.*

Euskarari **azal horizta** deitze honek harriturik utzi ninduen aurreneko aldiz ohartu nintzenean. Lehendik ere adituak nituen, batipat artzaien ahotik, **arkazte mutur horizta**, **katu lepa horizta** eta antzeko esaldiak, eta betitik izan zait atsegin **horizta** hitzaren prosodia. Halabaina, pasarte honetan oraindik harri-garriago iduritzen zitzaidan, hala begiz nola belarriz. Zoragarria zinetan hitz honen musikaltasun gozoa, eta are zoragarriagoa, hemen ageri den bezala, **azal** hitzez lagundua datorrelarik. Baina, zergatik deitu euskarari, **azal orizta**? Burura etorrita ere, nola deitu hizkuntza bati, hots, gorputz gabeko izpiritu bizidun bati, **azal orizta**? Sinismen argi beroz jantzia, kristautasunaren urrezko bainuz bustia, eta horrexegatik agian **azal orizta**, irudiratu ote zuen Lizardik *euskara emea*? Gutxi fiatu. Beste pasarte batzutan ere ikusten da, Lizardik darabilen **horiak**, nola kristau sinismeneko sinbologia bereganatzen duen:

119. *Errezka bi gizonak argizai oriak.
gorputza lau billobok; atzetik andreak.*

169. *Ikus bezat, Yauna, bein eta berriro
otalore ezin egona*

Hemen **otaloreak** kolore **horia** sinbolizatzen du; ez gainera edozein **hori**; agi denez, Lizardiren animan taigabe dirdirka ari duen urrezko **horitasun kristaua**. Bistako gauza da, horitasunak eta urrezkotasunak beste koloreek ez bezelako esanahi mistiko berezia zuela poetarentzako.

279. *Eguzkia orailen adatsa duenean.
Inguma bi xurizta, lur apaindu gaiñez.*

Maitasuna sinbolizatzen duten *bi inguma xurizta* horiek ere, **eguzkia orailen** denean dabilta. Jainkozko federik gabe, ez da beraz maitasunik. Fede horren gailurra baizik ez du adierazten «*Eguzkiak orailen duenean adatsa*» esaldiak. Lizardiren begibihotzetan, **horia** da jainkozko argi indarraren kolorea.

307. *Egun begi-uridin sortu-berri artan
(...)
Iñoren ume zanik ezpaitzakien
il-ezintzat bere burua yo zuen.
(...)
Eguerdiz gero, zalantza da, larri;
buru orailean azkura du sarri.*

Hor ere, nahiz iruditeria panteista baten metaforapean, **oraila** dela dirudi barne sinismen zalantzen eragile, animako argian hazkura sortzaile. Lizardik hainbat bider errepikatzen duen eguzkiaren eguerdiko argi bizi urrezko hori, bera, bi aldetara ulertu beharrekoa da. Batetik, zentzu liriko deskriptibo agerikoan; eta bestetik, ezkutuko sinbolismo mistiko edo erlijiozkoan. Eta haxe da esan nahi nuena: nere iduriko, aldian aldiko giroaren edo paisajearen axaleko bisajeari baino ezkutuko sinbolismo mistiko honi zor haundiagoa diola Lizardik **kolore horiari** eman zion trataerak. Lizardik darabilen urrezko **horitasun** hori, ez da euskal paisajearen horitasuna. Urrundik datorren sinismen argiaren kolorea baizik.

Beltza :

Kolore honek ez du beste munduko berezitasunik ageri Lizardiren poesigintzan. Bapatean, *uda jaun adats horia* eta *negu ama beltzarana* ezkonduz hasi gintezke kolore hau aztertzen, honako poema hau bitarteko:

225. *Yoan duk negu beltz,
ikastaro zail;
dei zagun nagusi
uda jaun orail.*

Hor ez du inolako berezitasunik edo berritasunik eskaintzen kolore beltzari dagokionean:

37. *arren, adiskide urruna, otoi mendi maitea
negar-aran beltz oni kendu nazakiok!*

Nere iduriko, hor aski ongi euskaratzen du kastillanozko «*valle de lágrimas*» delako esanera, *beltza* euskal usarioko testuinguru batean txertatuz, hots, ahozko usuario zaharrear ezaguna den *aran beltz* horetaz baliatuz.

45. *iluntzeak ditun sorbeltzak.*

47. *Sorbeltzak: «Ez duk biguna ire zoria».*

Hemen noski, sorbeltzak, euskal usarioko *zorigaitza*, *zoribeltza*, adierazten du, bestelako sinbologi berezirik gabe. Ondoko pasarte berriz, *beltza*, biziaren sorburu dugu:

85. *adar beltzetan sortu da bizia.*

147. *Ari beltz oker naasi sareak
eundaka atzitu ditu... loreak?*

309. *ereiten asi zan aziak
irrika sail beltz gizenean, ...*

Alde batetik, *lur beltza* da euskal usarioan lurrik eman-korrena, baina bestetik, sinbologia unibertsal guzian bezelaxe, guk ere **kolore beltza** dugu bizi iturri: **negu beltza**, **gorotza**, bizi indarraren magal isil eta ernatzaile; **gau beltza**, argi zuri berria jaioko deneko sabel gozo; etabar... Horretxan adierazle ziren hiru pasarte horiek.

127. *izar bat piztu du nere gau beltzak.*

181. *legorra zuri, beltz itsasoa.*

299. *belardi beltzeko loreño txuria.*

Goiko hiru pasarte hauek berriz, zuriaren antitesi modura erabiltzen dituen *beltzak* adierazteko jarri dizkizut. Holakoak ere ageri ditu frankotan.

237. *Ama Gau beltxaran, geroz ernari:
etorkizun-aurrak illun ala argi?...*

Hor ohartuki eta dotore erabili du kolore beltza, gaua *nortu* eta **Ama Beltxaran** deituz. Ematen du, ez dela ausartu gauari **Ama Beltza** deitzera, eta lehundu egin duela, **Beltzak** askotan har lezaken adiera zakar eta txar horren orde **Beltxaran** aukeratuz, eta bide batez, amaren xamurtasuna eta goxotasuna adieraziz.

Gaua ama beltxaran bihurtzen badu ere, amonaren beltza bere hartantxe azaltzen du:

253. *Mezatik etorri berri
jantzi beltz txukuna soiñean:
manteliña doi ken.*

Testuinguru horretan ageri den kolore **beltzak**, erlijiozko, errespetozko, zuzentasunezko sinbologia ere gogorarazten du. Bestalde, zartzaroaren eta samurtasunaren seinale ere bada pasarte honetako **beltza**; amonen jantzi beltz xoragarriaren xarma, alegia. Metonimia eginez beltza xamurtasunez erabiltzen deneko beste pasarte honako hauxe litzake:

159. *Itzal! , Basoren ume yaukal,
xaloagorik ezin aal,
beltxaran, begi bai azal*

Hor beltzaren alderdi on bera, samurbera, adierazten du poetak. Izadiari nortasun kristau xamurbera itsasteko hortan. maisua zen Lizardi. Baina, beste aldetik, asturu gaitzaren edo zoritxarraren adierazle ere bada kolore beltza. Sinbologi hori hartzen du, esate bateko, honako pasarte honetan:

297. *Azti zitala belea,
erio-ondakin zalea...
Zerraldoa dagon etxetik
ura bezain beltza keea!*

Lizardik pasarte beltzik baldin badu, horixe dela esanen nuke beltzenetakoa. Hor beltzak sinbolismo ugaria, nahasia eta tragikoa bereganatzen du. Pasarte hori, azal eta barren, dena da beltz.

Beraz, Lizardik beltzari ematen dizkion sinbolismo desberdinak oso klasikoak dira denak.

Gorria:

Euskal kolorerik ugariena eta erabiliena **gorria** da, inolako zalantzarik gabe. Izan ere, ez baita alferrik izan guretzako zabalatasun semantikorik haundiena ukan duen kolorea. Lizardiren poesian ere beste hainbeste gertatzen da. Gorria da, alde haundiz gainera, maizenik ageri den kolorea. Ikus dezagun zenbat erataraz erabili zuen Lizardik gorriaren sinbologia.

Batipat, bizitzaren erditzeak dakarkio gogora kolore **gorria**, *irustaren*, *pagoxa loratuaren*, *marrubien*, *sagar ale gorrien*, *odolaren*,... metaforapean. Eguberriz etxez etxe dabiltzan mutikoak ere, **gorriz** adierazten dute jaiotza:

73. *Gorritz argitutako yaiotzaz*
83. *Mamia du naasian oretua, iñolaz,
Loreil-laiño goiztar ta marrubi-odolaz*
91. *Arto musker, mendi, baserri zaarrak
ale gorritz abaildutako sagarrak.*
109. *Lore bat, gorria, mardul, eze, beti;
erts-ezin zauria odolezko iduri.*
149. *Beude marrubi loreak, eta irusta saila ere bego.
Dantzari talde Bacotiararak, esku goituan ontzia
ardo.]*
169. *Ikus bitzat arako irusta sailak
eskuan ditutela ardo txanbillak*
151. *Leer gabe lore zabal-zorien
gorrixka, nabari dut sarri
odol tantoak antzo... Begira
erditze baten aztarnak dira:
Bizi-erditze zoragarri!*

Azkeneko pasarte honek ederki biribiltzen duela uste dut poetaren gogo kolpatzen duen gorriaren sinbologia hori.

Gero, udatik udatzenerako pasabidea, lehen aipatu dugun kolore horitik **gorrira** igaroaz adierazten duela dirudi, baina, batzutan nahasi egiten dela dirudi, bi kolore hauek erabiltzekoan. Ez du ongi bereizten bien arteko muga, hain zuzen ere, berak sortua duen muga berri hori.

Euskal usuarioan ez baita muga horrenik inoiz egin:

157. *Muskerra ta artoa dagotzu soilki
eguzki gorritan ezin izardi.*
161. *Uda! Gar zoragarri, suzko itsaso*
165. *Ondarreta bat du, soil eta gorri.
Itsasoak bait baitu, urrun-ertzean
urre gorizko bide-goenean,
legor bat, odol iñularrean,
Eguzki nondik sar atsedenean.*
167. *Noizbait orlegi, gaur nabar basoa
tarteka gorri garoa.
Beste gain erpin bat bazan agiri
leen eze, gaur burni-meatz iduri.
Lurraren azala erdoitua da,
ala dut odola begietara.*

Ikaragarria azken pasarte horretako kolore ugaritasuna. Udazkenaren kolorea bistan da gorria dela, *burni gori*, *berdoi*, *odol*, etabarren bidez adierazia. Baina, uda minari ere, batzutan *urrezko horitasuna* darioa eta bestetan *gorritasun erre*a, *kixkalgarr*ia. Dena den, nahiko garbi uzten du, *urre ontzia* (*eguzki horia*) bere udako itsasaldia eginik, udatzena adierazten duen *hondartza gorrian*, *arrats gorrian* ezkututzen dela. Hau da, horia gorri bihurtzeak, udatik udatzenarako pasabidea adierazten duela.

Gorriaren beste sinbologia, lilurarena da, xoramenarena, maitasunarena. Arrats gorriak, goiz gorriak, oskorriak, ezpain gorriak, liluratu egin du giza gogo menderen mendetan. Hala berean Lizardirena:

47. *Maitasunarren ero, badoa dei-dion ao gorrira.*
181. *Kanta ditzagun ango gau luze,
ango illun-nabar su gorritz bete;
gizonek elurra aterpe;
lurralde gizenik gabe.*
187. *Nigana datoz, naasian...
Barru muiñeko gauean,
su itzalitako zarra gar gorri
dabil ta biur-naiean.*

241. *Begiak, urre gar uts*
Entzumenak, ezti gorri
273. *Begi zabaletan argi*
ezpain gorrietan irri.
(...)
Lirain askiak agiri ditun
ondar gorri eze antzo,
gari elduaren margo.
305. *Beldur naiz , eneño, arrats gorriotan*
307. *Maitagarriari betazal ertzetan*
oskorriak dirdai, nonbait malko-intzetan

Gorria fintasunaren eta zintzotasunaren adierazle ere bada:

281. *Pozik -erantzun zion Maiteak*
Masailak gorrituz.
289. *Biotzetik datorkit orain oiartzuna:*
Eliz leio ñabarrak...
«emen lore gorri, ta kanpoan asuna!

Soiltasuna edo hustasuna ere, euskaraz kolore gorriaren bidez adierazten dugu:

255. *Bakar gorrian laga*
(...)
atzapar uts gorriez ar!
165. *Ondarreta bat du, soil eta gorri.*
179. *Bidazti-begiek sarri, aidean baso iturri:*
bertaraiñokoan ondarra gorri! (huts)

Euskal herriko etxea ere, ikustekoa da, nola pintatzen duen Lizardik:

295. *Etxe gain gorriak emana*
keea dun ederragoa.
(...)
etxe zabal teilagorria
185. *Yoka niagok atea*
ate gorri zurezkoa.
euri zaarrek usteldua
marraskiloek bide biurri
dirdaitsuez apaindua.

Beste leku askotan ere ageri da **gorria** Lizardiren olerkigintzan, baina, nik uste,

berezitasunik nabarmenenak azalduak gelditzen direla honainoko honekin.

Urdina:

Gorriak baino tratamendu berexiagoa eta estilizatuagoa hartzen du urdinak Lizardiren olerkigintzan. Nik esan behar banu, *bori/urreen* hurrena *urdintasuna* dela Lizardik maiteen duen kolorea. Bien ala biak ere, kristau usuarioan eragin haundia izan duten koloreak. Halare, gure usuario zaharreko urdina beharrea, batipat zazpi koloreen eskala berriko zentzuan erabili zuen **urdina** gure poeta lirikoak. Lizardiren poemetako *urdinik* oparoenak, jainkotasuna, garbitasuna, birjintasuna, purutasuna, biribiltasuna, eta gisako esanahi sakonak adieraztera jotzen baitu. Ikus nola dabilten elkarren eskutik *urre kolorea* eta *urdina*, kristau simismen barrenkoi baten adierazle:

37. *Ire goi urdiñaren urre laifotsupean*
41. *Esan amatxo: aingerutxoak / egoa urrezko badute*
zeru urdinean urre dirdira nik nola ikusten ez ote?.
67. *Non dira? ... Antxe, urdiñaren sakonean*
ezer ez duzu ikusten argizko auts-irakin-antzean
- Noratsu? ... Iñoiz ez. Oro leengoraturik
begiak ez du yotzen **urdin baztergabee** besterik

Udaberriari ere **Neskatx urdin-yantzia** deitzen dio Lizardik. Nondik sortua ote da **urdin** hori? Espazio haundiak, zerua eta itsasoa, **urdinak** dira beren zabaltasunean. Eta haien arteko espazio hutsa ere **urdina** da. Goiko eta beheko *uren*, *urdi*, *urdinen*, partitze horixe da, munduko kultura guzietan, udaberriaren adierazle, biziaren sorreraren adierazle. Horregatik ote Lizardin udaberria ere, *Neskatx urdin yantzia*? Auskalo.

83. *Udaberri, uzte-ezik, arki dut basoan.*
Neskatxa da, ta urdiñez yantzita ziyoan.
Urdiña yazkia, ta begia areago.
Alakorik itsaso barean ez dago.

Gure mitologiko **Zazpi Mariak** ere basoan

bizi dira, eta biziaren zaintzaile dira kobazulotako **urbegietan**, sakoneko **urlinean** alegia. Iristen ote da haraino poetaren gogo, udaberriari **Neskatx urdin** deitzean? Ezetz uste nik. Haren **neskatx urdin-yantziak**, beste inorena baino antz haundiago du kristandadeko **Amabirjina urdinez** jantziarena. Hura ere, (birjina zela, gainera!) bizi berriaren sortzaile izan baitzen. Beraz, haren birjintasuna, jantzi urdina, eta biziberritzea, guziak batean ederki biltzen lituzke Lizardiren **Neskatx urdin jantziak**. Nik uste, nonbait hortik dabilela gure liriko orpoxuriak kolore urdinari eman zion zentzu sakona; eta ez gure sinismen zaharreko aztarnetan.

85. *Bilutsik zan basoa negur-ondarrean,
neskatx urdin yantzia bertara danean.
Zebilela, ats epel bat, usaiez yoria;
dama; ta adar beltzetan erne da bizia.*

*Ustez, bur gaiñean gaua dut, argia,
amaika izar urdiñen dirdirak yosia...
Ustez, ur orlegiak nituan oiñean,
izarrok ziralarik islatzen urean...*

Gezur amesgarria, lilurak sortua!

87. *Goien urdiña nuan ostoak xeetua;
beean berriz, urrezko yarioz argiak
belarrean oi-ditun begibil zoliak.
(...)
Maitetasun-azia: ene udaberria:
neskatx tankerakoa ta urdiñez yantzia.*

Goiko eta beheko uren arteko nahasmena adierazi nahi duela dirudi hor poetak, zeruko **urdinarekin** eta erreko urdinean isladatzen den osto belarren **berdearekin** liluratzen denean. Honatx, esanahi honen inguruan dabilzan beste pasarte urdin batzuk :

147. *Gaur orra agiri tarteka urdiña
sor zait barruan larrera-miña.*
179. *Itxaso bare, zelai urdiña,
muga-biribil, belar berdiña:
gizaldea duk sorgiña!*

183. *Goazeman zerura igoz
tzar urdiñetaraiñoko asmoz!*

209. *Uso zuri antzean zetozen
itzuli, itxaso urdiña zear
mokoan edergai, basoaren abar.*

227. *Gezi urdiñek ziztatua dakus illuna Gaztek.*

295. *Basalurrez bidalarikee urdiña badut nabari,
ai nire poza! uraxe baita gizalur-ezagungarri.*

301. *Amesmena goza ttanta bat urdiñez
iduki nazazu sor-gor, zure miñez...*

305. *Egun begi-urdin, sortu berri artan.*

Azken pasarte honek ere ederki erakusten du sinbologia horren koherentzia. Udaberria, **neskatx urdin yantzia**, bizi berri sortzaile den bezalaxe, **Egun begi-urdina** ere argi eta bizi berri sortzaile baita. Egunaren zikloan egunsentia, eta urtearen zikloan udaberria, sinbologiz elkarren kide baitira. Gainera, lehenago ikusia dugun gisan (*Uda, hori/urrezko; Udazkenagorri; Gaua, ama beltxaran*) Lizardik koloreari trataera zikliko koherentea eman zion, kontraesanik sor ez zedin, kolore bakoitza noiz eta nola erabili ongi aztertuz. Eta, zikloaren ariora emandako tratu berexi honez gain, deus gutxi du Lizardiren urdinak, aipatzea merezi duenik. Baina, dena esatera, euskal usuario zaharrean erabilitako urdin ttanta bakan batzuk ere baditu han hemenka:

121. *Gaur arriak ere baitira itzal
Nork lekuzkez , ikusi
urte urdin igesak.*

135. *Ille-urdintze ta aguretzeta*

203. *Laiño urdin , begiak;
izotz-arnasa, agian*

Nork bereizi ordea, **urdin** hori noiz den usuario zaharreko eta noiz berriko? Erdikoak ez du zalantzarako biderik ematen, baina, aurreneko eta azkeneko pasarte horietan nahiko lanak izanen nituzke nik **urdin** horrek zer esan nahi duen segurantziz erabakitzen.

Zuria:

Nik ez nuke esanen Lizardik kolore zuriari hartainoko tratu berezirik eman zionik. Bi edo hiru pasarte baditu zuritasunak poema osoari halako edertasun liluragarria ematen dioteneakoak, baina, hortik aurrera, gure liriko berrixaleak, apenas ageri duen inor xoratzeko moduko jantzi xuririk. Nere iduriko, zarauztar sentiberaren olerkigintza guzian ageri den soineko txuri bakarra, *Sagar-Lore* poemako hauxe da, hala nahita, jakinaren gainean trataera berezia ematen zaionekoa. Poeta mendigainera atera da, eta behean sagastia ikusten du lore zuritan. Duda mudatan jartzen da, han behean ikusten duen zuritasun hura, neguko azken elur hondarra ala loreen zuria izanen ote den:

147. *moltso zuri bat..*

Elur malutak? loreak? mitxeletak?

149. *Sagasti berri, sagasti zuri,*

Inguma-atsegintoki iduri,

Elurte arian geldia.

Beraz, denetatik badu poetaren gogoan piztu den *zuritasun* hark. Baina hori guzia aski ez, berriro ahapaldi berberaren errepika eginen du *zuritasun* zoragarri horri are indar haundiagoa emateko. Begira *sagasti berri* ordeztu *sagasti gazte* esate horrek eransten dion edertasun prosodiko zein sinbolikoa:

151. *Sagasti gazte, sagasti zuri,*

Inguma-atsegintoki iduri,

Elurte arian geldia.

Honen ondoren kolore gorrira jotzen du poetak, berak hala nahita:

151. *Txuriaz naasi, pipil gurien,
leer gabe lore zabal-zorien
gorrixka, nabari dut sarri
odol tantoak antzo... Begira
erditze baten aztarnak dira:
Bizi-erditze zoragarri!*

Ohe zuriko maindire gainean odoletan erditzen den haurraren imajina gogoan balebilki

bezela. Poema honetan indar guti balu, gainekoetan eskasagoa luke Lizardiren zuriak. Ikus ditzagun behiala nafar batek *xangoxuri* deitu zion gure liriko kaletarraren pitxi xuri horietako beste batzuk. Euskara bera pintatzeko ere *emetasun zuria* erabiltzen du gure poeta ahoxuriak:

175. *Aberriaren abots ezitia*

gogamenaren ezkon xuria.

209. *Leotzan, il iduri*

gizalaba eder odol gabez zuri.

(...)

Aapaldiak elkarren ondoren

(...)

Uso zuri antzean zetozen

(...)

mokoan edergai, basoaren abar

Gainekoan, ttanttaka ageri diren aipamen xuriak guziz arruntak dira Lizardirenean:

23. *Aurrean zu, zabalik (ohea)*

elurra ainbat zuria

51. *Egunak iges, ta goiz bat zuriz yantzia*

dardar yaio zan... Negua

(...)

Oro zegok otz, bai bakar

oro bai, ene! , zuria! (elurra)

259. *Itssoa zabal dager*

lerro zuriz ertza (aparra)

279. *Inguma bi xurizta, lu apaindu gaiñez*

lozez loreko ibilli gozoak egiñez.

291. *Etxeak mendiaren bixkar bizkarrean*

usoak dirudite

soin zuriak nabari zeru gardenean.

Iparragirrek bezela, Lizardik ere, **zuri** ikusten zuen euskal baserria. Bien ala bik ere kalekumeak izaki. Ez zuten beste errurik. Nik dakidala, oraintsu hasiak dira euskal baserriak xuriz pintatzen. Batere gustatzen etzaidan kontua. Izanez ere, hango kolorearen berri, hartatik bizi denak baitaki.

Berdea:

Jakina, Sabino Aranaren jarraitzaile izanik, Lizardik ez du aipatu ere egiten **berde** hitzik; **orlegia** edo **musker** hitza erabiliko zuen kolore hau adierazteko. Halare motz gelditzen da *berdea* orain arte ikusi ditugun beste koloreen maiztasunaren aldean. Aurreneko eragozpena izena bera bide zuen: **berdea** arrotza izaki, eta **orlegia** berriz hotz. Nik uste **eze** hitza ere erabili zuela **berde** zentzuan:

141. *Egur ezearen kea
goiak du kolore:
egunaren atariruntz
zauri bat gordiña,
odol-bearrean urre.*

Halare, Lizardik ez du nabari Lauaxetak bezain garbi erabili zuenik **heze** hitza **berdea** adierazteko, honetan, biek ere, Arturo Campionen esaneko direla dirudien arren. Nere iduriko, goiko **egur eze** horrek, ez baitu, kolore **berdea** zertan adierazirik. Honako Lauxetaren **heze** honek argiago erakusten du **berdea** duela esanahi:

*¡Ene Bizkaiko meatze gorri
Zauri zarae mendi ezian!*

Hala eta guzi, Lizardi kolore berdeak hainbeste liluratu izan balu, maizago erabiliko zuela uste dut nik; besterik ez bazen ere, zeharkako edo konparazio bidezko metaforak erabiliz. Baina, hartara ere apenas baliatu zen. Nik uste, kolore berdeak etzuela asko askorik liluratzen Xabiartxoren begia.

Ikus ditzagun bada, ageri diren berde muturrak:

85. *Ustez, ur orlegiak nituan oiñean,
izarrok ziralarik islatzen urean...*

Uraren kolore nahasia zuen aiputan, zeruaren urdina eta hostoen berdea disdiratzen deneko putzu geldiak sortzen duen xoramena.

91. *Arto musker, mendi, baserri zaarrak
ale gorritz abaildutako sagarrak.*

157. *Muskerra ta artoa dagotzu soilki
eguzki gorriatan ezin izerdi.
Beste erpin musker bat or baita ageri
maldan gora zaizka zuaitzak geldi.*

Gauza batek harritu izandu nau beti: udako **berdetasun bizia** adieraztekoan **arito** eta **musker** hitzak uztartzeko usuario hori nondik datorren ez jakiteak. Herriagandik jasoa al da? Ageri al da idazle zaharretan? Nik ez jakinki. Gerra zibilak txikitutako idazletan: Lauaxetak badarabil, Lizardik ere bai, baina, nik dakidala, Orixek ez, nahiz **musker** hitza erruz erabili; harritzekoa hark ez aipatzea, herriak usarioz erabilia izateko.

167. *Noizbait orlegi, gaur nabar basoa
tarteka gorri garoa*

165. *Gurdibide bakan-ibil ertzetan
untza dago oraindik, nagi, loretan.*

Udazken soil gorrian, huntz hostoak bakarrik gordetzen du berdetasuna, eta **berde nabarmen** huraxe adierazi dizu hor poetak. Udatzeneko berde mutturra, **huntzostoa**, negu gorrian mendira bidali dituen antzuei, artzaiak aizkoraz bota ahal dien berde apur bakararra. Ez du gehiagorik Lizardiren berdeak.

Zilar kolorea, arrea, Nabarra,...

Badira han hemenka ageri diren beste kolore xeheago batzuk ere Lizardiren poesian. Izarren argitasuna adierazteko askotan erabiltzen zuen **zillar kolorea** esate bateko:

41. *Gauta zanean, ortzi zabala
bare-ozkargi zegoen,
ta izar argien zillar-begiak
aurrari par zegioten.*

Ikus beste honetan ere, izarrak *diru xeherekin* konparatuz egiten duen joko:

225. *Ozkarbi zen gau, bitxiz yoria:
zillarpil larria, ta diru xeea.*

Beste batean ere aipatzen du *zillarra*,

koloretasun ohartu haundirik nabari ez duena:

227. *Baratzaren mugan torre bat serail,
oro beltz, zillarrez ertzak zurikail*

Dena dela, hutsaren hurrengo dirudi honek, kolore kontuan maisutzat jo izan den poeta bati inolako iruzkinik egiten hasteko.

Euskal usarion eta paisajearen bertan hain ugaria den kolore **nabarra** ere apenas ageri den Lizardiren poematan:

161. *Zuaitz tartetandiko urre nabarra
bezagun udaren bitxi bakarra.*

167. *Noizbait orlegi,
gaur nabar basoa
tarteka gorri garoa*

Zoragarri egiten zait **urre nabar** hori, nola begira hala belarrira. Beste edozein kolore bigun, mellenga, xamurbera, baino askoz hobeki datorkio hori euskal paisajeari eta nortasun zaharrari. Baina, holakotik deus gutxi ageri da Xabierrenean.

Behin bakarrik aurkitu dudana beste kolorea, **arrea** da. Lizardiren ustez, **txolarre** izena **txori+arre** dela uste izatetik sortua ez ote den **soin-arre** hori, eta ez, inondik ere, Lizardik berezko senez txori horren lumajeari **arrea** deituko liokelako:

99. *Parisko txolarrea
azalez, soin-arrea.*

Horratx, Lizardiren poesigintza osoan ageri den koloretasuna, azterketa zorrotzetan sartu gabe egina. Ez al da nahiko eskasa, gure lurra inork ez bezela margotu zuela dioten maisu batendako? Nik hala uste. Lizardik kolore kontuan ekarri zuen berritasun bakarra, bere egitura poetiko ziklikoa kolore bidez tajutzea izandu zen, urtealdi/egunaldi bakoitzari bere nortasun koloreduna emanez, eta elkarren arteko lotura koloretasunaren lojika horretara egokituz:

1. *Udaberria: neskatz urdin yantzia. Eguna: begi urdin*

2. *Uda: yaun orail. Eguzkia: urrezko zauri, urre urtuzko yasa]*

3. *Udazkena: soil gorri, ondar gorri, herdoi kolore, etabar*

4. *Negua: beltz. Gaua: Ama beltxaran; begi-beltxa.*

Baina, kolore banaketa zikliko honetan ere, bai Neguak eta bai Udazkenak ez dute nortasun koloredunik. Bakar bakarrik Udaberriari eta Udari nortasun koloreduna eman izanak, lehen esana indartu baizik ez du egiten. Lizardik **urre kolorea** eta **urdina** barren barrengo sinismen kristau baten sinbolo gisan landu zituela, alegia.

Lizardik koloreari eman zion tratamenduak ez du beste berritasun berezirik. Orixeren senezko **nibirri-nabar** zakarra, gure paisajeari (eta izakerari ere bai, esanen nuke nik) berez darion hura, ekialdeko **urre horizta** lleun arrotzez pintatu besterik ez zuen egin Lizardik. Nere idurira, eta Lizardizale askoren kontrara, gure paisajearen kolorea azaldu beharrean, urrezko eskualdi bat axaletik emanez, estali baizik ez baitzuen egin gure lurraren zinezko koloretasuna.

Eta, baten batek aurka egin nahiko balit, esanez, baduela Lizardik pasarte koloredun asko, zuzenean adierazi gabe, hitz estalika emana, nik honela erantzunen nioke: halako pasarterik, aipatzea merezi duenik behintzat, bakar hauxe besterik ez dudala aurkitu :

141. *Egur ezearen kea
goiak du kolore:
egunaren atariruntz
zauri bat gordiña,
odol-bearrean urre.
Sakoneko laiñoz gora
tontorrek elurrez
itsasoa iduri
ametszeko ontziez.
Bide-ertzean, ez marrubi
ez belar gizenik.
Otalorea bakanka,
goitzo karraxika,
Udaberriari deika.*

*Or pago bat lerden aski,
igazko apaingarriak
(gaur obel gorriak)
oso yaregin nai ezik
nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak.
Ostobakandu-sasian
kabi bat, uts, urratua...
Arru-beetik erreka ots,
euriteak bulartua ...*

Alperrik bilatuko du inork pasarte hau bezain koloredunik Lizardiren poesian. Holaxe hasten dira *Urtegiroak Lizardiren begian*. Konforme! Inondik bada, begitik sartzen da kolorea. Konforme! Hain zuzen **kolorea** aipatuz hasten da poema hau: **egur ezearen kea, goiak du kolorea**. Zinez pintzelada zoragarria, kolore asuntoan Lizardik zoragarririk baldin badu eta. Sarrera horrekin, eta bide batez **kolore** hitza aipatuz, gaztigatu bezela egiten du poetak, ondotik datorren koloretasun hori guzia irakurleari oharkabea pasa ez dakion. Baina, eusten al dio gerora, pasarte horretako kolorearen tratamendu ohartu eta oparori? Nik uste ezetz. Ezta pentsatu ere. Egia esatera, kasketa bategatik leitu nuen behin eta berriro Lizardiren poesilana: kritiko guzien iritziaren kontra, Lizardik koloreekiko, batipat gure usarioko eta seneko koloreekiko, halako maisutasunik erakutsi ez zuela uste nuelako. Orain berriz, proba egin ondoren, orduko uste hark egi itxura hartu duelakoan nago.

Ni ez naiz orain Lizardiren lirismorik lurperatzen hasiko. Halare, uste dut, euskal paisajeak, gure seneko koloretasunean, asko irabaz lezakeela, lirismo kontuan Lizardiren hankazpira helduko ez diren etorkizuneko poetekin ere. Nere iduriko, euskal paisajearen kolore ugaritasuna, bizitasuna, nabardura, eta batipat, usarioz herri xeheak koloreei buruz jasoa duen berezitasun semantikoa, behar bezela landu eta gailur ederrera jaso gabe baitago oraindik gure poesian.


Luzamendutan ibili gabe, haizu nadin galdera zarpail batekin bukatzera. Lizardik gure paisajeari halako berezkotasun koloreduna eman baldin bazion, euskal koloreekiko halako sentiberatasuna ukan baldin bazuen, zergatik ez zuen erabili maizago gure usarioko hainbat eta hainbat kolore izen eder eta poetikotasun haundiko? Esate bateko: *gorrantza, gorritzta, gorriurdinska, gorri zurista, gorri nabar; zuriska, zuriuridin, zurigorri, zuribeltza, zurinabar, zuri horizta; beltzaska, beltzarrea, beltz iluna, beltzurdina; berdozta, berdatea, berde ilun, berde argi, berde urdinska; hori, hori gorritzta, horiska, hori zuriska, hori berdantza, horibeltza, hori hila; urdinabar, urdinareta, urdin iluna, urdin argia, urdin berdaska, zeru kolorea; more, uhel, marroi, nabar, betroi, pinto, gaztain kolore, hauts kolore, lur kolore, azeri kolore, etabar, etabar gehiago...* Zergatik ez zituen erabili maizago halako fonologia eta morfologia ederrako hitzak?

IÑAZIO MUJIKA

Ipuingintzaz

Ez dakit ni neu naizen aproposena ipuingintzaz mintzatzeko, ez behintzat inori aholkuak ematen hasteko. Behin zaunka egiteak ez du inor txakurtzen eta euskal literaturak obra bakarreko idazle gehiegi du bere baitan. Aspaldi ikasia dut ordea, buruan nahasi xamar dabilzan intuizio, pentsamendu eta susmo hutsak esplizitatzeak eta paper batean jartzeak, norberak hobeto ulertzeko besterik ez bada, balio duela lehen-lehenik.

Ezin uka ipuina eta nobelaren arteko ditzosozko mugak zertan diren erabaki nahiak sortu dituela jende on askoren buruak nekatzerainoko arazoak, eta ondorioz paper zirriboratu ugari. Ez nintzateke gauza izango ordea, auzia lehen hitzetik erabakitzeke. Itzulunguru handiagoak eman beharrea nago, azkenean araziz, ezer berririk ez esateko. Zenbaiten eritzia baita galdera bat modu negatiboan jarriz gero errazago erantzuten dela, *por reducción al absurdo* horrela esan nahi baduzue, presa ezin kontenitua daukat ondorengo botatzeko: zer ez da beraz niretzat



ipuingintza?

Ipuingintza ez da nobelarako pauso bat. Nobelaren ataria.

Eta komeni da hori aurren-aurrenetik garbi eduki dezagun. Ipuinak egitea ez baita inportantziarik gabeko dibertimendu hutsa, nahitanahiez nobelaren itsasoak irentsiko duena, zenbaitek fribolitate arinetik esatera ausartu ez, eta sujeritu

ohi duen bezala, sujeritu hitzaren esanahia ulertzeko gauza ez dira baina.

Inportantzia handiko afirmazioa duzue hori. Ipuinaren errebindikazio literario autonomotik egitea ezinbestekoa iruditzen zait gainera, hain serio ikusia ez dagoen gure gizarte honetan.

Gogoan dut —eta barkatuko dit irakurleak nire esperientzia urritik hitzegin beharra, baina itsusi emango luke besterenaz hitzerdirik esatea—, gogoan dut, nioen beraz, nire lehen liburua agertu zenean orain hiru urte, gerturatu zitzaizkidan komunikabideetako ordezkarietara arrazoindu behar izan nien gauzetako bat ipuinak eginaren arrazoina izan zela (lexiko zaila erabiltzen nuela oharterazi ondoren jakina, baina


hori beste korapilo bat dugu euskaldunok, gaitza oso aska-
tzen): *zergatik ipuinak?* beraz,
haien galdera burutsua. Eta
honen ondoren segurasko
maizenik egin zidatena, honoko
hau izan zen: *Noizko nobela?*

Gogoan dut noski, ipuinak
alde batera utzi beharraz
ihardun nuela nire baitarako,
luma zorrozteko ariketa modu
polita izango zela ipuingintza
aurrerantzean ere, baina gauza ganorakoagoren
bat egitera destinatua nengoela, segur. Sasoi
hartan nobela bat egin beharraren arrazoinak
juzkatu eta neurtzen eman nuen denbora puska
bat. Gidoi bat ere egin nuen, nire ustez nobelarena
izan zitekeena, eta hasi ere hasi nintzen ustez
entzerraturik pasa behar nuen Abuztu ez hain
sargorian.

Ez dut uste foliotik gora idatzi nuenik, nik
pentsatutako istoria hura ipuina zela konturatu
nintzenerako. Urte bete itxaron behar izan zuen
proiektuak, arrazoin estraliterarioak (eta
sordidoegiak hemen agertzeko) zirela medio.
Nobela izan behar zuena ipuin bihurtu zen eta
arrakastatsu agi denean, Aldecoa Saria eta guzti.

Uste dut esperientzia frustratu hartan erabaki
nuela egiatan nire terrenoa non zegoen.
Segurasko erosoan sentitzen naizen frontoia
delako. Bere autonomia propioa delako. Nobela
eta ipuinaren arteko mugak, ordurarte kanpoan
bilatu nituenak, hara non eta nire baitan zeuden.

Garai hartantsu, bai erderaz nola euskaraz
ere errespetatu egiten dudana idazle bati *Zabalik*
euskal gehigarriko elkarrizketa bat egin
beharrean suertatu nintzen: Martin Ugalde zen.
Neronekekarri nuen konbertsazioa auzi honetara
eta hark esan zidanez kategoria ez zuen berak
ipuinlari eta nobelagilerenean erabakitzen,
kategoria idazlearena zen batik bat harentzat.
Idazleak idatzi egin behar du, horrela sinpleki
esanda, eta ipuinak egiteko gauza dena gauza da



nobela egiteko ere.

Konforme egoteko arra-
zoinak baditut teoriarik. Praktikan
ikusten dut ordea, bi eremuetara
indarrak eramaten dituzten
idazleak batean ateratzen direla
batez ere aurrera, eta bestean
huts egiten ez badute ere, esan
dezagun, urruti geratzen direla.
Bestalde, ipuinlari hutsak ere
izan dira literaturaren historian,
Borges kasu, zeinak esaten bait

zuen sei orrialdetan esan daitekena ez dagoela
zer hirurogeira eraman beharrik.

Baina hasiera bateko auzira bueltatuz,
definizioetara alegia, beharbada esatea badugu,
ipuina sujerentzia narratiboa dela orokorrean
hartuta, intentsitate eta kondentsazio handiko
sujerentzia ere; eta nobela adierazpen narratibo
zehatzagoa dela. Ez horregatik landuago, bai
ordea arnas handiagoko.

Edozein eratarik ere argitu beharrean nago,
beka-emaile itsu edo betokerren eskarmen-
turako, jenero bat ez dela inoiz bestearen
zirriborro eta ipuin bat ez dagoela nobela baten
neurritara ekartzetik, burokrata listoren batek
noizbait belarri harritu hauen ertzerak baiezta-
tuz bezala, euskal diasporaren gainean arituko
litzateken tonu lotsagaldu berberetz.

Agian konsensuaz onartu beharko dugu beste
hoberik asmatzen ez den bitartean Celaren
definizio hura: "Es novela todo aquel libro que
así lo haga constar en la portada". Estensioz
aplikatzerik dago definizio berbera ipuinari.

Hala eta guztiz ere, eta oso era pertsonal
batean saiatu egingo naiz zenbait ezaugarri
ematen.

Zenbait ezaugarri on daitezkeenak ipuingintzaren definizio baterako.

Galderarik usuena izaten dugu, nola edo hala

honetara emanak bizi garen guztiok: Nola sortzen da ipuin bat?

Galdera horri erantzuteko eta teoriko bat ez naizenez, nire esperientzia pertsonala dut mahain gainean jarri beharrekoa. Aurten aditu diot Donostian Miguel Sánchez Ostiz nafarrari bere hitzaldiak beti edo gehienetan era batean titulatzeko dituela, “De como escribí algunos de mis libros”, azken-azkenean, sortzaileak ezin duelako askoz gehiago egin, bere liburuez hitzegin besterik. Hori duelako aportaziorik handiena. Saiatuko naiz hemen, nire ipuin batzuk nola sortu ziren azaltzen.

Marcel Schowob idazleak hala zioen Stevenson mirestuaren idazteko moduz espainolera *Ensayos y perfiles* itzuli duten *Spicilège* liburuan: “Igual que un fundidor que cuele el bronce alrededor del ‘núcleo de arcilla’, Stevenson cuele su historia alrededor de la imagen que ha creado”. Aipatu ere aipatzen ditu ipuinen artean eredu batzuk *The Sire de Malétoit's Door*, *Dr. Jekyll and Mr. Hyde Pavilion on the Links* etab...

Konbertsazio liburu batean, *El olor de la Guayaba-n* hain zuzen, García Márquezek aitortzen du, bere liburuetako hatsarrea imajina bisual bat dela. Eta adibidetzat jartzen du *La siesta del martes* izeneko ipuina, non hasieratik ikusten bait zituen bi dama guardasol banarekin kale eguzkiak goritutako batean aurrera dihoaztela. Imajina hori izan omen zuen ipuin horren sorburu.

Nire kasua, Kantauriak eta Caribeak gorabehera, oso haren antzekoa da. Barkatuko dit irakurleak konparazioa.

Hatsarreko imajina fokal horren desarroiloa da niretzat ipuina. Imajina horri, nolabait esateko, izateko arrazoina bilatu behar zaio, trama lotu, alegia. Xomorro gorputza den imajina horri,



hankak eta burua eta buztana bilatu behar zaizkio.

Inon izatekotan hemen nago uste osoan, hasierak eta bukaerak dutela inportantzia erabakiorra. Honela dio Horacio Quiroga ipuinlari Argentinarrak bere *Decálogo del Perfecto Cuentista-n*: “No empieces a escribir sin saber desde la primera palabra adónde vas. En un cuento bien logrado, las tres pri-

meras líneas tienen casi la importancia de las tres últimas”. Funtzio estelarra jokatzeko dute biek, Alfak eta Omegak, lehen hitzek tonua hautatzeko (ez ipuinetan bakarrik) eta azkenak berriz efektua, distira begie- taratzeko irakurleari. Gertatzen da hemen bertsolaritzan bezala, bukaera bilatzen dela lehen- dabizi eta ondoren hasten dela bat kantari.

Hala ere, ez nago seguruegi gauzak beti horrela direnik, politegia eta sinpleegia litzateke horrela esanda egia izateko. Askotan hasi ditut ipuinak nola bukatuko diren jakin gabe, pertsonaien beraien askatasunaren baitan utzia dut erabakiaren ahalmena, barne koherentziaren baitan jarriz uste osoa.

Barne koherentzia. Hitz dotore potoloa askotan kasualitate eta inprobisazioa izendatzeko.

Eta sarri gertatu zait oso berandu arte kontzebitu gabeko pertsonaia bat, bihurtzea ipuin batean, elementurik freskoena eta aurkikuntzarik estimatuena. Ezin uka gainera jakin ez horrek espektatiba zabalagoak eta idazten ari denaren tentsioa mantentzeko biderik seguruena denik.

Osterantzean, ipuina oso-osorik buruan lotua dagoenean, idazteko lan mekanikoa profesionalagoa da, ponderatuagoa, aspergarriagoa ere bai ordea, nor bere buruari kontatutako ipuina behin eta berriz kontatu beharraren asperra sortzen zaio idazleari.

Baina gatozen berriz, hasiera batean eta ipuinaren enbrioia den imajina fokal horren kontura. Zer da imajina hori? Nola aukeratzen da bat, horren gainean idazteko?

Egotzi beharreko beste edozein adjetiboren gainetik obsesioa izaten da imajina bisual horren izaera. Gau eta egun jarraitzen zaitu itzal berezia bailitzan orpoa miatzkatzen. Lotara erretiratu eta ez zaitu bakean uzten. Imajina plastikoa izaten da, ia piktorikoa, zinematografikoa sarri.

Baneukake kontatzerik, hartara behartuz gero, idatzi dudan ipuin bakoitzaren atzean dagoen imajina. Ez dut uste hori denik hemengo xedea, baina muestra modura konta nezake, nire *Azukrea Belazeetan* liburuko azken ipuinean, burutik behera izenekoan gertatu zitzaidala erabat liluratuta nengoela baserri baten hustuketarekin. Leihoak jostearen soinu danbada izan zen ipuin horren konpasa. Esperientzia propioez agutu ez dudan imajina triste horretatik abiatuz sortu zen fikzioa oso-osorik. Beste batzutan bi aktore izan dira imajina bisualaren iturburu, eszena gainean Shakespeareren Julio Zesar jokatzeko ari, bata bestea hil...

Baina zergatik imajina horiek eta ez beste batzuk? Nola sortzen dira gure obsesioak? Nola egiten da hautaketa?

Idatzi, bizi izandakoaz idazten da eskuarki. Rulfo handiak kontrakoa esaten badu ere artikulua gogoangarri batean: "Me achacan que escribo cosas que nunca han sucedido. Nunca me contaron cuentos". Ongiegi finduta zeukan belarria mexikarrak egia izateko. Bizi izandakoaz diot, eta erizpide hau estuegia dela esango dit norbaitek. Nik ordea, bizi izandakoa deitzen diot irakurritakoari ere, bizi izandakoa da niretzat herriko agure bati aditutakoa edo amaren haurtzaroa ere bizi izandakoa dut nik neurri



handi batean.

Memoriaren laberintoak oso dira bihurriak eta oroitzapen bat besterekin nahasten da sarri, imajinak sortuz. Bizi izandako guztia, jakina, ez da literarioa. Bada galbahe bat gure barruan —eta denborarekin aldatzen den horietakoa duzue gainera—, une bakoitzean literarioa zer den eta zer ez den esaten diguna.

Demagun segidako hau idazten dudala nire koaderno partikularrean: "Haurra naiz. Zaintzen nauen inñudearekin parkera noa. Balantzinetan nabil kulunkatzen. Inñudea banku txuri batean eseri da niri begira. Ni bakar-bakarrik kulunkatzen naiz". Batek nekeak ditu hortik ipuin bat aterako denik imajinatzen. Oroitzapen bat izan daiteke, hortik aurrera ezer gutxi. Hala ere, hasierako imajina horri erasten badiogu honoko segida hau gauzak aldatu egiten dira: "balantzinen beste muturrean neska bat igo da. Lotsak nago. Inñudeari mutil bat inguratu zaio. Ezker-eskubi begiratu eta ondoan eseri zaio. Paper batzuk ematen dizkio eskura. Nik balantzinetik kolpean jaitsi. Balantzina irauli. Neska lurrean". Ez ote dugu orain ipuin baterako planteamendua egina?

Ez da faltako imajina bisualen gorabehera guzti hau nobelan ere ematen dela gogora eraziko didanik, baina jatorriko imajina fokal horren inportantzia, nobelaren kasuan difuminatu egiten den bezala, areago doala esango nioke delako hari ipuinaren kasuan. Alde batetik gertuagoa duelako idazleak berak ipuina desarroilatzerakoan eta bestetik irakurleak berak imajina hori jasoko duelako azkenean eta bere baitan gorde. Denborarekin imajina horren sentsazioa geratuko zaio, idazlea ongi transmititzera iristen bada bederen.

Hari bihurri honi segituz ausartuko nintzateke esatera imajina baten desarroiloa dela ipuina eta imajina bat eta bakarrarena normalean, horrek

eskatzen duen kondentsazio eta estilizazio alderdiak oso kontutuan edukiz. Haria, garbia izan behar du. Ezin da beste imajinekin gehiegi nahastu, izatez gerotan beste batekin polarizazio efektua iritsi ahal izateko. Ipuina lauso gera daiteke, imajina bera hala delako, ez da horretan galbiderik, desenfokatu ordea sekulan ez, superponitu egin direlako imajinak.

Nobelan ideia bat baino gehiago, imajina bat baino gehiago ageri dira, gurutzatu egiten dira, haria abandona daiteke puskatean beste inon aritzeko. Alderdi eta ikuspegi askotatik ikusia izan daiteke. Azken boladan aipatu den polifonia bat ematen da nobelan.

Nobela ibaia da.

Frantsesek ibaiari deitzen dioten bezala *fleuve*, ez *rivière*. Guk agian galduta dugun diferentzia hori sumatzen dut. Ibaia, ez erreka. Ibaia, *fleuve* hori pisua da, urak mantsoago doaz itsasoaldera eta ibai adarrak ditu, eta meandroak dibujatzen ditu bere ubidean, eta baratzetan sartzen da erregadiatzeko, atzera berriz ateraz ubide nagusia hartzeko. Ipuina berriz erreka da, mendi xirripa, azkar kiribilkolika datorrena mendian behera, ez da erreka bazterretan barneratzen, zuzen doa bere azken helbururako bidean.

Quirogak, gezi batekin konparatzen du ipuina.

Oso konparazio egokia iruditzen zait. Arkutik ateratzen da abantara batean eta ez du onik harik eta blankoa iritsi arte. Eta blankoa hamarrean dago, ez du onartzen bostekorik, hain gutxi hirukorik eta abar. Eta airean barrena doanean, ez zaio gezi horri hegaztirik gainean pausatuko. Ez horratik.

Ipuinean frenatzen jakin beharra dago. Autozensuratzen jakin beharra dagoen bezala.



Ez plano ideologikoan, horrek ez nau orain kezkatzen, plano narratiboan baino. Lortu nahi den xedena-ratiboaren hotsera egon behar dute narrazioaren elementu guztiek, efektuak eta helburuak ongi josiak izateko. Lortu nahi den efektua urtu eta barrea daiteke hitz bat bestearen atzean neurririk gabe jarri eta ipuinlaria desbokatzen bada.

Ipuinak, sujerentzia narratiboa den aldetik, kontinentzia eskatzen du, anbiguitate puntu bat, ezkututzen dena esplizitatzen dena bezain inportantea baita.

Tradizioaren erabilpenaz

Beste edozein jenero edo disziplinetan bezala euskal ipuingintzan ere, derrigorrezkoa ikusten dut aurrerago egin den apurraren berri zuzena edukitzea; eta bertan blai egitea berriz, nahitaezkoa ikusten dut. Aurrekoek zeukaten kontatzeko modua errekuferatu behar dugu. Ez hasiera batean iduri dezaken bezala gai erruraletarako bakarrik, baina beste ezelango giro, errejistro eta diskurtsoetarako ere.

Bazuten gure aurrekoek iturri bat eta iturri horretako urak galdu ditugu antza. Diskurtsuaren ubidea errekuferatu behar dugu, bertako teknikak ikasi eta erabili. Ildo horretan esan behar dut justiziako aitortza moduan *Auspoa* bilduma dela horretarako ezin itzurizko erreferentzia, Barandiaranek eta Azkuek jaso zutenarekin batera. Hor dago arestian aipatu dudana iturri hori. Hor eta klasiko adjetibo ponposoarekin ezagutzen ditugun idazleetan. Pena da gainera inork gure artean ez duela Azkue eta Barandiaranek jasotako altxorretik abiatuta, lan literario egin. Beste zenbait herritan Erromantizismo garaian egin zen bezala.

Ipuinaren sorrera, jenero bezala, azken-azkenean ahozko kontaeran bait dago.


García Márquezek kontatzen du *Cien Años de Soledad* nobelaren hasiera autopista batean oporretara zihoala etorri zitzaiola, eta bertan buelta eman eta etxera itzuli zela emaztea eta umeak oporrik gabe utziz, zer eta aurkitu zuelako zein zen aspaldian irakiten zebilkien bere nobela horren tonoa: Amonak kontatzen zizkion ipuinetan bilatu behar zuen tonu hori.

Jakina, *Auspoa* berriz arakatzek ez du esan nahi *Auspoa* berri bat egin behar dugunik. Esan nahi dut bakar-bakarrik baliabide ezezaguna dugula liburu horietan almatzen, eta bertan daukagula nahi izanez gero, euskaldunok mendez-mende erabili dugun narratzeko modu ahozkoaren trebeziaren berri. Gero horrekin nahi duguna egingo dugu. Apurto egingo dugu jostailu zaharren gisara, beste errejistro batzurekin nahastuko dugu hizkuntza literarioaren hobe beharrez, baina nahitaezkoa dugu gure luma ur horietan beratzen uztea.

Ez genuke ahaztu behar ipuinaren sorreran ahozko tradizioa dagoela presente beti. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* da seguruenik orain arte esan dudaren eta aurrerantzean esan nahi dudaren paradigma. Ulertezina bailitzateke *Laura Sligoeta Hans Menscher* bezalako ipuinak ahozko tradizioari gabe. Eta ez dira bi ipuinak batera erruralak, ez horratik. Baina liburu horretan berean agertzen da bestelako tradizioari ere. *Camilo Lizardi* eta *Ondo plagiatzeko metodoaren azalpen laburra* esaterako.

Beste iturri hori, euskal klasikoena dugu.

Hemeretzigarren mendean ipuinak baino gehiago modan izan zen elezaharrak egitea eta orduko aldizkarietan aurkitzen ditugu ugari (Euskal Esnalea, Euskal Erria...). Hor ditugu Gregorio Arrue, Arturo Campión, Carmelo Echegaray... Erderaz Trueba, Araquistain eta



konpaniak egiten zutena euskaraz egin nahian. Beste batzuk Manterola eta Arzakek zuzendu zuten aldizkari donostiarraren inguruan irri ipuin laburra, izkirimiria, landu zuten: Vitoriano Iraola, Pepe Artola, Marzelino Soroa, Toribio Alzaga (A. Darra), Urruzuno... Zirkulo horretatik kanpo, baina irri ipuinaren alorrean: Kirikiño.

Baina normalean ipuinlaritzat ez ditugun idazle klasikoak badira, ipuin laburrak kontatzen dituztenak. Normalean ahozko eragin handiarekin, beti moral kristaua xede nagusitzat hartua eta doktrina itsaso batean irla bakartien modura. Ez dira eskuarki ipuinegileak, horretarako sortzaile izatea ezartzen badugu baldintza ezinbestekoa; baina badira han eta hemen aditu edo irakurritako ipuinen kontalari trebe. Zenbaitetan Bibliatik hartuko dituzte ipuin horiek, bestetan, saindu baten bizitzatik, historia zaharretik bestetuk... Baina oso aprobetxagarriak denak segurasko edozein idazlerentzat.

Jende xehearentzat bizi-etsenplu onak ematen dituzte. Imitatzeko ala aldiz arbuizatzeko postura moralak, xede erlijiosoz eginak beti, guri ordea oso ongi datozkigunak haien narratzeko senaz jabetzeko.

Sarri askotan autozensuratu beharra ere nabari zaie, doktrinari lotu behararen kariaz. Ez ziren alferrik, Trento garaia horren urruti, eta estu lotu beharra zegoen xede ebanjelizatzaileari. Narratzeko modu eskematikoa azaltzen dute hori dela eta. Estilizatua alabarrez, narrazioaren hezurdura huts inoiz. Autore hauen artean Pedro Axular daukagu, eta Juan de Tartas berarekin batera garaikidea. Juan Bautista Aguirre Asteasukoa da honetan exenplu argia XIX. mendearen lehen erdian. Autore hauen kasuan, ipuinen kontraera sistematikoa da, zeharozkoa.

Aguirrek ipuia hitza bera erabiltzen du bere

istorioak izendatzeko, beste adiera batez ere erabiltzen badu hitz berori: gezurraren eta inbentzioaren sinonimotzat. Ikus ditzagun adibide batzuk esaten ari garenaren adierazgarri:

Aguirre Asteasukoa lehenik:

**MYDASEK ASTA
BELARRIAK DITU**

Ez da gatz gutxiagoko ipuia Mydas Erregearen bizargillearekin gertatua.

Mydasek omen zituan belarri txit andiak, baña txit poliki illearekin estaltzen bide zituan, eta gauz onen berririk etzuan iñork.

Bizargilleak ekusi ziozkan bizarra kentzeko denboran.

Oartu zan Errege eta eriotzaren pena ipiñi zion, iñori esaten bazion belarrien kontua.

Irten zan Barbero edo bizargillea Erregeren etxetik. Gogoratzen zitzaion belarrien kontua, eta ler egiteko zorian zebillen esan naiez.

Baña eriotzaren penak izutzen zuan.

Ainbesteraño atzenean estutu zuan esan nai onek, non ler egingo ezpazuan, irten zan erritik kanpora eta soro batean egin zuan zulo andi bat, sartu zuan an burua eta aspertu zan artean aritu zan esaten:

—Mydasek asta belarriak ditu, Mydasek asta belarriak ditu!

Esatez aunatu zanean, estali zuan zuloa.

Baña zer gertatu zan?

Jaio ziran, dioenez, kañaberak eta aizeak batetik bestera zerabiltzanean, otsegiten zuen Barberoak lurpean estalirik utzi zuan berria:

—Mydasek asta belarriak ditu, Mydasek asta belarriak ditu!

Era onetan lurpean ezkutatu zan berria barreatu zan alde guzietan. Eta ona zer gertatzen dan isilik idukitzeko itzaren azpian



esan oi diran gauzakin. (Eracusaldiac, II, 228.or)

Edo Axularren beste hau:

**SESORTRIS EJIPTOKO
ERREGEAREN EMAZTEA**

Komunzki iende aberatsak ian-edanean ieri dabiltzanak, erortzenago dira haragiaren bekhatutan, probe gosez direnak baiño.

Hala frogatu zuen Sesostris

Ejiptoko erregeak.

Errege hura eritu zen eta itsutu eritasun hartarik (Herodot. lib. 2).. Eta berehala erresumak sazerdote, midiku eta gaiñerako hartako ziren guztiek konsulta eginik, erran zioten: bere senharraz bertzerekin egitekorik izanetzuen emazte baten gernuaz eta ur-isuriaz garbitu behar zituela bere begiak, eta halatan berehala argituko eta sendatuko zeitza.

Erregek haur aditu zuenean, sendatutzat zedukan bere burua, zeren uste zuen ezen mundu guztia prestu zela.

Eta hasi zen berehala ordenatu zeikan erremedioz usatzen.

Eta lehenbizikorik, segur baiño segurago, hartu zuen erreginaren urisuria, bere emaztearena, eta hartaz midikuek ordenatu zioten bezala, busti zituen begiak, eta gantzutu. Baiña alferrik, lehen bezain itsu gelditu zen, zeren erreginak bere senharraz bertzerik ere dastatu baitzuen.

Erregek xoil miretsi zuen hunetzaz, zeren etzuen uste ezen erreginak halako iokorik iokatu zukeiela. Erreginaz etsitu zuenean, hasi zen berriz bertze emazte prinzipal eta aberats batzuetarik foroguren egiten, ur-isuri ekhartzen, eta senda ahal zitekeientz enseiatzen. Baiña etzioten hek ere senti arazitzen, eta ez onik egiten. Zeren guztiak ziren berdin prestu, guztiak ziren bertzerekin kutsatuak.

Orduan erregek, hurran etsitua zebillala, egin zuen inkontru baratzezain probe baten emaztearekin, eta haren ur-isuriaraz begiak ukitu zituen bezain fite, argitu zen, eta sendatu zenean, hartu zuen emazte probe hura, egin zuen bere emazte, egin zuen Egiptoko erregina, eta gero bertze guztiak, gaixto frogatu zituenak, erregina bera barrenean zela, bizirik erra arazi zituen. (Guero, 409.or)

Edo Tartasena:

ESPAÑOLA ETA HORA

Egun batez Español bat bere bidian zoala ediren zian hor bat borta batetan, eta horak ussiki zian Española igaraitian zankotik, horaren kontre aski onsa deffendiatu faltaz. Bertze egun batez Españolak hor hura bera ediren zian borta hartan berian lo zantzala eta ezpata baitzian bere saihetxian, idokirik eta buluzirik bere magiñatik, eta bere furrebotik, hora hizian, ezpata kolpu bat emanik, eta gero ikhussi zinian hora hilik, edo hilzen, erran zian horari, bere lengüajian, españoléz:

—Inimigos tienez, é dormés.

Erran nahi baita gure lengüajian euskaraz, etsayak ukhen eta lo egiten duk.

Arrazoin zian Españolak hala erraitera horari, zeren etsayak dutianak, ezpaitu behar lo egin, baina bai egon iratzarri, zoin aldetik jinen den egunaz edo gauaz, haren athakatzer. (Onsa hilceco bidia, 81.or.)

Euskal Herrian ipuinak beti izan du haur literaturarekin harreman estua. Ipuingintza modernoa eta helduentzat bene-benetan Anjel Lertxundiren *Hunik Arrats Artean* ipuin bildumarekin hasten da (Lur-1970). Uler bedi afirmazio honetan, ez ipuin solteak, jeneralean, aldizkarietan erdi galduak edota liburu



kolektiboetan agertu direnak (Elerti 69 eta Literatura 72 kasu), ipuin liburuez ari naiz. Ipuina formula autonomo eta osotasun bete baten asmoz egina. Ordurarte saio batzuk aipatuko nituzke, hirurogeigarren hamar-kadan egin zirenak.

Lehena, Martin Ugaldere *Iltzalleak* (1961) izango litzateke, Venezuelen argitaratua eta horregatik eragin murrizta izan

zuen Euskal Herrian, baina lehen aldiz gai jakin bat hartuta burutua eta batasun literario handi eta duin batekin.

Eragin handirik ere ezin izan Jean Etchepare Landerretche gaztearen *Mendekoste gereziak eta beste* (1963) bildumak; 24 urterekin hil ondoren, Piarres Charritonek zuzenduriko talde batek bildu testu zenbaitekin (1) egindako liburuttoa. Izan ere ezin arrakastarik izan: Baionan argitaratua (Goiztiri), Behenafarreraz, konpromezu gabeko literatura... Ez zen sasoi ona horretarako. Testuak, *Gazte, Pan-pin, Gure Herria* eta *Herria* aldizkarietan agertu ziren 1957 eta 1961 urte tarte hortan.

Ondoren aipatu gabe ezin utzi Gabriel Arestiren ipuinak, hamarkada hartan publikatu zituenak *Eganen* (2) eta, kasu honetan ere adierazgarri, hil ondoren Ibon Sarasola eta Koldo Mitxelenak argitaratu zizkietenak denak elkarrekin (1979) Aurrezki Kutxa Probintzialaren laguntzaz.

Hil ondoko arazo bera errepikatu egingo da Jon Miranderekin ere, honek gehiago itxaron behar izan zuen, halere, 1984. urterarte ez bait ziren liburu batean bildu eta argitaratu era lojiko batean, beste lanetatik aparte, Paristarraren ipuin itzuli eta bere baitarik sortuak —batzuk pieza majistralak bide batez esanda—. Patri Urkizuri zor zaio lan hori. (Gauaz parke batean —Ipuin izugarriak—, Elkar-1984) (3).

Gainerakoan, hor daude Nemesio Etxanizen

saio batzuk (Grill-Gibert imitatu nahian, ez da txantxa gero!) Jautarkol lehenago, baina bide tradizionaleratik...

Ipuin bildumaren bisioaz.

Ipuin antologiak egiten direnean, idazle baten obra osoa hartuta, batzutan ez da kontutan hartzen idazlearen nahia eta borondatea, ipuin konkretu batzuk bata bestearen ondoan jarri zituelako. Zenbaitetan ez du inportantzia handiegirik, sarri inportantzia handia du.

Badugu joera bat irakurleok, eta ez daukat barruan sartzeko batere problemarik, ipuin liburuak zabaltzeko ulean: Aurkibidea hartu eta pajina- zioari erreparatu egiten diogu. Joño, bazkalaurretik ipuintxo bat... hauxe, hamar orrialde besterik ez du-ta hartzen. Iruditzen zait —badakit seguru hau esateagatik zazpiki hotsegingo didala irakurleren batek— iruditzen zait diot, ipuin liburua hasieratik hasi behar dela, eta bukaeran aurkitu behar duela amaiera.

Hauxe ari da bada Amerika deskubritzen bostehun urte ondoren! esango du batek baino gehiagok, zazpikia izateaz gainera, kaka esplikatzailerik. Nire kasuaz ari naiz eta ezagutzen ditut kasu gehiago. Ez dira alperrik orden batean ezarriak ipuinak bilduma batean. Konszientea beharko luke izan ipuinlariak hasieran jartzen duen ipuina izango dela irakurlearentzat lehen auzunea hiri berri baten ezagutzan, eta lehen auzune horrek mediatizatuko duela hiriko bisita osoa. Zirkuitoa idazleak jarri behar dio irakurleari eta hortik aurrera, irakurleak ikusiko du.

Konsiderazio guzti hauek egin badituzte izan da ikusteko zenbateko garrantzia duen niretzat ipuin bildumak.

Irakurri ditudan artean hiru bilduma moeta aurkitu ditut:

Loturarik gabeko ipuinak biltzen dituen da



lehen. Ipuinak bata bestearen ondoan metatzen dira batere loturarik gabe. Bigarren klasea, gaia edo beste elementu bat kontutan hartuta nolabaiteko batasunaren inguruan dabilzatenak. Gure literaturan adibide bat jartzeagatik Martin Ugalderekin *Mantal Urdina*, zahartzaroaren inguruan apailaturikoa. Eta hirugarren tipoa azkenik, ipuinen tartean

beste istorio bat asmatzen diguna, ezaguna da *Decameronen* kasoa, edo *Obabakoak* egurean, eta esenplu berriago bat Buffalinoren *Las mentiras de la noche* esaterako.

Nire apostua azken bien aldekoa da. Ipuin bildumaren osotasunaren aldekoa. Batasuna behar dute ipuinek. Ipuin batek bestearen ondoan irabazi egin behar du. Konplementarioak behar dute izan, katea eta katanbegiaren erlazioa behar dute, ipuina eta ipuin bildumaren artean. Azkenik irakurtzez bukatuta, nobelak lortzen duen eta horrenbeste aipatzen den polifonia lortu behar du. Agian anbiguitate gehiagorekin ipuin liburuen kasuan, kaledoskopioaren antzera, puzzlearen haritik.

Oker dabil batasuna esan eta gai beraren inguruko ipuinak bildu behar direla pentsatzen duenak. Hori aukera bat da bai, baina ez bakarrik, batasuna, giroak eman dezake, hizkerak, formak, kontatzeko erak... Gianni Celatti italiarraren *Narratori delle pianure* hartzen badugu, erraz ikusiko dugu esaterako, lurlau horietako narratzaileek osatzen dituztela istorioak, hizkera bat, tajukera bat, eta ibai bat erdian dabilena bere bi ezpondekin. Capoteren ipuinak hartzen baditugu zer esanik ez dago, ipuin diferenteak badira ere, giro bat ageri dela ipuinetan, eta umeak ugari. Quirogarenean bezala Rulforekin paisajeak geografikak eta hizkerak lotzen ditu. Antonio Tabucchiarenean berriz lotura ez da horren nabarmena, libreagoa da, bai ordea barru-

barruan estua. Andamioak bazituen, sendo askoak. Ez zaizkio ikusten baina.

Beharbada nire ipuin bildumaren konzepzio guzti hau gertuago dago poema bildumatik nobelatik edo beste zeinnahi jenerotik baino. Intentzio batasuna lortu behar delako liburuan.

Bukatzeko esan, ipuina nobelaren ondoan jenero minortzat daukatenentzat, nire konzepziotik ipuina bildumaren barruan, nobela bera baino jenero aberatsagoa eta osoagoa dugula, zeren bi paper betetzen dituen, bata bilduma osobaten atal moduan, bestea unibertso partikular gisara konfiguratuta.

Inazio Mujika Iraola



SAIO - ITZULPENA

1



JEAN BAPTISTE CHAHO

Une existence de Barde
(Revue de Voyans. Paris, 1838)

JEAN PIERRE CHAHO

Barde baten itzaitia
(Pierre de Souhy-ren eskuizkribua)

The greatest Scandal
in Christendom
by Arthur Keester

PATRI URKIZU

Pierre de SOUHY mauletarri esker eskuratu abal izan dugu Etxahun Barkoxekoaren bizitzaz Jean Baptiste Chabok frantsesez idatzi eta bere anaia Jean-Pierrek xubererara itzuli zuen saioa. Oso gaiztoa dela bere euskara zioen Jean Haristchelbarrek bere testian; balere, inedito honen erreskate lanak merezi zuelakoan gaude, oraindik bizirik zela koplari famatu haren bizitzaz eta bertsoez idatzitako lehen saioa baita, dudarik gabe.

*Jean Baptiste Chaho:
Barde baten izaitia¹*

Ezta batere poet bat, zuinen handitarzunak mundia bethe din bat proposatzen dudana aipatzera irakurtzaliari obraxe llabur huntan. Ezta ere genia² ezaguturik eztien hetarik bat, Gilbert-en eta Chatterton-en talentu handiez geroztik egun oroz hiltzen dien martir minbera hetarik bat.

Nuri ere kontsekraturik dien lina³ hoiek da Mendietako kantore huntzale praube bat ez Tina deus komunik ez suertien naturan, haren inspirazioren sursak⁴, ez eta ere haren kantore forma denbora llaburretan konposatu hoieki, zuintarik bers erdi pasable zunbait akordatu dialakoz pausatzen beitira sozietatiaren biktimetan guti axol dien xitxatera⁵ inutil hoién haztiz eta her imajina ezartera deitzen beitie gerua presenteko denboraren faltan.



Artikulu hunen heros inprobisatur modestak ezpadu entzun bere izenaren herotsa⁶ olhen alde haraintila⁷, nun haren kantiaren ezitarzuna entzunarazi izan beita; ausart niz nundi nahi erraitera *poète*⁸ guti dela, zuinen karakter orijinal eta abenturek merexi beitie haboro interesatzia, istudiatzera xerkatzen⁹ dienak oro gizunaren inspirazioren obretan, biziaren *phenomène*¹⁰ subertiak, ala xantrik (destin sozialen araua) kharreia¹¹ dezan hirietako bestimenta brilanta edo alhorretako abitu sinplia.

Idereiten dira herri muntainen zunbaitetan bena partikularzki Pyrenéesetako phartian, uskaldunehabitatia, *artiste populaire* klasa bat nun desinatzen beitie heben kantazalen izenaren pian, han berset egilen pian eta jeneralki *Barde* izen orijinalaren pian.

OHARRAK

1 Aldaera: kantore huntzale baten izatia
2 jenio
3 lerro
4 iturriak

5 txitxarra
6 hotsa
7 haruntzago
8 sic

9 bilatzen
10 sic
11 eraman

Denbora zaharretako lehen poetistek bezala montainako Bardiak kunserbatzen du animatzeko pribilegio preziusa haren bots propiaren akzentez, imajina eta figuraz, zuintaz hazten beitu bere pensamentia. Poetari haur, zibilizazio handikua, artia fixatzeko hitz izkiribatiaz bere hunaren¹² prinzipiuak. Bardari, naturaren semia, buhureki¹³ exprimatze¹⁴ dohaina majika segur batez gizunak esprabaten¹⁵ ahal dina.

Poetak eztu sekula bere solituda hartzen bere spiritiaren lainhuz leherpaturik baizik edo hurrunezko imajinazionen plazadore.

Bardak, harek kantatzen du zelu¹⁶ sereno baten pian, batin bilkhura auditer¹⁷ alegera baten erdian, gidatzen beitu bere imajinazio beruaren suertez, bestin okupatuko gutinak¹⁸ bezala natura salbaje baten harmonien erdian, bere himna solitariak dominaturik.

Lehenak kuantzen bere ideiak lanpa¹⁹ baten argin, bedera-bedera, abariziusak bere pheseta urhik bezala. Bigerrenak urthukiten tu aizer orori bere tresor hunak ekhiaren argin; hitz batetan sozietateko bi personifikazio hoietan den diferentzia da, poetak phensatzen eta amets egiten dila, bardak eztila senditzen baizik, eta hortan barda da esenzielki arau-gizuna, harmonia-gizuna, zeren bere spiritian fantuma²⁰ inspatur ezar plazan, bere inspirazioiak eta botza jezarten beitu Jinkuari berari, mundiak erakutsirik.

Bada bi forma hoién artin, bata ideiatu, bestia positibo, imitazioia edo gezurra egiati separatzen din distantzia oro, naturaren artia.



Bardiak oro poeta dira, zunbat guti metra fabrikant eder barda dira bere aldin! Eta bardak jokatzen din roliak zerklo hertsu, nun phesatzen beita bere izarra, haren misionia limitaturik izateko ezta gutiago util, gutiago digno elojioz eta enkorajamentuz²¹. Erranen duta efeitian²²?

Barda egoiten den gunetan da orano errepresentant bakoitza²³, arte popularila helturik uste izan den bakoitza; arte hartarik, zuintarik realizazioiak behar beitu izan gizunen oren progresaren buta²⁴ eta thermania²⁵. Ruinaren botzak buhatzen²⁶ dilarik, tenpliaren alde pin deitzen badu populua sakiala edo erhautzila eta ezpadu erakusten punizioe baizik lurrin eta mehatxu zelin, bardaren botzak gazte eta fresk urthe oroz arra berritzen den natura bezala galthatzen du *a countrari*²⁷, lurrezko hunila eta alageratarzunila, eta behin beno haborotan aphezen irurziriak khetan hil ziren kantore egile nunbre²⁸ baten errier²⁹.

Progrès mobilier bakoitza buru emaitia diana, aphezian sarthurik dien zentzu eta kalkul indarren oren kuntre, lurriko barda da ignorante eta jakintsia.

Uhure arren mila aldiz kantazale inkulte eta salbajari, zuinek beste gidarik gabe bere gizun intelijent instinkta baizik, argiarazten beitu haren anaien erdian, flanbeau³⁰ sakratutik xinkha³¹ zunbait, zuintaz llaburtarzununa markaturen beitu spirituko lottintako³² dilibrantzako³³ eguna.

Pyrenéek formatzen dien aphaltziarekin ekhi sargugiako³⁴ itxasuen gaintin, kartielik³⁵ alagerenatarik batetan, sorthu zen orai dila

12 muin
13 zori onez
14 adierazi
15 sentitu
16 zeru
17 entzule

18 gaituenak
19 lanpara
20 fantasma, mamu
21 animo
22 benetan
23 bakarra

24 helburua
25 bukaera
26 haizatu
27 alderantziz
28 numero, talde
29 irriel

30 zuzi
31 txinparta
32 parte
33 askatasunezko
34 sarrera
35 auzo, aran

zunbait urthe gizun bat markaturik martiro³⁶ triste baten harenen zortin izatera..

Muntainer³⁷ aisatu baten, nahi bada ez aberatsen, lehen sorthia zen, eta titre huntzaz hartan gainen phausatu behar zien naturalki haren familiaren eta jaben esperantxak.

Bena haur horrek naturaz osagarri flaku, kolorik txar eta mehe etzin kausatu gisala haren amari haur minetarik landan ordenariz jarraitzen diren alageratarzun biziak.

Bere biziak bersez egin din errelazionin³⁸ urthetik urthila tribulazionen semia plainu³⁹ da kharazki⁴⁰, nulako huguntarzun⁴¹ hainatzia- rekin⁴² tratatzen zin sabelin kharreiatu⁴³ zianak, aldiz bere anaie arrebak preferantzaz karesatzen⁴⁴ zutialarik. Erakasteko hitz batetan, harek ezarten zin role⁴⁵ mesperetxatu eta malerusin,⁴⁶ jakin arazten deiku klarki nuiz ete ere familiako ogia erreazten beitzin, haur bakotxa zela, zuini ezpeitzon sekula emaiten usanzazko ophila kasu huntan.

Mithilek⁴⁷ berek bazien nahi izan zien bezain beste haren joiteko permisionia; ordian ,erraiten deiku, sarthu zen haina haren bihotzian.

Thurmentaturik unguraturik zen orotaz, berartan⁴⁸ arraplegatu zen, berarthan lili bat zerratzen den bezala dolore baten efeitaz, eta haurra senditu zen ikhasteko desir biolent batez thurmentaturik.

Haren herriko errejentak erakasten ahal zeion gaiza gutia, ikhasi zin eta arresta⁴⁹ urthe batez.



Bederatzu urthetan othoitu zutin bere aita eta ama eskoletarat igortez, bena hoiek despendioa kalkula eta guti disposaturik haren faboretan defendatu zoen⁵⁰ phensatzia. Phensatzea, imposible zen⁵¹.

Haurrak nigarregin zin ikhustez bere anaia hura beno errejent hoben pin.

Libru zunbaiten laguntguaz, eta Jinkuk daki zuin libru prokuratzen ahal zutin, hartu zin difikultater orori gainiaren hartzeko deliberua⁵².

Egunaz trabailatzen zen alhorretan eta gaiaz jaten zutin begi gose libatez haren inprimat phorrokatia, khandera errezina baten argi ulhunin.

Ikhasi zin halaxe frantzes amiñi bat, bena aharra⁵³ kontinuelak, zuin bere aplikazione ezinago handia beitzen bere askazien⁵⁴ pharteti sujeta⁵⁵, obligatu zien haren projeter⁵⁶ erre- nonziatzera, hurrunago juitera.

Mithil brutal bat, deitzen din bezala, kargaturik izan zen haren surbeilatza⁵⁷ eta largatza⁵⁸ korpitzeko lanila⁵⁹, haren membre flakia eta mehiak akhitarzunak xahu phorrokatuko beitzutin.

Enfin amoroskeria jin zen erortera zuen arima haren barna, zeluko arreia⁶⁰ baten sarreraztera, eta plegatzen zenak karga phisu libaten pin, arraaltxatu zin fierki bere buria, lanthare bat beroti landan ebri⁶¹ fresk eta ezti batetan arra jeikhitzen⁶² den bezala.

Xori dibinuak, presuner poitrina⁶³ humano

36 aureola
37 menditar
38 ald: Bertsez egin din
relazionin bere bizia
39 kexu
40 garrazki
41 gorroto
42 gorroto

43 ekarri
44 bailakutzen
45 lan
46 zorigaiztoko
47 morroiek-neskameek
48 en lui-même
49 de reste
50 debekatu zioten

51 ald: izan zen
52 erabakia
53 haserre
54 guraso
55 gaia
56 egitasmoei
57 zaintza
58 haustera

59 laneetara
60 arraio
61 euri
62 berzuzentzen
63 bular

hartan, eraiki zin bere ramaje ederra, eta kanpainak mututu zien haren behatzeko.

Hi hundin⁶⁴ lehenik kantatu, birjina gazte eta xarmenta, gordatzen behintzan hire modestiaren boilaren⁶⁵ gibelian, fruta huntia haren ostopetan bezala, hik haren khantu alageretan, deitzen behin bedera-bedera, goizankho⁶⁶ epher eijerra hedatzen zina haren lephua liliatar, sorhoko lili parfumatia, ekhiaren⁶⁷ figuraren arresa, ilhe elhurrezko arresa⁶⁸, gaiazko zelu serenun argitzen din izar solitaria!

Bena maleruski, untsa-maithatia, haren kantorezko inspirazionen sujeta, etzen edertarzunak beste lekhetan bezala urhe produisiarazten den lekhu batetako. Bardaren antusiasma etzon zerbutxatu bere aitaren haina⁶⁹ terribliaren atiratzeko⁷⁰ baizik, orano *tout a feitoki*⁷¹ sofritu etzin bakotxa.

Praubeziatzko aizo familia batetako neskatila gazte bat maithatu zin. Esperantxarrik gabe bakhowitzik; eta bakiaren idereitia⁷² desiratzen beitzin, obligaturik izan zen haitatu zaion espusaren utsiala⁷³ azeptatza.

Heben hasi zen disgraziatzko haurarentako, nigarrezko denbora bat, zuin bi phartetan izan beitzen, presontegietako bizitzia, eta desertietako abenturaren izatia.

Haren proses zibil eta kriminelen detail sobera luzian sarthu gabe, sarthu gabetarik haren familiarekilanko nahaspuiletan baratuko niz bere bizi orotan emaztek erakasten infidelitatearen *feit*⁷⁴ printzipalin.



Eztut disimulatzen batere gazizki jin nizala morala serius baten kestionearen tratatzera; aragizko obra⁷⁵, sozietate baten erdin libratzen beitu gai oroz ikhusliarren karkasetara triate baten tauletan gainen, zuinek destruisitzen beitu familiaren saintutzuna, eta familia indibidueletarik familia jeneralila estekatzen dien jaben desorganizacionea akonplitua.

Feitian⁷⁶ edok⁷⁷ ezazie gizonari bere askar-kiket⁷⁸ etxekitzen tin kondizioniak, haren uhuria, haren dreta⁷⁹ bere zitoien⁸⁰ laguneneztunian, bere etxetako alageratarzuna eta bakia; gizon hori zikin eta ez axol⁸¹ bada, haren erri inbixiletarik bat ukhenen duzie, irri bat zuinek bihotz min emaiten beitu, eta *à kuntrari*⁸² gizon hori errealki gizon bada, *sustout*⁸³ balin badu karakter borthitz bat eta pasionatu bat, juntatzen dizu kolera heraki⁸⁴ bat, gizon hori ezta ordin bere fortuna eta bizia beno hanitkez preziusago den integritatiari khuntu emaiteko inkapable den sozietate batetako legeti kanpo baizik ezarriko ahal.

Ukhenen duzu ordin zure legiaren arabera edo asasin bat juzez defendaturik delitaren zirkonstanzian gainen, edo bestila suposaturik espus mesperetxatia eztela jinen ofensatu undun denbora zunbaiten burin baizik, heltu den bezala gure bardiari, epher bat obligaturik justizia bati eskapatzeko desertutarat ihesi egitera eta han bizi solitario baten eramaitera.

Hala zen bizia iskiribatzen dudanaren xortia, eta heben halere, desorganizacione sozialezko konsekuenziak eramaiten din aragizko obra

64 hinduen
65 velo (gazt.)
66 goizeko
67 eguzkiaren
68 ardi, nes (gazt.)
69 gorrotoa

70 bereganatzeko
71 zeharo
72 aurkitzea
73 itsuki
74 ekintza
75 adulterioa

76 benetan
77 ebak
78 patria
79 eskubidea
80 hirtar
81 ald: auher bada

82 a contrario, aldeantziz
83 batez ere
84 iraki

kharazki da azken *degrès-in*⁸⁵.

Georges Sandek⁸⁶, egia da, eluke phenarik eni probatzez aragizko obra eztela batere nik errepresentatzen dudan bezain mustro afrus⁸⁷ bat. Bena zara- boila⁸⁸ gabezko sophiste horri erranen dot eni erakastez Pyrenées-etako Barde gaxo horrek zer phensatu behar lukin plazaturik izan baledi gai⁸⁹ batez *Variationezko* eta *Vaudevillez-ko*⁹⁰ triatian.

Erranen dot berfeit sozialak⁹¹ kanbiaturik dien erhokeria gaiztuetera, bufunerietara, argizko⁹² hiriaren erdin traduzitzen⁹³ diela bestetan odol ixurtez, zuintzaz ihurk ere ezpeitu erri egiteko inbeiarik⁹⁴.

Heben ere hanitzek egia erraitera, eztu erri egiten ezpain phuntez baizik.

Oposaturen deitade gaizen estatia, usaje errezebitia sozietatia hala eginik da, erranen deitade, prezizki hortzaz niz plainitzen, ezi eniz Jinkoti desesperatzen dien gizon hetarik bat, eta bardin ere fede badut hartan, humanitatiaren salbamentian. Arte hortan deus ezteikio zerbutxa eskusatako progresez mintzo den sophistari aurdhikitzen tilarik⁹⁵ hitz phozuatu⁹⁶ libatez geruaren aziak.

Beha zazie lehen bere denborako bizitze tristian gainen Bardiak konposatu din kantore eder sinalatu duguna.

Arrazunamentuk orok beno hobeki erakatsiko deitu zer den permis sinhestia gaiza saindu hoietan orotan gainen, zuintzaz gure denborako hainbeste iskiribañok egiten beitie egun merkhatu bat hain hunik⁹⁷.

ETXEHUNEN KHANTIAK

- I Mundin hanitz malerus arauz bazirie,
Bena ez ni bezainik ihur beharrere,
Ene emaztiaren nahiz izan jabe
Gaxua jarririk niz ihun lurrik gabe.
- II Desertuko ihizik gizunen beldurrez,
Prekuzionatzen dira gorde beharrez,
Hurak nik imitatzen gaxua nigarrez,
Ere bizi tristiren kun(tse)rbi beharrez.
- III Hamar urthe huntan bizi niz esklabo
Erdiak gaztelian, bestiak gaizkigo,
Jeloskeria baten sujetetik oro,
Nahigabez izan adarren sorhaio.
- IV Hogeietabi urthik konplitu egunin
Hartu nin emaztia, ene sori gaitzin,
Erraiten ahal beitut izan zaitala jin,
Ene urkha bulhurra beraren altzopin.
- V Ezagutu ninian nur nian erosi,
Nahi ukhen nin bortxaz korrejierazi,
Bere jabe puisantak hari althe jalkhi,
Eta ni inozenta gaztelin etxeki.
- VI Ene absenziari agertu aproba,
Zuinen fidelki zian eraman denbora
Harek eni doblatu bihotzeko bihotzeko herra
Hai eta ere kausatu galtzeko malurra.
- VII Ene isterbegia bahu ene etsaia
Tturristatu gabe ene emazte flakia,
Bestek eraman du hik⁹⁸ behar kolpia,
Bena kupira diok orano hartzia.

85 graduan

86 «George SAND», Aurore Dupin, baronne Dudevant (Paris 1804-Nohaut 1876) andereen pasioen errebeindikatzailea. Lélia (1833)...

87 ikaragarri

88 prakta

89 gau

90 Variétés

91 ekintza sozial berak

92 ald: argien: Paris

93 ald: khanbi...

94 gogorik

95 dituelarik

96 pozoinatu

97 Ez du itzuli zat hau: Je regrette seulement de ne pouvoir rendre,

avec l'allure timide de la prose française, les inversions pittoresques et la concision à la fois énergique et élégante de la poésie basque. C'est au lecteur de suppléer dans son esprit, les ressources du mètre et de l'harmonie qui manquent forcément à cette traduction

approximative que j'ai pu faire: 98 orijinalaren oharren arabera *Voyages en Navarre pendant l'insurrection des Basques-en* agertzen dena *curé de Sbezala*.

- VIII Hire libertinajik eraman din finta,
Hire ganat gogatzez ene emazte flakia,
Galdu duk bi etxalte, bi gizun galant,
Bai eta ere thonatu hirur lagun xarmant.
- IX Ene lagun maitia eta flakia,
Libertin batek deian nahasi buria,
Galerazi naizu ni eta etxaltia,
Malerus errendatu oro familia.
- X Hamar urthez deitazu eman burian min
Haietarik bostez etxeki gaztelin,
Sekursik egin gabe nahiz han hil nendin,
Halako emaztia nurk sofri saietsin.
- XI Ene aita krudela, anaie desnaturatik,
Aberastu zideie ene malhurretik,
Prosesak eman eta ni kondenarazi,
Bai eta arte hortan bi etxalte ebatsi.
- XII Ene sorthe tristiri dia gizon gaztik so,
Ezkuntgei bazirie ez izan esklabo,
Emaztik ukheitekoz nik bezain khario,
Egin ziteie aphez edo jun soldado.
- XIII Musde Haritxabalet⁹⁹, jaun erretora,
Etzunin idereiten ogendun zure lloba,
Arauz sinhetsi duzu ikhus undun obra,
Jauna begira zihaur enekilan,
- XIV Besten penitentzia deitazut eragin,
Ene etsaia etxen, ni aldiz gaztelin,
Nik deus nutinen jaten, etzaten ene ohin,
Orai aldiz nabilazu gosiarekin.
- XV Adio haur maitiak, gaxo ogengabik,
Aitak eta amak triste ezarririk
Eztetzatziela jarraiki haien exenplik,
Zien prudenzietzat imita Jesus-Christ.

- XVI Barkoxeko lurretan ez xerka Etxehun,
Haren atzamailiak beitabiltza undun,
Bere kantoren huntzen ari da Igelun,
Halako olhalterik ezpeita Ziberun¹⁰⁰.

Hala zin kantatzen bere ihesian mendien gainen Pyrenées-etako bardiak, eta bildu zien artzainek bere olhetarat, beren urthe orozko stazionen, behatzen zien admirazionereki sasu¹⁰¹ ederrin haritxik gorenetik haren berset indarrez eta harmoniaz bethiak.

Hen utzultzin lur aphaltetarat etzien mankatu bardiaren konplainten¹⁰² edizionen publikatzera, zuin hedaturik izan beitzin instantin, nahi bada gutigo edo haboro desfiguraturik, bersionen segurtanxa ukhen gabez, orotan oiuhu azkar bat jeikitzen kantazale inspiratiaren faboretan, hantik fite¹⁰³ etzen haboro ihur ere han gaintiko bazterretan gloria bat egiten etzenik haren koblen gogoz ikhastez.

Entzuten zutien kantatzen mendi bizkarren gainen eta eskartaturik zien bazterrik ixilenetan.

Bardaren bizitzia hatik¹⁰⁴ izaten ahal zen bezain triste zen.

Urthe oroz behin artzainak eraitzirik bortietarik elhurren erdin bera idereiten zen etzilarik bizitzeko denbora haboruetan zain baizik.

Udan bizitzen zen basafurutaz hartzen artin arraroki hasardatzen ahal zen etxanetat eraiztera xerkatzeko ogi, artho, eta hazkurri borthixiago bat.

Ezin suporta ahalez hainbeste pribazione erresolutu zen azkenekoz arrisk orotara, bere lurrila arrajitera¹⁰⁵, eta etzin berantu justiziaz arrestaturik ikhustera.

99 Delako Sa *Voyage*...-an

100 Orjinalaren arabera bertsoen

testua egileak berak M. Agustin

Chahori oparitutik hartua da.

101 sasoi

102kexuen

103 agudo

104 halere

105 berriz etortzera

106 étouffe

107 bertute...

108 txapela

109 puroa, aratza

Bere jujetara konparitu zen eguna zen muntainer desfortuniarentako egun glorios trionphant bat. Haren erreputazione bardaskuak abanarazi zin deja hen kantila, suberte orotako kuriusak jujen kanberan ari zien zuinek lehen ikhus.

Ikhusi zien agertzen bi jendarmaren artin, taila ordenarioko gizon bat, bilhuak luze eta frisaturik montainerren mudala, gerrieren eta nublena beitzen arteko denboran, figurako aragiak mehaturik, bena begia odolez zainzturik eta brillant, gar estofatu¹⁰⁶ bat bezala, sursils¹⁰⁷ barrera beltz baten pin.

Urhats bat baizik etzin egin salan barna, nuiz eta ere esku batez edoki beitzin bere laborari buneta¹⁰⁸, eta hedatzez bestia largatu zen haren botz bizi eta purra¹⁰⁹ hain ederki, nun justiziazko salaren arauak¹¹⁰ ezpeitzien sekula entzun magnifikuagorik.


Ixiltarzun handi bat izan zen harmonia baten gisa.

Haren lehen koblak kusekraturik izan zien bere jujen salutatzez eta hen elojiaren egitez hain thermaño dignez eta berartarik¹¹¹ hain flaturrez¹¹², nula esku joiteak¹¹³ bazter orotarik phartitu izan beitzien.

Gero bere diskursa jarraiki zin haren desfortunen kuntatzez, jakin ukhen beitzutin bestitzen portrait¹¹⁴ berriz eta hanbat haboro gloriusez.

Deja irakurten zien figuretan haren kausa erdia beno haboro irabazirik zela.

Hantik fite bere justifikaziolari estekatzen zelarik zankhoz-zankho, pleteiatu zen kantatzez



haren kausaren phartiak oro, konfonditzen zutilarik jakiliak, desmaskatzen zutilarik bere etsaiak, estonatzen¹¹⁵ zutilarik batziak eta bestiak; etzen hazten bere imajinazione berua majistraten suek berek sustengatzen zien indarka nuble hortan.

Orok memento hartan mintzatzen eta khantatzen zien poetaren ahotik eta xilinxantzen

zien suberte zunbaitetan haren phensamentiaren hariari, ikhara zielarik nuiz ikhusiko zien etheiten, eta geroko instantin alageratarzunez airaturik idereitez bethi solido eta azkarki oro pilaturik eskujoite libat finik gabe eta akitazionezko¹¹⁶ oihiek jarraiki zien huilantik¹¹⁷ diskurs plainugarria eta modesta.

Hala zen harentako ordilartino jokatu zin role¹¹⁸ funestetik libratu.

Nahi dit duda gabe haren kantoren nubleziak eta inspirazionik berek ezten pur¹¹⁹ ezarri haren jujen aitzinian.

Ezta gutiago egia inozenta deithurik feit brutatela, besten gaiztokeria brutalez, behar ukhen dela finitu bizitze miserable baten doloz, krima bat ezpeitzen beria, eta obtenitu eszitatzez haren udurien konpasionia, justiziaren absoluzione beranta.

Bena absoluzione horrek, hain khario erosirik, errendatuko doia galdu dina, haren bihotzaren bakia, haren berthutezko erreputazionia menturaz? Ezi jarririk den bankek uzten die bethi orhitpen bat.. Errendatuko doia absoluzione hau, haren familiako eretajia gastaturik eta janik haren absenzian prozes ruinatu libatez? Erremediatuko dia enfin, aitag desesperazionin deitzen dira,

110 oihatzunek

111 horrexegatik

112 lausenguz

113 brabuak

114 irudi

115 harritzen

116 aldezko

117 gertutik

118 ekite

119 garbi

espresione hain egia batez, haren haurren esklabajetarzun? Ezi bardiaren ideietan, praubia ezta besterik, asto soziala baizik, esklabua.

Zer ideren¹²⁰ du arrautzultzin¹²¹ harenen ganat, arraikhustez bere etxia desertu, hainbeste urtheren sofrenxa eta pribazionen burian. Baratzen niz-lotsa¹²² nitzate denbora soberaz edukitzia luturraren¹²³ spiritia hain sujet tristian, gure sajen¹²⁴ eta lejislaturren meditazionen digno.


Nahiago dut historia jarraiki batez eman, zer ere baratzen¹²⁵ beita orano gure bardaren biziaz.

Bere herrilat arrautzulirik praube ideren zen erran dudan bezala, diharurik¹²⁶ gabe pleteiatzeko perspektibo bakoxtareki.

Konposatu zin amiablin¹²⁷ haren familiarekin, gero eskandalen trazak begien pin ukhustera degustaturik, lotsaz berak erraiten din bezala bere errelazionin, gal zedin orano, hartu zin pelegri¹²⁸ arropa, eta bere herriko jenter publiko adiuk eginez gerozti urhatsa eraman zin Errumari buruz. Urhatska¹²⁹ bere patriari hurruntziari, nigar elibat ixurten zutin bere haurren sorthien gainen.

Bisitatuz geroztik aita saintiaren hiria, Florencea errendatu¹³⁰ zen, nun bere urhatsetara utzultzeko ideia jin beitzon, eta Jerusalemara joaiteko, han komentu *vie*¹³¹ aszetiko zunbaitetan sartzeko.

*Bur*¹³² hortara efektiboki jarri zen bidian, bena paperak galdurik presuner eginik izan zen Autrixieneseta eramanik Frantziara presuntegiz presuntegi.



Kurius izan zateken eza-gutzez poetan gainen zer efeit produisitu zin zesaren eta pontifen hiriko aspektak; bena haren errelazione llaburrin kuntentatzen da errejistratziaz Erruman igaran din denbora, detailik bateretan sarthu gabe.

Zer egia erraitera signifikatzen ahal zien argi gabezko muntain batentako historiako giltza etzin ruina eta

monumentu.

Naturaren punpala kostumaturik dien gizunaren begietara eta sasuen¹³³ bariazionetara, esku murtal¹³⁴ baten *chef d'oeuwriuk*¹³⁵ elakikie eszitatzen admirazione laguntza bat baizik. Arren ere bardiak phensatu dia dudarik batere gabe gisa huntako detailek etzukiela *atrait*¹³⁶ xipiñi bat baizik haren muntainako beha-zalen¹³⁷.

Haren bidajien erremarka bakoxta aipatzera *à propos* jujatu diana argitarzunik gabe bere errelazionin erremarkable da; probatzen du populuko gizunari, obserbazione justuak bethi haboro jorik egitate biziaz eta mintzajiaz sozietatin deskubritzen dinaz, zein eta arrazu subtil libat kunparatzen beitu besten spiritiari.

Galerien¹³⁸ zubu¹³⁹ burian erraiten deku, orhit da kuntaturik hirur aldiz hoge forzat liberatu, galeretarik jiten zienak, hiruretan hoge koki¹⁴⁰ handi libertatin ezarririk, eta hori gizun unesta eramanik izaten ahal delarik zirkunstanzia krudel elibatez hen lekhiaren hartzera. Horik dia gaiza libat errepetatzen entzuten dienak etxalte gaxuen zolan¹⁴¹.

Eri eroririk Nimesen, pelegria egon zen hanitx

120 aurkituko
121 berriz itzultzean
122 bildur
123 irakurlearen
124 zuhurren
125 gelditzen

126 dirurik
127 modu onean
128 erromes
129 urrats, pausu bakoitzean
130 itzuli
131 bizitza

132 helburu
133 sasoi
134 hilkor
135 lan nausi
136 erakargarritasun
137 entzule

138 presoan
139 zubi, Anbont du pont de Barre
140 gaizto
141 ald: gaxo etxalten zola

denboraz hiri huntako hospitalin desesperatzeko estatin.

Enfin arra ikhusi¹⁴² zin Pyrenées-etako zelia eta haren sorlekhuko mendietako kukuila¹⁴³ berdik.

Bere haurrak zutin plantaren ideiak khandiarazi zen deseina¹⁴⁴ entreprenitzez fres¹⁴⁵ berrietan gainen bere Jerusalemerako bidajia, eta fixatu zen bere herrin, nun egun bizi beita trankil.

Enuke uste ahal ukheitia hobeki finitzen¹⁴⁶ eskisa¹⁴⁷ hau traduisitzez baizik azken bi ketreinak¹⁴⁸ errelazione bersezko usaje egin dudana, eta nun ikhusten beita Bardaren bizitzia urthekal errepresentaturik kobla batez.

Bi kobla hoiek oro berririk emanen du produkzioe orijinal hortarik ideia bat.

Berrogei eta hameka dia ene urthiak,
Orai nahi tut utzi munduko intresak,
Ezi esperientziaz huilan dut orena,
Trankilki ordin gizunak du kitatzen lurra.

Berset huntarik landan berrogei eta hamabi,
Haur ofritzen dereiot ene Jinkuari,
Galthatzen dodalarik haren tribunalian,
Ene phenak ager ditzan ene faboretan.

Uskaldun mendien parkurritzeko¹⁴⁹ okasionia balin baduzu, zuin Biarnekuen aizo beitera, galthe zazu arrakuntratuko¹⁵⁰ duzien lehen haurri, Etzehun bardiaren berri, arrapostu¹⁵¹ emanen deizu kantatzez zuntzar¹⁵² largo batez goraxiako kantore kopiatu dudana kobletarik lehena.

Itzultzailea: Jean-Pierre CHAHO (Paris, 1842)

Titulu orijinala: *Histoire du Poète Basque Etchabon de Barcus*

J.B. Junior: *Une existence de barde (Revue de voyans, Paris, 1838)*

Transkribatzailea: Patri Urkizu



142 berriro ikusi

143 gailur

144 asmoa

145 gasto

146 bukatzea

147 laburpen

148 laukoak, itzulpen

orijinalean zortziko gisara.

149 ibiltzeko

150 topatuko

151 erantzun

152 zintzar

LIBURU KOMENTARIOAK

KOMENTARIOGILE

1



AMAIA ITURBIDE

Hiru poema liburu

UXIO NOVONEYRA: *Os eidos*

BITORIANO GANDIAGA: *Elorri*

JOXE AUSTIN ARRIETA: *Mintzoen mintzak*





AMAIA ITURBIDE

Uxío Novoneyraren: bidetik Courelerantza

Pamiela argitaletxearen eskutik bi liburuxkatan heldu zaigu "Os eidos", euskeraz "Bazterrak", deitutako obra. Azalean, enbor urtetsu baten irudia agertzen da. Lehenengo liburuan, edizioaren itzultzailea den Koldo Izagirrenen hitzaurre zehatza dator; bigarreanean, asko gustatu zaidan Uxío Novoneyraren lan poetikoari buruzko eritzi bat, Ramón Otero Pedrayok sinatua. Poetaren argazkiak Vicente Larrea euskal eskultorearen "Cabeza profeta" (1987) deritzan eskultura gogaraten dit, antza duenaren harrotasuna igertzen da. Harrotasuna, isiltasuna, misterioa, begirunea, hitzaren inguruan.

Gaur egun, ostera, badago poemagintza-moeta bat gehiegizko hitzez hornituta dagoena, esanahi urria daramaten adjetiboez eta batek, asko mintzatu baina ezer esaten ez denaren nekadura nabaritzen du, giro lightaren kutsadura astuna; eta, halako batean, gure poeta galegoarena bezalako poesia irakurriz poza sentitzen du, poza eta atsedena era berean.

Uxío Novoneyra hitzarengan sinesten duen poeta da, hots, ez du hitza artifizioz estaltzen; aitzitik, hitzari berari leku bat zabaltzen dio, ohizko eta berezko higiduran isuri dadin, liburuaren hasieran oharterazten digun bezala. Ideia esentzial honi eusten badiogu, ez gara eroriko poemok itxura sinpleegia eduki dezaketelako susmoan. Gezurrezko berriketaren aurrean, Novoneyrak hitza bere biluztasunean erakutsi eta poema zer den adierazten digu. Poema egia da. Noizbehinka sortzen zaizkidan esaldi minimo eta puntualetarako dudak sakeleko block batean, aspaldian honako hau apuntatu nuen: ibaia da luzatu eta mirail bilakatu. Ibaiak daramatzen uhainak hitzak lirateke, bidaiari zehar luzatzen direnak, eta miraila, poema, urrundik beti hasierako imajina bera itzultzen dizuna, urrezko hitzez egina.

Uxío Novoneyrak ez du ezpaziorik eraikitzen; espazioan sartzen da, ordea. Kasu honetan, Courelen barrena bidaiari da, naturalezarekin harreman estu eta sakona duelarik, elkarrizketa etengabea. Courelengatik, Courelez eta Courelen idatzita dago "Os eidos". Poetak bihotzarekin ez ezik, begiekin ere lan egiten duelako erne dago eta erne egote horretan ukitzen duena, bereganatu eta maitatu egiten du; hona hemen, norberaren garrantzia, bakoitzaren begiak bildu, gorde eta sentitzen duena. Basozainaren jakintza zaharra, laborariaren mintzo umila, irule eta artzaintsaren siluetak, bidaztiaren sekretoak, leku-izen propioak, elurra, eguzkia, euria, lurra, airea, abere, zuhaitz eta landare-moeta anitzak: guzti horiek izendatzen ditu poetak eta izendatzen baditu esanahi bat daukatelako da,

beraz, irakurleak adi egon beharko du, bestela ez du Courel ezagutzerik izango. Adierazi nahi duenà esaldi soilez eskaintzen du, paralelismo izkutuez, soinu leunaz.

Poeta liriko haundi honen lerroak irakurritakoan, pena bat bakarrik gelditzen zait barruan, galegoa gura bezala ez menperatzearena, zeren zihur bait naiz, menperatuz gero, hobeto uler eta dasta nezakeela Courel Uxío Novoneyraren abotsaren laguntzaz.



Bitoriano Gandiaga: Elorri

Zuritasun arantzatsua

Bigarren argitaralpena izanagaitik ere, Bitoriano Gandiagaren “Elorri” aipatzea merezi duelakoan, berrirakurketa batean oinarritutako lerro hauek hona ekarri ditut. Mendatarraren erromesaldi poetikoan ostatu den esaldi bat dago, Juan Mari Lekuonak liburuaren epilogoan biltzen duena: “bizitza apala da, gogorra da, minbera da. Baina maitagarria ere bada”. Gauzak bere sinpletasunean dira; izenaren ostean izana dago. Eta euren mintzaira propioa dela medio, poematxootan Arantzazuko komentu kristalezkoa, adjetibo finez brodatua eraikitzen du. “Ardi”, “lore”, “mendi”, “arkaitz” bezalako hitzen barrua arakatu du poetak, hauek bait dira liburu honen gorputz espiritualaren elkarguneak (“Beti lurrezko ta beti arimazko”, 50. orr.). Hizkuntzaren barrutik mintzo zaigu, ahots intimistaz.

Sinpletasunaren alorrekoa den beste kontzeptu bat txikitasunarena da. Inguru biluzi, garbi eta isilaren gunean, egilea haurtzarora itzuliz doa —poetak ez bait dio ume izateari inoiz uzten, ez duelako lilura ezta garrantzi gutxiko arrazoiengaitik mintzeko gaitasuna galtzen—, begiak lasaitu egiten ditu eta kontenplazio mistikoan sartzen da, izadiarekiko hartueman gozoan. Izaditik gauza txikien, hala nola erle, txori, sasi edo belarraren inpresioak banan banan jasotzen ditu eta gertu dauzkan gauza txikiokin urrunetarainoko bidaia egiten du, sinbolo bihurtuz.

Izadiak gogoetak egiteko bidea opa dio. Geroan mantenduko duen gizatasunarekiko ardurak hemen du lehen urratsa:

“Gauzak, Jauna, pozik dagoz,
baiña gizonak min dira.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.”

Gandiagarentzat “gizona” oinarrizko hitza da. Elorria gizonaren bizitzaren sinboloa da. Existenzialismoarekiko kezka ere agertzen du. Salvatore Mitxelenak “Arantzazuko euskal poeman”-n (1949) kimatutako existenzialismoak Gandiagarengan izan du jarraibidea, baina ñarbadura desberdinez. Lehenengoak, kantu zaharreko poemario epiko lirikoan, santutegiaren kanpo historia kontatzen digu eta paraleloki barne historia, euskal herri xehefededunarena, tonu epiko-handitsuz. Bigarreanean ez dago horrelakorik, zerbait airezkoa, ametsezkoa da uzten digun aztarna.

Gandiagarekin berehala identifikatzen dugun gaia, nahi eta ezinaren arteko borrokarena da, baina ez “Hiru gizon bakarka” eta “Denbora galdu alde”-n duen garraztasunaz. Oraingoan minak eta pozak elkarri egiten diote musu.

“Elorri” mami-azala ondo jositako soineko apala denez gero, leuntasunez tratatutako gaiei bizkaierazko soinu leuna dagokie, trikiti-koplez polito estilizatua. Baina gaiak anitzak direnez

gero, euskal metrikak eskeintzen dituen molde desberdinetatik asko erabiltzen ditu: nolako edukia halako ahapaldia.

“Elorri”, koru gregorianoaren epeltasunez, barrua aberasten duen liburu horietako bat da, iragan ahala gelditzen denetakoa, non poesian askotan gertatzen den bezala, txoriaren hegalaldia txoria bera baino hunkigarriagoa den, non poesia zerbait gogozkoa dela entzun ahal dugun. Urte eta egoera jakin batzuetan idatzia egonagaitik ere, oraindik bere edertasun mehean dirauen liburu horietako bat da.



Joxe Austin Arrieta: Mintzoen mintzak

Hizkuntzarekiko sentiberatasuna

Ezer baino lehen, zinez aitortu beharrean nago Joxe Austin Arrietaren prosarekin ez bezala, haren poesiarekin kontaktatzea kostatu egin zaidala, agian bere poemagintzarako aukeratu duen joera kultistagaitik edo adierazteko barrokismoagaitik (azken ezaugarri hau bere hitz lauari egokituago, nire irudiko). Baina denborak une konkretuetan antzematen ez duguna geroago apreziatzeko abagunea eskeintzen duenez, Joxe Austin Arrietaren jardun poetikoa estimatzeko sasoa etorri zaidala uste dut.

Bai izenburua —Mintzoen mintzak—, bai erdialdeko orrialdean aurki ditzakegun bertsoak —“Mintzoa beti mintz / mintz-aniztuna” (65. orr.)— aski adierazgarri dira liburua zertan den jakiteko: hitzaren bilaketa eta bilakaera, helburu literarioez gain, linguistikoak ere bait daude, ohituta gauzkaneez. Polifonia bezala difinituko

nuke liburua: metrikak, sonetoak, koplak zaharrak eta gehienbat bertso libreak erabiltzen ditu; tonuari dagokionez, lirikotik ironikora, eta alderantziz, iragaten da; askotariko gaiak ukitzen ditu, politikoa tinkoena bada ere, aber-tzaletasunaren lekuko; alde batetik, euskal tradizio poetikoa (erromantzeak, Lizardirekiko zorra) jasotzen du eta, bestetik, literatura unibertsalarena (collagea, idazketa automatikoa). Guztia teknika metaliterarioaren barruan, atalen jostinguzaren ostean hitzaren artisau on baten eskuak izkutatzen direlarik.

Idazle ooren modura, Joxe Austin Arrietak ate zabal bat dauka gorderik, bide berriak urratzera daraman atea. Jakina da, poesian errepikaziorako dagoen tentazioa uxatu behar dela, pozoina bailitzan, obra bat errepikazioan erortzen bada, bizitasun gabea ateratzen bait da. Eta euskera bezalako hizkuntza ez normalizatu batean, berrikuntza oro, eta are gehiago joera kultista batetik abiatzen bada, hasieran asimilatzeke zailtxoa gertatzen da. Horregatik, horrelako ekimenei denbora eman behar zaie. Hauxe, bada, izango litzateke punturik eztabaidagarriena eta bidenabar, txalogarriena. Ausardia eduki behar bait da eta ixilpeko apostu asko irabazi, honako hizkuntz-maila lortzeko.

Hizkuntzaz ari garenez, euskerari dion begirunea aipatuko nuke. Hainbeste maite dituen behialako eleak arretaz biltzen ditu eta bere testuinguruan kokatzen, eleoi gaurko ongi etorriak emanez. Zeren bait dakigu, harria bezala, hitza ezin daitekeela errotik erauzi, bestela arima betirako galtzen duelako.

Irakurlea naizen aldetik, idatzi ditudan beste literatur-irazkinetan bezalaxe, oraingo honetan ere, azken lerroak eritzi pertsonalago batekin itxiko ditut, esanez Joxe Austin Arrietak euskal hizkuntzaren alde egiten diharduen lanari miresgarri deritzodala.

NARRAZIOAK

2

KONDAKETA



IÑAKI
IRAZABALBEITIA


Kateak itsusiak baitira

IÑAZIO
MUJICA

Tu Quoque
(Joanen Ebanjelio Gainean)



IÑAKI IRAZABALBEITIA



Kateak itsusiak baitira

Ordenadoreek informazioa prozesatzean ateratako zarata mekaniko leuna besterik ez zen entzuten espaziuntziaren zubian. Ez zegoen bestetik argitasun handirik gelan. Argitzalaren definizio-etak iristen zuen oro. Ordenadoreen pantailetan aldika distira eginiko puntuek apurtzen zuten, zeharo puntualki, definizio-etzatasuna.

Bestalde, giroa tentsioz beterik zegoen: tentsio estu eta itogarria. Zubiko airea elektrizitatez kargaturik zegoen antza, eta txinpart bat sortuz gero, gela guztiak su hartuko zuela baieztatu zitekeen.

Irudi hori hartu zuen bederen Julius komandanteak zubiko bere lagunaren espresioak, banan-bana, aztertu zituen. Aurpegiak, tentsio zamatsuz gain, nekea ere zerakusaten. Atmosfera trinkoa eta lodia zen: amastean masteka zitekeen kasik.

Julius komandantea zubi erdizirkularren zentruko jarleku nagusian eserita zegoen pentsakor; geroak ekar zezakeenaz erre-
flexionatzen ari zen. Begien aurrean aginte-
-gelako pantaila nagusi handia zuen, baina ez
zion, une hartan, jaramonik egiten hark
erakutsitako irudiari. Pantailaren bi aldetan
untziaren nondik-norakoak kontrolatzen zituen
ordenadorearen terminalak eta untziaren siste-
ma desberdinen kontrol-postuak zeuden.
Terminalen pantailatxo gehienak itsu eta mutu
zeuden.

Komandateaz gain beste bost lagun zeuden
zubian eta Julius bezala haiek ere, ixilik eta
pentsakor itxuraz. Ez zegoen bestetan egoten
zen giro erlaxatua eta are gutxiago elkarren
arteko berrikerarik. Norbera bere zereginean eta
bere pentsamenduetan kontzentratuak zegoen.

Julius komandantea ez zegoen eroso.
Ipurterrea zen, geldirik egon ezin duen
horietakoa, eta ondorioz, berak nahiago zukeen
jarlekuan geldirik egon ordez, zubia alde batetik
bestera korritzea. Modu horretan, lasaiago eta
trankilago erre-
flexionatzeko betarik izango zuen
soberan zuen energia fisikoa kanporantz
xahutuz. Baina, horrek barnean zituen nerbioak
eta egonezina agerian jarriko zituenez, eserita
segitzea erabaki zuen.

Dena dela, eserleku birakariari ematen zion
ezker-eskubi mugimendu etengabeak bere
barneko borroka salatzen zuen.

Atzetik jarraitzen zitzaion gizon hotzaren
famak irautea gura zuen, bere tripulazioak
konfidantzarik gal ez zezan eta urduriago jar ez
zedin. Hala ere, bere lagunek proiektatzen zuten
egonezak ez zion laguntzen.

Kowalski, radar-ofiziala, amaigabe kolpatzen
ari zen nerbioski behatz erakusleaz bere
kotsolako metala. Jasangaitza suertatzen
zitzaion Juliusi. Jasan egin behar zuen hala ere.

Gizon hotz eta kalkulatzailerak! Uneoro nahi
duena dakien pertsona! Hori ironia latza. Bere

buruaren defentsa-mekanismo moduan, kanpo
alderantz proiektatutako irudi faltsua. Barnea
jaten zioten duda eta zalantzak ezkutatzeko
eraikitako ezkutua. Bazekien berak jakin zeri
zor zion ospe hori. Larrialdi eta estutasunean
deus erre-
flexionatu gabe eta intuizioari jarraituta
hartutako zenbait erabaki ausart eta zorionekoek
marraztutako imajina zen bere bizitzako gurutzea.
Hori zen bere patua. Julius Izar-Armadako
ofizialik hotzena! Inoiz kentzerik izango ez zuen
zama.

—Kowalski! —zaunka egin zuen.

—Bai, Jauna! —erantzun zion neska beltzaran
potoska batek ustegabeko deiak aztoraturik,
kotsolaren gainazala kolpatzeari utzita.

—Arrastorik?

—Ez jauna. Irispide luzeko zein motzeko
radarrek ez dute ezer adierazten.

—Mila esker eta mesedez, utziko al diozu
kotsola kolpatzeari?

—Zeri jauna? —Galdetu zuen neskak
harriturik.

—Kotsolan danborra jotzeari.

—Hortan ari al nintzen?

Baiezko keinua egin zion Juliusi.

—Barkatu... Ez naiz konturatu. Nerbioak dira.
Saiatuko naiz

—Merzi.

Itxaronaldia txit luzea egiten ari zitzaion.

Itxaronaldi oro dira luze eta neketsu, baina
kasu hartan, beste inoiz baino luzeago eta
neketsuago iruditzen ari zitzaion. Denbora,
aurrera egin ordez, gibelerantz korritzen ari zela
zirudien. Pantaila nagusian gainidatzitako
ordulariaren segunduek, minutuak ematen zuten.
Nerbioak azal-azalean zituen, baina, hala ere,
eutsi egin behar zien.

Bestetik, harrapaladan etortzen zitzaizkion
pentsamenduak eta buruan agertu orduko joanak
ziren.

—Luze egiten ari da, komandantea. —urreratu

zitzaion Miller bere bigarrena.

—Bai horrela da. —erantzun zion Juliusek —
Luzeegi.

—Ene aburuz, ezingo diogu denbora luzez
eutsi.

—Eutsi egin beharko diogu ordea.

—Uff! Tentsio hau! Gizonak lehertzeko zorian
daude jauna eta...

—Nabarmena da! Zer proposatzen duzu
egitea?

—Argi laranja pasatzea, jauna.

Arrazoi zuela Millerrek pentsatu zuen Juliusek.
Tripulazio osoa argi gorrian, guztiak beren
postuetan alegia, izateak ez zuen, egoera hartan,
zentzu handirik. Misioa betetzeko ez zegoen
horren beharrik. Tripulazioaren erdia
deskantsatzen izatea ideia ona zen nahiz eta
Arautegia hautsi erabaki horrekin.

—Ados! Antola ezazu.

—Bai jauna!

Lasaixeago sentitu zen Julius, ez askoz ere
ordea.

—Walz! —hotsegin zion transmisio-ofizilari.

—Jauna! —erantzun zion hezur hutsa zen
gizaseme mehar batek eserlekua jirarazten zuen
bitartean.

—Zure belarriek ezer kaptatu al dute?

—Ohizko hondo-zarata jauna. Pultsareen
taupadak eta zulo beltzen aupadak. Hilerrri bat
bezain mutu dago hor kanpoan.

—Ondo da —erantzun zion Juliusek
irribarrez.

«Pultsareen taupadak eta zulo beltzen
aupadak» Hori Walz-en okurrentzia! pentsatu
zuen komandanteak bere bihotzaren taupada
azkarrak ezin izkutataturik esku artean zuen
aupadaren aurrean. Bere buruaren barruan leitu
egin zuela komunikazio-ofizialak pentsa
zitekeen.

Oso mantsu egiten zuen denborak aitzina.

Beharrari eusteko momentua ez zela inoiz
iritsiko otu zitzaion Juliusi. Alperrik ari ote ziren
unibertsoaren bazter urrun hartan zain?
Akzio-apur bat behar zuen erraietan zuen harra
baretzeko; geldialdia birrindu; metatutako
soberazko kemena xahutu eta tentsioa
lehertarazi. Egonezinaren har salobreak nerbioak
jaten zizkion, lehenago ere sarritan jazo legez.

Bere bizitzako misiorik inportanteena zuen
esku artean; nola edo hala etorkizuna
baldintzatzen zion betebeharrak, eta ez zuen
huts egin nahi. Hala eta guztiz ere, eta tamalez,
misioa ondo ala gaizki ateratzearen
erantzunkizun osoa bere esku ez zegoela,
bazekien jakin. Patuak erabakiko zuen. Filosofia
zahar batek zioen bezala, gertatu beharrekoa
Unibertsoaren liburuan idatzita zegoen
aspalditik.

—Haranburu! Mozorroa lanean al dago?

—Lanean eta arazorik gabe, jauna!

Kamalehoi esaten zioten tripulariek
maskaratze-sistema berriari eta antza, izen bereko
animalia bezain trebea zen kamuflaian.

Aginte-zubiko telebista-pantaila nagusiak
erakutsitako irudiari begiratu zion. Hamaika
argi-puntutxo, espazio hutsaren maindire
beltzean itsasirik. Azken orduetako zeru
izarreztatu bera ikusten ari zen. Ez zegoen
aldaketa nabarmenik pantailak erakutsitako
imajinan. β -pictoris izarrean pausatu zituen
begiak, arrastorik ez ordea.

Premonizio txar bat sentitu egin zuen;
nanosegundo batean bere bizkarra behetik
goraino korritu zuen hotzikara ia nabariezina
besterik ez. Baina, biziaren liburuan idatzirik
zegoena irakurtzea bezala izan zen. Alperrik ari
zirela seguru zegoen. Ez zen zitara etorriko. Bere
patua, beste anitzetan zorioneko izandakoa,
desberdina izango zen kasu hartan. Esfortzuak
eta larrialdiak soberan zeuden. Itxarroteak ez
zuen jada zentzurik. Bizia eman zukeen, ahal
izan balu, aurreko adur on guztia, une hartarako

zorte onaren truke. Ezinezkoa zen. Idatzita zegoen, egon.

Dena den, beste ezeren ezean, bertan jarraitu behar zuen. Ofizial on guztiek legez, jasotako aginduei egin behar zien jaramon. Eta gainera, Julius komandanteak, Izar-Armadako ofizialik hotzenak, ezin zien sineskeriei kasurik egin. Ironiarik ironiena!

—Walz! Berririk?—galdetu zuen egonezinez.

—Deus ez, jauna. Guztia mutu.

Zubian zeuden beste ofizialak bere egonezinaz jabetzen ari zirela ohartu zen. Walzi enegarren aldiz berriak eskatzean haiek eginiko aurpegi-keinua txit adierazgarria izan zen.

Mizar-eko Koartel Generalera hots egin zuteneko unea etorri zitzaion gogora. Izar-Armadako Almirante Nagusiaren bulegoan sartu aitzin, ate distiratsuan isladatu zen bere irudi dotoreaz gogoratu egin zen (irripar-zantzuak markatu zituzten bere ezpainek eta aldi berean keinua leundu egin zitzaion) eta nola uniformearen detaile guztiak ondo ote zeuden konprobatu zuen. Irudiari, presentziari alegia, garrantzi handia ematen zion Juliusek. Nartziso xamarra zen muinean eta bere irudi airosoa mirailean gomaturik ikusten zuenean edota taberna batean sartzean emakumezkoen begiak beregan pausatzen zirenean, betea eta harro sentitzen zuen bere burua.

Almiranteak itxura unatua zuen eta ikusi zuen azkenekoan baino nahikotxo zahartua iruditu zitzaion Juliusi. Ileurdindua eta zimurrez beterik zegoen berak ezagututako gizaseme mardula.

Almiranteak larruzko besaulki eroso eta bigunetan jar zedin gonbidatu zuen eta zur preziatuzko kutxa perfumatu bat zabalduaz zigarro bat eskaini zion. Juliusek hagaxka marroixken artean bat aukeratu zuen eta sudurzuloen parera eramanik hark isuritako aroma garratz sarkorra aditu zuen. Ez zen bera erretzailea baina, gustora erretzen zituen zigarro onak lantzean behin. Zedrozko xaflatxo luxe bat

hartu eta su eman zion; segidan, zigarroa mutur batetik bestera berotu zuen zuraren garretan eta azkenik irazeki egin zuen.

Eraztunak osatu zituen birikei zerien tabako-keaz Almirantea hizketan has zedin itxaroten zuen bitartean.

Arruntkeriez hasi ziren hizketan: familia, kontu zaharrak, Akademia Militarrekoak batez ere, Julius ikasle eta Almirantea irakasle izan zirenekoak. Pasadizo parregarri batzuk ere baziren tartean eta biok pozez gogoratu zituzten joandako garaiak.

Juliusek bazekien istorio xaharrak gogora ekartzeko ez zuela, frontea utzi eta Mizarrera joan arazi Almiranteak; hala ere, atseginez jarraitu zion bere irakasle zaharrak jarritako hariari.

—Beno, pentsa dezakezunez Julius, ez zaitut kontu zaharrez oroitzeko jinarazi...

Baiezko keinua egin zion Juliusek buruaz,

—Pentsatzekoa da! —erantsiz.

—Beno. Zer dakizu gerraren egoeraz?

—Jauna, ni ari naizen frontearen berri zehatza daukat. Besteetaz, zurrumuruak izan ezik...

Galdekor begiratu zion Almiranteak.

—...Arazoak izaten ari omen gara.

—Arazoak! Gutxi da hori! Arazoak bakarrik izango balira!

Almiranteak zigarroari pufada luzea egin zion hizketan jarraitu aitzin.

—Larriagoa da! Propaganda ofizialak besterik badio ere, atzera egiten ari gara fronte gehienetan, galera izugarriak, gehiegizkoak, pairatu ditugu azkenaldian. Gizon-emakume on asko galdu egin dugu. Lantegi eta faktoriek ezin diote ordezeko material berriaren eskaerari erantzunik eman. Soldadu berriak formatzeko astirik ez dugu. —bere abotsaren tonua altxatu egin zuen esandakoa enfatizatzeko—Sineskaitza da baina, Ceti aldean subofizial txuskeroak hartzen ari dira gurutzuntzien agintea, ofizial kualifikaturik ez daukagulako...



Odolez gorritu zen Almirantearen keinua.

Gerraren egoera, korridore eta tabernetako esamesek ziotena baino askoz larriagoa zela ohartu zen Julius. Berak ez zien normalean horrelako oilaloka-kontuei jaramon handirik egiten; tripulariek denbora luzez etxetik urrun egoteak erakarrirako bazterrezinezko ondorioztat hartzen zituen, zerbaitetaz hitzegin beharrak eragindako berbalidia alegia. Ezertan denbora-pasa izan ez eta...

Azkenaldian, hornikuntz arazo batzuk izan zituen, baina ez zituen zurrumurruek esandakoarekin lotu; burokrazi kontuei egotzi zien erantzunkizuna.

—Nola liteke?

—Atzera egiten ari gara eta...—esaldia amaitu barik utzi zuen Almiranteak, urrutira pentsakor begiratzen zuen bitartean.

—Eta? —galdetu zuen Juliusek urduritasun-puntu batez, Almiranteak airean utzitakoaz kezkatu.

—Kontseilu Gorenean egoerak ez duela bueltarik, inflexio-puntua gainditu dugula jada, uste dute... Horrelaxe pentsatzen dut nik ere, hein batean bederen —segitu zuen Almiranteak —Merkatarien Ligakoek bidalitako Kapitulario-Baldintzak aztertzen ari dira...

Harri eta zur gelditu zen Julius bere nagusiaren aitormena entzundakoan.

—Baina Jauna, hori bukaera da...

—Ez dago beste irtenbiderik!

—Gure amets guztien bukaera. Non da urdindarren izpiritua? Ezin dugu etsi! —segitu zuen Juliusek.

—Jendea nekatuta dago, oso nekatuta. Ni ere bai... aitortu behar dizut.

—Eta gure askatasun-idealak? Urtetako borroka?

—Larrialdiak itota. Estutasunek eta sakrifizioek muga bat dute. Eta izpiritua hil egin dute.

—Nora goaz izpiritua ere galtzen badugu? —itaun zuen Juliusek zigarroa amorrutik hautsontzian zapaltzen zuen bitartean, zigarroaren kea mingotzegi bilakatu bait zitzaion.

—Chi lo sa? Jendea hasia da pentsatzen, hobe dela bizirik irautea ideiak defenditzeagatik hiltzea baino; kateaz loturik bizi behar badu ere.

Juliusek amorratuz itxi zituen ukabilak. Liga Urdinaren aldeko borrokan, askatasunaren aldeko borrokan, bere bizitzako urterik onenak eskaintzen ari zen eta lagunik leialenak ere untzia lagatzen ari zirela ohartzeak min handia eman zion.

—Barkatu jauna baina, saldukeria deritzat.

—Hitz gogorak dira horiek, Julius!

—Bigunik ezin dut esan, aita eta borroka honetan beren odola isuri duten guztiak gogoratzean.

—Zure aitarena sentitu zuen lehena neu izan nintzen. Lagunik minena nuen.

—Ba, orain bere oroimena zikintzen ari zara.

—Mesedez, Julius! Ez dizut hori onartzen!

—Eta nik Kontseiluaren erabakia itsu-mutsuka onartzea nahi duzu.

—Aski da, Julius! —moztu zuen Almiranteak —Uste al duzu, Julius, neretzat erraza izan denik? Konprenitzen dut zure jarrera...

Zurbil-zurbil zegoen Julius.

—Zuk orain dituzun kezkak makina bat bider izan ditut nik aspaldi honetan. Kontseiluan gaia planteatu baino askoz lehenagotik ere. Gau asko pasa ditut lo egin gabe, «nora jo?» nere buruari galdetuz. Eta erantzun bat ere aurkitu dudala iruditzen zait. Egoerak irtenbiderik ez duenean, odola alperrik isurtzen jarraitzea zilegi al da? Ezetz uste dut.

—Zilegi al da, milaka gizon-emakumeen sakrifizio eskuzabala alde batera utzi eta ezer ez dela gertatu sinistea? Kolpe batez, gure herriaren mendetako nahiak zokoratzea?

—Zeintzu dira herriaren nahiak? Inork ba al daki? Askatasuna, libre izatea, inoren morroi ez izatea...Horiek omen dira gure idealak. Tripa betea dagoenean bai, baina hutsik baldin badago...

—Barkatu berriro, jauna, baina zinikoa iruditzen didazu —bota zion Julusek Almiranteari guztiz minduta.

—Zinikoa irudi diezazuket... Baina, zorionez ala zoritxarrez, horixe da gure herriaren jarrera.

—Ezin dut onartu. Bizia alperrik bota dudala deritzot.

—Agian ez duzu alperrik bota. —azpimarratu zuen Almiranteak tonu konfidentziaz —Gerrari buelta emateko aukera bat egon liteke oraindik eta horregatik hots egin dizut. Txikia da, baina saiatzeke ezin dugu laga.

Julusek galdekor begiratu zion.

—Jakingo duzunez Merkataritza Ligaren barnean ez daude gauzak oso bare. Presio-talde desberdinen artean, botere-kuotak lortzeko eta banatzeko borroka latzean ari dira beti. Orain bat eginik eta sendo daude bi arrazoi nagusirengatik: kanpo-etsai bat dutelako, gu, eta joera guztiek onartzen duten liderra aurkitu dutelako.

Baiezko keinua egin zuen Julius komandanteak. Lasaitzen hasia zen. Militarren buruaz entzuten eta analizatzen ari zen Almiranteak emaniko informazioa.

—Gure soziologoek eginiko azterketa arabera —jarraitu zen Almirantea —Markusson, Merkatarari Nagusia, egun bapatean desagertuko balitz, Merkatararien Liga mila pusketetan eztanda egiteko posibilitate handiak leudeke, barnean pilatutako tentsio eta kontraesanak jasanezin bilakatuko lirakeelako.

Julusek, Koartel Generalera zergatik deitu zuten argi eta garbi zekusan: Markusson akabatzea nahi izango zuten. Komando-ekintza bat burutzea gura zuten seguruenik. Esperantzari leiho bat zabaltzeko prest zeuden oraindik

Kontseilu Gorenean, itxuraz.

Julius bere buruarekin adosago gelditzen ari zen, bere bizian zehar eginiko lan eta esfortzuek helburu bat izan zezaketen oraindik.

—Beraz, nik Merkatarari Nagusia hil dezadan nahi duzue, ezta?

—Bai, horixe da.

—Non, noiz eta nola?

—Intelligentzi Zerbitzukoek jakinarazi digutenez, Merkatarari Nagusiak β -pictoris sistema bisitatuko omen du datorren hilaren erdialdean. Eguna eta ordua dakizkigu.

«Alajaina, β -pictoris! Otsoaren ahoaren barnean!» pentsatu zuen Julusek.

—Lana ez da erraza, badakizu.

—Ez alajainkoa!

—Zailena bertaraino iristea izango duzu. Gurutzuntzi berezi bat emango zaizu; oso azkarra eta txikia. Gainera, detektatua ez izateko sistema berri bat ezarriko dauka. Gure injineruek esaten dutenez, guztiz detektaezina omen da.

Ez zegoen ados Julius Almirantearekin. Gatsena ez zen ailegatzea; misioa bete ondoren, etsaiek han zeudela jakinaren gaineran egonik, bizirik ateratzea ikusten zuen berak zailago.

—Ez nago zurekin ados —esan zion Julusek Almiranteari —Hau kamikaze-lana da neurri batean. Kamufilai sistema, injineruek esaten dutenaren erdia bada, Markussonen sukaldaraino sartzeko gai gara. Bizirik irtetea dago koxka.

—Julius, misio hau guztiz boluntarioa da. Ez duzu halabeharrez onartu behar...Besteren bat bilatu egin dezakegu.

—Egin egingo dut, jauna. —esan zuen Julusek irmoki.

—Huts egingo ez zenidala banenkien. —erantsi zuen Almiranteak lasaitasun-keinua agertu zitzaizolarik musuan.

—Beste erremediorik ba al daukat?

—Kartazal honen barruan zure aginduak

dauzkazu. Zorte ona!—bukatu zuen Almiranteak kopa altxatuz eta Juliusenarekin topa eginez.

Juliussek aginte-zubiko telebista-pantailan gainidatzirik agertzen zen ordulariari begiratu zion.

Hamar ordu, seiehun minutu, hirurehun eta hirurogeimila segundu, baino gehiago zeramatzen zain. Arrastorik ez.

Tripulazioaren egonezina handitzen ari zela somatu zuen Juliussek. Zerbait gertatzen ez bazen, ezin izango zuen jendearen tentsioa denbora luzeagoz mantendu. Bera ere, nekaturik zegoen aspalditik. Kainabera-arrantzaleen pazientzia izatea gustatuko zitzaiokeen Juliusi une hartan.

Eutsi egin behar zion, bere etorkizuna jokoan zegoelako, nahiz eta jadanik alperrik ari zirela jakin. Ez zuen amore eman nahi. Ez horren erraz bederen.

—Mezu zifratu bat Koartel Generaletik, Jau-na! —komunikazio-ofizialaren ahotsak erreflexionalditik jalgi arazi zuen.

—Mila esker, Walz.

Walz-ek emandako disketea bere ordenadore pertsonalaren ahoan sartu zuen eta sarrera-kode sekretua tekleatu zuen segidan. Biiip egin ondoren, mezu deskodetua pantailan agertu zen istant batean.

Etsipenez irakurri zuen Juliussek Koartel Generaletik igorritako mezua. Begiak itxi egin zituen eta bere erraietan zerbait hiltzen ari zela sentitu zuen.

Hautzaroko imajinak etorri zitzaizkion gogora ordenik gabe eta bata bestearen segidan harrapaladan.

Aitak zaldiaren bizkar gainean arrantzara eramane zuen eguna bizi-bizian zeukan memorian, nahiz eta zazpi urteko umemokoa izan orduan.

Udaberriko egun beroa zen. Haizerik ez zegoen ia; haizexka leuna besterik ez. Habia egiteko lagun bila deiarrez zebiltzan txorien

kantuek basoa betetzen zuten eta erreka urez gainezka zetorren urruneko mendietan urrutako elurraren kausaz. Zuhaitzen begiak lehertzen ari ziren, hosto jaio berrien berdetasun argiaz horizontea estalirik. Galsoroak itsaso berde ziren, baina aurki urrearen kolorea izango zuten gordetzen zuten aberastasunaren adierazgarri.

—Aita bihar berriro etorriko gara, ezta? —galdetu zion Julius umeak pozez beterik etxera itzultzen ari zirenean arratseko eguzki gorria bizkarrean zutelarik —Horrelako gehiago harrapatu nahi ditut —erantsi zuen eskutatik, alanbre batetik zintzilik, zeramatzen dozenerdi amorraini hatzez seinalatuz.

—Ezin dugu Julius —erantzun zuen gizonak tristezi puntu bat zuen tonuan.

—Zergatik?

Aurpegi zurbil batean kokatutako turkesa-itxurako begi urdin sakonez begiratu zion gizonak umeari erantzuna eman aurretik. Malenkoli putzu ziren begiak.

—Bihar goizean banoa berriz ere.

—Beno, datorren astean beraz! —esan zuen mutikoak jasankortasunez.

—Nahiko nuke baina, noiz itzuliko naizen etxera ez dakit.

—Beti berdin! Zergatik joan behar duzu?

—Gerran gaudelako, seme.


Umea ixilik gelditu zen une batez. Burua eskuinaldera biratu zuen eta biziz betetako begi txikiak aitarenetan finkatuz zera galdetu zion:

—Zergatik gaude beti gerran?

Galdera latza benetan. Umeek egin ohi duten horietakoa. Jakin ba al zekien berak zergatik zeuden gerran?

Sarritan, untziko bere gelaxkan ohean lo hartu ezinik sapaieko metal grisari begira zetzanean, galdera berdina jartzen zion bere buruari. Zergatik gaude hemen?

Erreflexio-aldi bakar luze haietan, urtetako gerra amaigabeari jarraipena emateko benetako



arrazoirik ez zegoela otu egiten zitzaion. Statu Quoaren aurpegietako bat besterik ez ote zen pentsatzen zuen. Gerra inork maite ez zuen izurria ez, eta gizartearen egoera eta statusa aldatu gabe mantentzeko beharrezko ziurtasunezko presio-balbula ote zen, moduko ideiek berotzen zioten burua.

Beste batzutan argi eta garbi ikusten zituen bere borrokaren helburuak eta baita su eta gar eutsi behar zitzaizela pentsatu ere. Horietako une distiratsu batean zegoen egun hartan, baina bere semearen galderari erantzuna ahoskatzeko unean gobernuaren propagandan erabilitako esaldi borobil horietako bat atera zitzaion, ez besterik.

—Askatasuna nahi dugulako, seme.

—Zer da askatasuna? —itaun zuen umeak bere galdera-katearen beste maila moduan.

—Umeak! —pentsatu zuen Juliusen aitak. Nola azaldu zazpi urteko mutikoari, filosofo eta pentsalariek milaka urtetan esplikatutako ahal izan ez dutena? Nolako askatasuna? Zertarako askatasuna? Zeinegandiko askatasuna?...

—Begira, zu eta biok nahi dugunean arrantzan joan ahal izatea da askatasuna.

Ez zuen Juliusek orduan ulertu aitak esan ziona: arrantzara joan ahal izateko beti etxetik kanpo egon beharra, bai tontakeria!

Orain bazekien aitak tontakeriarik ez ziola esan, eta ez zuela berak arrantzan joan ahal izatearen alde bizia galdu. Bakoitzak norbera izateko eta nork bere bidea aukeratzeko eskubideen alde izan zela kontziente zen. Eta berak ere ideia horiek defenditzearen alde egina zuen borroka eta xahutua bizia.

Amorruz gainezka zegoen, sutan alegia. Politikariek saldu egin zutela pentsatzen zuen. Erosotasun eta errazkeriaren truke etorkizuna saldu! Bere misioak arrakastarik zuen ikusi barik hartua zuten erabakia. Bera hara bidaltzea, kontzientziak baretzeko eta aurpegia zuritzeko egin zutela iruditzen zitzaion. Aldez aurretik

hartua zuten erabakia, seguru. Agur itxaropenari, agur urtetako nahi eta desioei, agur bizitzeko helburu eta arrazoiari.

Eserlekuaren besoei gogor heldu zien bere esku indartsuez. Amorratioa deskargatu nahi zuen.

Mezuari jaramonik ez egitea otu zitzaion une batez. Bere tripulariak leialak zituen, elkarrekin eginiko urteek hazitako konfidantza osoa zuten beregan, eta bazekien jakin berak agindutakoari itsu-mutsuka kasu egingo ziotela. Kortsario izatearen ertzean egon zen baina, indarra faltan zuela sentitu zuen eta piraten jokoak kontu txit zaharrak ziren bestalde.

Zubian zeuden tripularien begiek gainean sentitu zituen. Erantzun baten zain zituen.

—Walz, barne-komunikaziorako sistema aktiba ezazu —agindu zion komunikazio-ofizialari—.

Ez zuen egin behar zuena egin nahi.

Bere mikrofonoa aktibatzen zuen palankatxoaren kontra astirotasunez zapaldu zuen hatz erakuslea «on» jartzeko indarririk egin gabe eta zubiko beste ofizialei oso luze iruditu zitzaion une batez, palankari eragiteko zalantzetan ibili zen Julius. Eragin egin zuen azkenik.

Pantaileko izarrei begiratu zien berriro, hizketan hasi aitzin eta kateez lotuta ikusi zituen.

—Jaun andreok, Julius zuen komandantea mintzatzen zaizue. Arreta berezia eskatzen dizuet mesedez. Koartel Generaletik mezu bat jaso berri dugu. Berri txar bat eman behar dizuet. Gerra bukatu egin da. Kontseilu Gorenak Merkatarien Ligako Kapitulario-Baldintzak onartu egin ditu. Mila esker.

—Miller! Hartu agintea etxerako bidean —agindu zion bere bigarrenari

Zubia utzi egin zuen, astiro eta buru makur, zahar eta indarge sentitzen bait zen.

Ipuin honek, 1990.ean Alberto Magno zientzi fikziozko sariketan bigarren saria irabazi zuen.

IÑAZIO MUJICA



Tu Quoque
(*Joanen Ebanjelio Gainean*)

Gales herrian jaio nintzen, Mister Wilde, ez dakit interesik baduen, orain hainbat urte, hainbeste ezen ez baitut ondikotz berriz hogeitamarririk beteko. Glamorgan Konterriko Swansea itsas hirian eman nituen hastapeneko urteak eta seme bakar hazi ninduten nahiz eta nire gurasoek beste seme bat izan, urte pare bat lehenago. Ni munduratzeko puntu-puntuan nintzelarik ordea, hura hil egin zen min-horiak jota. Bi urtetxo zituen Jamesek. James jarri zidaten grazia niri ere, eta James nau berorrek orain, ongi asko dakikeenez.

Gure aita zena, maixu zegoen hiriko eskoletako batean. Gizon sendoa zen eta eskuzabala. Amak berriz, auzoko neskatxa guztiak biltzen zituen etxean josten eta bordatzen irakaste aldera. Elizan, aitak liburu santuak irakurtzen zituen auzo guztien aurrean, eta amak neskatxen korua prestatzen zuen kanturako. Itzal handikoa zen nire familia auzoan eta errespetoa eragiten zutenak hirian. Ni berriz, gehiegizko maitasunak

bildua hazi nindutela esan beharko dut, orduko lagun eta ahaideek ziotenez. Baina, ba ote da zinez, Sir, gehiegizko maitasunik?

Gazte-gaztetatik lanean hasi behar izan nuen, gauza ttikietan jakina, eta ez etxean diru horren beharrik zutelako —egia esan, sobera ere ez genuen horretatik, baina hirurontzat lain egiten zuen aitak—, ezpada gizon zuzen hark bizitzari buruz zeukan eritziagatik: “Gizonak lan egin beharra dauka ume-umetatik, James. Nork daki zer ekarriko duen etorkizunak?”, esaten zidan sukaldeko mahaiburuan eserita.

Eta ogi partitzen jarri ninduen estraina.

Hautzaroko oroitzapenak, lauso datozkit orain burura. Gogoan dut Cardiff, eta urkatu bat plaza nagusian, goizalde argi gorritz zipriztinduan. Eta jolasak gaztelu zaharrean. San David Ospitalearen harresia, zeinaren kontra-kontra jartzen bait nintzen hazi ote nintzen jakitearren. Amaren behatz itzautziz beteak masaila ferekatzean, eta inguruko mendietan arbolak motetzen udaberrian.

Gogora datorkit indarka bezala, Sir, gizona bi ahozko ezpata zela ikasi nuen eguna. Ogi partizetik nentorren ni, eta etxera sartu aurretik ezustean aurkitu nue aita, aberekeria hutsez, sekula ahantziko ez dudan aurpegiz ama haragiz hartzen, alkobako oheburu burdinezkoaren kontra, atzetik. Desioaren lurralde ezezagunak, gordintasun bortitzez erakusten zizkidan bere galak. Bolada batean ezin izan nion aitari artez begiratu aurpegira. Ez nuen ulertzen nola izan zezakeen gizon eskuzabal, prestuak, bigarren maskara basati hura. Ez nuen ezagutzen gizon anker hartan, elizan ebanjelioa irakurtzen zuen hura. Ez zait berehalakoan ahantziko leiho zirriztutik sortzen zen aieska eta antsia kolpatuen oihartzuna, kanpo aldeko leihoan eserita, harriturik, ikusi nuena luzeagoz behatzeari utzita, malkoak masailetan behera zetozkidala.

Nire lehen esperientzia, bestalde, arrunta izan zen oso. Gauzarik normalena, auzoko neska

lagun batekin jolasean ibili ondoren; Margaret zuen izena, gogoan dut, eta hartara behartuta, marraztu ere egingo nuke, lasto beilegiaren gainean haren gonazpiko erantziak egiten zuen kontrastea.

Eskolan, lagunekin ere egiten nuen jolas, jolas inuzenteak, hala baitira mutil-koskorretan jolas guztiak. Horietan maiteenetakoa, laguna lepotik heldu eta indarrez atzera botatzea zen. Zutik irauten zuena irabazle. Orduan nabaritu nuen, lagun haien ukimena niregan sentitzean, zerbait arraroa sumatzen nuela. Sexoa iharrostean zen galtzapean gogorturik, ipurmami haiek ezustean bezala, doi ferekatzean.

Alferrikakoak izan ziren nire buruari esaten nizkion guztiak. Ezinezkoa zela eta Margaretena zegoela gainera hori frogatzeko. Barregari agertzen ari nintzela; gero eta gehiago gustatzen zitzaidan jolas hura, gero eta sentsualago bihurtzen ari zen. Uhaskara bainua hartzera joan eta orduan gozaten nuen ororen gehien, gorputz xuri, azal leuneko haiek ikusiz. Begiz dastatuz. Mozkortu egingo nintzen. Ez da posible bestela.


Berehala egin nuen Edmund lagun. Ni baino zaharragoa zen eta portura joaten ginen paseoan ibiltzera. Moila-mingainetako batean eseri, hankak zintzilik, eta ikatz-untziak ikusten genituen sartzen eta ateratzen beren tutuak ozen joz.

Puntu horretara helduta eta Londresera aldegin bitarteko guztiaren berri, azkar emango diot ahal dela, gu bion bizitza ibaien ubideak ez baitira elkarrengandik horren urruti ibiliak.

Harreman horiek gure garai hauetan —Grezian ez bezala Sir, ongi asko daki hori berorrek— duten alderdi sordido hori probatu nuen, gozatu hitza bera gehiegizkoa iruditzen bait zait, azkenik zurrumurru eta hots gaiztoek, nik hiritik aldegin nezan zuhurrago bihurtu zuten arte.

Horrela iritsi zen Londresera partitzeko tenorea.

Ez nintzen ni berori bezala, Oxfordera joa-



tekoa, eta ikasketa xingleagoak egitearen aitzakiaz agertu nintzen Londres terralak hartutako hartan, Tamesis ibaiaren uretza ibiliz Kleopatraren Orratzeraino, maleta zurezkoa ezkerrean eta nire desio ziztatzailletako batek berrpaper mutur batean idatzitako helbidea eskuinean. Ibaiari begira jarrita, Edmunden irudia zetorkidan, geltokian zutik, ezer esan gabe, eta amarena, sukaldeko mahaiaren inguruan eserita eta negarrez. Adio egin nion guzti hari, ibai uhin arinetan.

Helbidea, pentsio batena zen, Sir, eta auzorik miseriazkoenean: East End, moilatako deskargatzaileen ondo-ondoan. Pentsioko nagusiak, begirada lizunez aztertzen ninduen gosaldorduan. Nire ondoan eseri eta Afghanistanen ibilia zela kontatzen zidan, han ezagutu zituela miseria eta gerraren alderdi guztiak. Nazka ematen zidan, ordea, bere aurpegi irribarre nahiak: gorri-gorria, sudur karatxoz josia eta ezkerreko bekaina goitik behera zeharkatuz orbain luzea.

Gauetz zaldun ongi jantziak igotzen ziren, mutil errekurtsos bezain edadez motz zebiltzenekin, propio lantegi hartarako nagusiak zituen gela estu zikinetara.

Han ezagutu nuen berori.

Bisoi larruzko longaina zeraman, hegats zabaleko kapelua, lore handia botoi-zuloan kateatua eta galtzarbean hartuta bastoia. Hasierahasieratik ezagutu nuen, berorrek ez zuen usteko baina, "Lady Windermere's Fan" ikustera joan eta goi-goiko pisutik ikusi bait nuen ohol gainera igotzen eta jendearen txaloak jasotzen.

Geroztik, askotan ikusi dut Hich Streeteko taberna famatu hartan, mahai ttiki laburraren inguruan jende ugari eta haien artean mutil gazte asko, feasting with pantherserako prest. Eta berori, profeta jentila, istorio xarmagarriak kontatzen. Gogoan izango du behin, Narzisorena kontatu ondoren, berorregana inguratu eta "Mister Wilde" esanda nire miresmena azaldu niola, batere oihalik eta maskararik gabe.

Garai hartan fama bila nenbilen, eta berorrek

zeukan arrakastaren distira guztia niretzat. Pentsiorako bidea hartu genuen biok eta kontatu nion antzerki konpainia guztien ateak jo nituela ezer lortu gabe, desesperatua nintzela. Moilatan barrena pasiatuz, untziak erakutsi zizkidan, Sir, eta nongoak ziren, hango lurralde exotikoen ezaugarri eta lilurak kontatu. Behin eta berriz "Boy" hitza erabiltzen zuen niregana zuzentzeko.

Azkenean nire pentsio hartara iritsi ginen, eta Afghanistango gerlari ohiak gaueroko harrera nazkagarria egin zigun. Gorroto dut irribarrea ordudanik. Ezin dut eraman erdizkako barrerik. Nire gelara igo eta froga bat egin behar zidala esan zuen berorrek, gogoan dut. Ea ba ote nekien obraren baten zatirik memoriaz. Nik baietz. Marko Antonioren bakarrizketa ezagun hura ederki nekiela, hartara jarrita. "Oh Shakespeare!" hotsegin zuen, beste ezer esan gabe.

Ondoren, biluzteko agindu zidan, berori aulki bizkar gabean esertzen zelarik, bisoi larruzko longaina lurreraino eta bastoia bi eskuekin aurrean hartuta, hanka hankari emanaz. Poliki-poliki erantzi nintzen, eta "pantera deliziusa" xuxurlatzen sumatu nuen, eta ohe gaineko maindirez estaltzeko esan zidan. Hala egin nuen nire senari segituta, ia erabat nire gorputza estalita utziz. "Laga ezkerreko bularra libre, erakuts gerezi gorria ausart, ume", esan zidan, eta berriro ere obeditu nion. Ondoren, "hasi" izan zen seinalea... "Adiskideak, erromarrak —eman nion hasiera— aberkideak! Erne belarriak: Zesar ehorztera nator, ez goraipatzera. Gizonak egiten duen gaitzak iraun egiten du hura hil eta gero ere. Ongia, sarritan, lurperaturik geratzen da haren hezurrekin: hala bedi Zesarrekin. Bruto leinargiak esan dizue Zesar handinahia zela...". Bukatu nuenean, esku-zarta ttikiak jo zituen, "oso ongi, oso ongi", baina gar gehixeago behar nuela, eta orduan berori hasi zen zutik jarrita deklamatzeko era paregabe. Berriz ere saiatzeko agindu zidan orduan. Gau ordu luzeak eman genituen. Shakespeareen zati

llabur horri bueltak ematen. Gainerakoa, ipuin motzak kontatzen pasa zuen berorrek. Ezagunak batzuk, berorren baitan egosiak bestetzuk, Irlanda herrikoak haiek, apartak denak.

Aldegitean, diru paper bat utzi zuen, neroni konturatu gabe, oheondoko mahaitxoaren gainean.

Biharamonean, morroi bat etorri zitzaidan bilete batekin etxeraino. Berorren sinadura zeraman eta honela zioen: "Presentatu, James mutikoa, Kafe Royalen tearen garaian eta galdetu John Hichensengatik, izango du zerbait zuretzat". Eta hala lortu nuen nire lehen lana. Ez oso ona, baina aurrera ateratzeko eta pentsioz aldatzeko behintzat eman zidan.

Antzezlan apala zen ordea, eta ez zidan nahikoa ematen bizi ahal izateko. Ezagutu nizkion orduan gauari bizitza sordidoenaren errai sakonenak. Ohantze estu hezeetan etzan nintzen ezin konta ahal gizonekin. Batzuk, desioa gozatu nahi zuten nire haragizko katiluan, beste batzuk aldiz, ikusmenaren muztiloarekin konformatzen nituen. Gernutegietan ere, izan nuen iluntze ordu batzuetako ezagutza eta enkontrurik. Eskuak irristatzen ziren erraz, begiradak gurutzatzen aise. Egia esan, suertea izan nuen halakoetan, langintza klase horretara emana ibili nintzen garaian, ongi tratatu ninduten niregatik pagatu zuten guztiek, edo gehienek behintzat. Noizbait ezbeharren bat izan banuen ere, halanola arestian aipatu pentsioko nagusiarekin, ahaztu egin nuen mespretxurik handienaren kutxa barruan. Geroenean, aukeratzera ere ailegatu nintzen, norekin, noiz eta sariaren zenbatekoa.

Antzezle lana ere ez zitzaidan gaizki suertatu. Konpainia batekin lan epea bukatzen nuenean, beti bait zetorkidan morroi bat berorrek sinaturiko biletea eskuan, zeinetan azaltzen bait zidan, lanik baneukakeela beste konpainiaren batean.

Gero eta antzezlan luzeago eta interesgarriagoak eskuratu nituen, azkenik, pentsa nezakeen lanik ederrena estrenatzera iristeraino.

Hamlet, eta Piccadilly-ko antzokietako batean. Berori ere egon zen estrenaldian, eta gogoan izango du, Sir, txaloak eskertzer atera nintzenean, nire lehen makurtzea berorren palkora begira egin nuela. Londres guztiak ospatu zuen goraki nire antzezlan. Kritikoak zale nituen amorratu, eta bazirudien nire lana gorai patua zela paper idatzietan ere. Auzozaldu nintzen bezala, aldatu nintzen itxuraz ere, eta San Paul katedralearen inguruko apartamendu batean jarri nintzen bizitzen, munduarekin bakeak eginda; pare bat urtez, behintzat, esne mamitan bizitzeko esperantzan.

Bitarte horretan ezagutu nuen George.

Aktore ederra zen, Mister Wilde, berorrek badaki, eta mutil paregabea. Haren begietan itsasoa ageri zen, lano aldiz, aldiz oldartua. Eta zinez eder baziren bi artizarrok, are ederrago zituen ezpainak, oroz gain zoratzeko modukoak; granada alearen antzera gorriak. Hanpatuak, uretan beratutako zuraren antzo. Urandituak. Gorriak, muin emateko propio eginak ziruditenak —eta aukera dibino hori izan nuen, aurrerago kontatuko dionadez—. Berorrek Salomerako tajutu zuen Iokanaanaren deskribaketa irakurtzean, iruditu zitzaidan Georgerengatik ari zela. Hain zen eder eta tolesgabea. Gorraila zuen, ordea, Iokanaanek ez bezala, ileadatsa. Gorraila, berorren herriko semeek sarri izan duten antzera. Kolore batez George definitu beharko banu, gorria litzateke kolore hori.

Gorria zen George.

Xurigorritz egina zuen begitarte, plazerraren mimikoi. Oturuntz ostean edo berotzen zenean gorriago, besteetan xuri, zurbil ikuturik gabeko xuri batekoa, gorriaren grazia galdu gabe izpirik. Antzeztokian jartzen zen gorri. Ensaiatzen eta estreno egunetan. Ispilu aurrean jarri eta bere saioa ikasten ari zelarik, lepo buelta guztiko zainak puztu egiten zitzaizkion, emeak harrotutakoan, usoarrari bezala. Gorputz laztana zuen, azal leun eta zumezko gaia. Animalia batekin konparatzera, oreina. Orein

korrikalari liraina.

George... Ongi zekien bere edertasunaren berri eta ederki ustiatzen zuen, azken muturreraino.

Hamlet jokatzeko ari ginela, aktoreetako batek aldegin behar izan zuen poliziarekin izan zituen istilu ilunak zirela medio. Bostgarren ekitaldian Ophelia ehorzten zuen klown-etako batena egiten zuen, saio laburra baina karakterizazio lan handia eskatzen zuena, eta luzimendurako, berriz, aproposa. Norbaiten beharra izango genuela eta presentatu zitzaizkigun mutil gazte batzuren artean aukeratu genuen George, eta airoso jarri genuen prest agertokira igotzeko. Berehala egin nuen lagun. Ensaioak bukatu ondoren, elkarrekin joaten ginen tabernaz taberna, goizaldeko ordutikietan, biok zutik iraun ezinik, lur jotzen genuen arte. Opio-erre-geletan ere, izaten zuten aldian behin, gure bisiten berri.

Ardo eta opio egun haietako batean, oraindik egiten genuenaren jabe ginelarik, nire apartamendura eraman nuen frogatik artistikoa egingo niolako aitzakian. Igarri diezaioke, nik asko esan gabe ere, Sir, zein izan zen frogatik hori. Marko Antonioren bakarrizketa zekienetz galdetu eta baietz esan zidanean, biluzik jartzeko agindua luzatu nion. Nire besaulkian eserita, kriseiluak erabat argitzen ez zuen izkinaren kontra lan hura nola betetzen zuen ikusi nuen. Nik ezer esan gabe hartu zuen maindiera ohe gainetik, eta gorputzari buelta emanez, han hasi zitzaidan ozen eta zinez, oso era dotorean: "Adiskideak, erromarrak, aberkideak! Erne belarriak: Zesar ehorztera nator..." hasten zen zati hori hotsegiten. Bukatu zuenean, niregana etorri zen, ez bait nion hitzerdirik ere esaten, eta besaulkiaren aurrean belaunikatuz, "Zer duzu, James?" galdetu zidan aztoratuta. Malkoa isuri zitzaidan masailea behera. Lurretik altxa erazi nuen, eta nire parera erakarri bere begi paregabeak. "Unkitu egin nauzu mutiko, unkitu" esan nion, eta ezpain gorri ederretan eman nion

muin. Laburra oso. Ikutu besterik ez, granadaren frutua. Atzera egin zuen berak ordea, ukondoa ezpain ertzera eramanez, harrituta. Eta nik ezer pasa ez balitz bezala, lotsatuta baina, jiratu egin nintzen eta jartzeko esan nion. Orduan berak, sorbaldeetatik heldu eta aurrez aurre jartzearaino itzul erazi ninduen. Begietara artez so egin, eta irribarrerik gabe —ai nola eskertu nion detaile hura!— niretan utzi zizkidan bere ezpainak. Erotuko nintzela pentsatu nuen.

Gau hartan ez genuen hortik aurrerakorik egin. Ohe gainean eseri nintzen, eta bera, burua nire magalean, maindiera xuria hanka artean tartekaturik, biluzik, lokartu zen, nik behatzmamiez biloak nerabilzkiolarik.

Hala esnatu gintuen goizeko argiak.

Eta goizeko argiak eskutik, Regent Street lehenbizi eta Bond Street gero, txokoz txoko eta dendaz denda pasa genituen goitik behera Georgerentzat ahal genuen erregalarik ederren, garestienak erosiz. Ez genuen handik hara pausarik ezagutu amodio kontuan. Egün bat besteari jarraitzen zitzaion, musu bat besteari bezala. Paseoan ibiltzen ginen Piccadilly Circusen, Waterloo zubian jarrita Tamesis ibaiari begira gelditzen ginen ordu luzeetan, hizketan sarri, isilik maiz, batak bestea gogoan beti. Kensington Jardinetan barrena ibiltzen ginen, antzezlanaren gorabeherak suharki eztabaidatzen. Nik esku imintzio handiz lagundu izan diot beti, Mister Wilde, konbertsazioari, eta aldiari behin, besotik heldu bere gihar kementsuak sentituz arroparen azpitik eta geldi erazten nuen, nahi nuena ninietara artez begiratuta azaltzearren. Itzuleran, iluntzearren argi moreak ubeldutako Trafalgar Squaretik iragaitea genuen gustoko. Nelsonen irudi harrizkoak berak ere diosala egiten zigula zirudien.

Azkenean, nire apartamendura etorri zen George bizitzera. Kideko aktoreen arreta txuliatzearren, azken funtzioa bukatzean bakoitzak bere aldetik jotzen zuen, norberaren



etxeko bidea hartuko balu bezala, baina azkenean gure elkar topatzea leku berean, ohe berean, genuen. San Paul katedralearen ondoko nire apartamenduan.

Garai hartan gertatu zen, Sir, Hamleten errepresentazioak bukatu eta Julio Zesar prestatzeari eman geniola. Niretzat izan zen Brutorena egitea, eta Georgeri, hoberik ezin eta, Luziorena eman zioten. Eta nik, Luzio eta Estraton, Brutoren morroiak, biak batera itxuraldaketa txiki bat eginda jokatu behar zituela, gauza zela horretarako, eta hala konformatu nituen denak.

Gogor egin genuen lan aktore guztiok. Goizean hasi eta arratsaldea ondo sartu arte esaiatzen genuen lan luzeenak haragiztuz genituenok bederen. Hasieran, Shakespearen obra irakurriz soil-soilik, gero oholza gainean jokatuz piskanaka. Boz modulaketa, keinu zehatzera bildu beharra, dena kontrolatuz. Bazen hilabete ongi pasea, estrenoaren eguna iragarria genuen ordurako, eta ensaio batetik aterata, Willian Fowler, Marko Antoniorena jokatzen zuen aktorea, gaintik pasa eta lerdekatuta utzi zuen zalpurdi batek Baker Streeteko harri-zapalen gainean.

Berehala proposatu nuen Georgeren izena haren hutsunea betetzeko, eta neronek ongi asko nekienez, bikain pasa zuen jarri zioten froga. Bereganatua zeukan erabat Marko Antonioresen papera. Atzeratutako denbora hura irabazi beharra zegoen nolabait, eta azkarrago egin genuen lan, aurretik iragarritako eguna, ahal zen gutxienez atzera zedin. Txantxetan ibiltzen ginen biok, bestalde, agertokian etsai eta ohe barruan maitale ziren Bruto eta Marko Antonio haiei buruz.

Antzezlanaren estrenatu, eta txaloak jaso zituen alde guztietatik.

Kritika, Georgerenganako laudorioak eginez hasi zen estraina, eta gero piskanaka-piskanaka, nire oinordekoa sortua zela argiago edo ilunago esan ondoren, nire lana mesprezatzen eta lurperatzen pasa ziren. Eritzi azal haiek atezu

nindeukaten, baina ez ninduten iraintzen. Ezin eraman nuen ordea, hori ez, obra bukatu eta aguregitera ateratzen ginenean, Marko Antonioresi jotzen zizkieten txaloak Brutori jotzen zizkietenak baino ugariagoak izatea.

Hala ere, hasiera batean, egoerak ez zuen hartasirik sortu gure harremanetan, giroa emeki-emeki biziatur bazihon ere. Jendeak nire lana isildu egiten zuen, eta ezin zuten ulertu lanik nagusia neronek egitea eta bigarrena, berriz, Georgek. Norbaitek idatzi ere idatzita utzi zuen, alderantziz beharko zukeela.

Orduan bai, edozein zirtzilkeriagatik hasten ginen ezbaian.

Edan ere gehiago egiten nuen, izugarrikoak esateraino makurtu nintzela aitortu beharrean nago. Su hartu nuen, azkenean, ahaleginen ahaleginez nahi zutena iritsi zutenean. Haren tenprurako hobeto zetorrela, eta halako zurikeriak esan zizkidaten. Biragunea behar zuela ikuskizunak, galtzen ari zela indarra, eta ez kezkatzeko behin-behineko aldaketak zirela eta. Dena, Georgek Brutorena joka zezan. Min egiten zidan Georgeren isiltasunak arazo guztiotan. Azkenean Marko Antoniorena egiteko ia konformatu nintzenean, Antoniorena ere ez, Kasiorena zeukatela niretzat pentsatua azaldu zidaten.

Burutik pasa zitzaidan dena bertan behera uztea. Beste noara joan eta berriro hasi, baina Georgeren beharrean nengo. Ezin nuen erlazio hura eten. George gabe ez nintzen ezer.

Egoeraren ur nahasiak ubidera ekarri behar nituela eta nire ahaleginez gauzak baretzen hasi ziren gu bion artean. Sendatu zitzaizkidan zauriak, eta harremanek, lehengo bidetik ez bazen ere, ez zuten urrutiegitik korritu behar izan. Baina orduan, Mister Wilde, gauzak ongi zihoazela zirudienean, bera Bruto ni Kasio, orduan hasi zen ziportzen; bere erasoari ekin zion: gehiegi edaten nuela gizen-malmutzen ari nintzela, ez nuela anbiziorik batere, pena ematen ziola arbola eroriak.

Azkenean, gu bion ohea utzi eta beste gela batera aldatu zen.

Bere mespretxuak erraiak irensten zizkidan. Katanbegien eran joan zen dena, katanbegi batek bestea erakarriz. Gelaz aldatzea izan zen lehena, ondoren etorri zen ezkutuan, mutil adoleszenteak etxera ekartzen hastea. Horrek ordea, ezin zitekeen bestela izan, gutxi iraun zuen, hirugarren katanbegia erakarri bait zuen, alegia, denak agerian eta ondo agerian ekartzera ailegatu zen. Neure muturren aurrean pasatzen ikusten nituen. Neure etxepean. Sarrailetik begiztatzten nituen gorputz gazteak amodioan, neronen gorputza identifikatu nahian Georgek azpian zuenarekin. Georgek, bazekien gainera, begira nintzaiola eta begiak ate aldera zuzentzen zituen plazerraren astinaldirik handienetan.

Azken katanbegia, neska hura ekarri zuenean.

Sarrailetik begiratu eta oheburuari helduta, animalien gisara, aberekeria hutsez, hartzen zuela ikusita, aitaren imajina hura etorri zitzaidan burura, Swanseako gure etxean ama hartzen ustekabean ikusi nuenekoa. Orduan bezala, ate ondoan eserita geratu nintzen horren eszena laidogarria gertatzen ari zen paretaren bestaldearen kontra bizkarra jarrita. Negarrak irten zidan, Sir, orduan bezala, atez bestaldeko antsia eta amasestu hotsa aditzean.

Hala aurkitu ninduen urdanga hark, kortzea eta gona-barrenak antolatuz gela barrutik atera zenean.

Irribarre eragin nion nonbait.

Eta hori ezin izan nuen eramane. Jauzi egin nion lepora; eta panterak bere harrapakinari helduko liokeen ankertasun errebesenez helduko nion, baldin eta Georgek eragotzi ez balit.

—Barka egiozu, nire anaia da, eta mozkortuta dago —esan zion—.

Eta erabat ikaratuta aldegin zuen neskak. Atea itxi eta paparretik heldu zidan. Bi zaplasteko eman zizkidan, hitzik esan gabe. Gelan sartu eta atea giltzaz itxi zuen ondoren. Gaua, haren ate

aurrean pasa nuen, kizkur-kizkur eginda, lurrean etzan eta zakur baten gisara, Klown hura berak salatu zuela hausnartzuz, eta akaso William Fowler ere ez zela istripuz hil pentsatzen hasita. Denak izan ginen Georgeren goranahiaren jostailu.

Biharamonean, inoiz ez eta, elkarrekin joan ginen antzokira.

Kamerinoan, isil-isilik aldatu zen George, eta ni ez nintzen isiltasun hura puskatzera ausartu. Ilun genuen begitartea biok ere. Oholtza gaineratzeko ordua etorri zen, eta aktore guztiak prest ginen alboko bastidoreetan. Soslaiez bakarrik ikusten genuen dekoratua. Oihala itxia zen, eta Georgek, beti ohi zuen bezala, agertokian barrena buelta bat eman zuen hasi aurretik. Jendearen ardailotsa sumatu egiten zen oihalaz bestalde.

Bapatean, isiltasuna nagusitu zen, eta oihalak ezari-ezarian gora egiten zuelarik, Erromako kale batean azaldu ziren Flavio, Marullo eta antzertokian barrena hara eta hona zebiltzan plebeioak. Ez zen oihala oraindik goenean, eta Flaviok urratu egin zuen niri beti giro majikoa iruditu zaidan hori: oholtza gainean agertzen den lehen aktoreak estraineko hitza ebakitzen duen momentua, alegia: “Kanpora! Zoazte etxera, alferrontziok, zoazte etxera: jaieguna al da bada gaur?”

Bigarren eszenan agertu behar genuenok prest ginen eskuineko bastidoretik beha, batzuk lurrera begiratzen zuten, beste batzuk gora, norbere testua errepasatzen, sabaialde hartan ageri zen soka, zur eta burdinen anabasa nahasian irakurri nahian bezala. Heldu zen azkenik gure ordua. Georgeri begiratu nion, Brutorena jokatzear harro sumatu nuen. Berak ematen zuen ateratzeko seinalea.

Zesarren lehen hitzak antzokian burrunba: “Kalpurnia”.

Eta Kaskak: “Isilik, Zesar hitzegitera doa eta”. Luperkalen jaia zen, eta prozesioan gindoazen estadiora. Aztia hasi zitzaion Zesarri Martxoko Idusez oharterazten. George, ni baino lehenago

zen mintzo. Ezpain gorri haragitsu haiei begiratu nien: "Azti bat, Martxoko Idusekin kontuz ibiltzeko esaten ari zaizuna". Orduan Zesarrek zerbait esan zuen, eta segidan nire txanda. Ordea, Georgeren ezpainei begira jarraitu nuen nik. Zesarrek, keinu egin zidan eta apuntatzailearen boz urruna entzun nuen: "Irten jendeartetik, irten jendeartetik" eta orduan bai hasi nintzen: "Irten jendeartetik, gizona, begiratu Zesarri".

Eszenarekin batere arazorik gabe jarraitu genuen. Bruto eta Kasioaren arteko konjural-karrizketa osoa ongi asko burutu genuen Georgek eta biok, ia konturatu gabe, Zesar hileraztera ailegatu ginen Ponpeioren estatuepean. Gero etorri ziren herri asaldatuaren aurreko bakarrizketak, Bruto eta Marko Antoniorenak. Dotoreziaz aditu ziren antzoki jendez bete-betearen barruan bi aktoreen boz durundariak.

Hirugarren ekitaldia Marko Antonio eta Brutoren arteko gerra piztuarekin bukatua zen, eta laugarrena Antoniok hasten zuen, bere buruzagiekin hizketan. Ondoren, Brutoren denda aurrean jokatu behar genuen bien arteko haserre. Bruto eta Kasio. George eta James. Dena ongi joango zen, egun hartan bestetan ez bezala, irribarre egin ez balit "lasaitu, Kasio" esan zidanean "patxaraz agertu zeure esakizunak". Bezperako istoria guztia etorri zitzaidan burura odol punpaka batean, eta oraindik ere ez dakit nondik atera nuen indarra eszena behar bezala bukatu ahal izateko.

Bostgarren ekitaldia, Filiposeko lautadan.

Marko Antonio hasten zen bere ejerzitoko buruzagiekin, eta ondoren berriz ere Bruto eta biok. Eszenaren bukaeran, agurra ematen genion elkarri: "Adio sekulako, Bruto" esan nion. Benetan ari nintzen. Aurpegira begiratu gabe besarkatu nuen. Hurrengo eszenan Pindaro jopuari askatasuna ematen nion ni hilerazteagatik. Lurrean etzanda, buruz behera entzun nituen Georgeren hitz zuriak eta desesperazio gezurrezkoak: "Non, Messala, non

datza bere gorputza?". Aktore ederra zen, Sir, berorrek badaki.

Hirugarren eszena, berriz, ezker bastidoretik hasi nintzen ikusten. Estraton, Bruto hilerazi behar zuen morroiaren ondoan. Agertokira egiteko prest ikusi nuenean, ukabilkada batez lurrera bota nuen, ezpata kendu eta hura eskuan hartuta atera nintzen oholtza gainera. Bruto, Dasdanio, Elito eta Volumniorekin batera.

Jendea harritu egin zen, noski, arestian hiltzen ikusitako Kasio hura berriz ere ikustearekin; are harrituago ikusi nuen, ordea, Georgeren aurpegia, nirea ikusi zuenean Estratonenaren orde. Zabu ttiki bat egin zuen. Jendearen zurrumurrua gero eta nabarmenagoa zen salan; azkenean ezpainak zabaldu zituen niri begira: "Zatozte, adiskide hondakin errukarriok, haitz horretan atsedean har ezazue". Beste hirurak joan arteko zatitxoan ez zen inor kontzentratu bere saioan. Niri begiratzen zidaten. Hala oholtza gainekoak, nola albotik begira zeudenak, bai eta ikusleak ere, nahasi asaldatuak ageri ziren.

Azkenean, Bruto eta biok geratu ginen agertokian.

Brutok totalka ebaki zituen hitzok: "Gera zaitez zeure jaunaren ondoan, Estraton: Aipu oneko gizona zara zu. Zure bizitzak izan du ohore ukituren bat: eutsidazu, bada, ezpatari eta bihurtu aurpegia ni gainera oldartzen naizen bitartean". Gogoan dut momentuan ulertu ez nion zerbait esan zuela, gidoian ez zetorrena: "Egitar hari duzuna, lehen-bait-lehen egizu". Neronek ebaki nituen ondoko hitzak, irribarre maltzurra ezpainetan: "Emaidazu eskua aurrea. Agur jauna". Normalean Estratonek, lehen Pindarok nirekin bezala, eskuin aldera eramaten zuen ezpata, benetan sartzen zelako efektu optikoa bete zedin. Baina nik ez nuen eskuinera bota, zuzen eutsi nion, eta hondoraino sartu zen, hots bustia sortarazirik.

Ikusle banaka batzuren artean garrasi zenbait entzun zen Georgek "Agur, Estraton zintzo hori" doi esanda, eta Zesarri zuzendutako azken esaldia



esan behar zuenean, haren orde z "Zergatik, James?" luzatu zidalarik, ezpata, sabela baino gorago hondoratuta. Inork ez zuen ezer ulertzen. Tramoia atzetik eta alboetatik ateratzen hasi ziren aktoreak. Garrasika.

Ez ziren konturatzen, behingoz, Julio Zesar jokatu beharrean Othelo ari ginela jokutzen.

Hemen, Readingeko leotza ospel honetan, maiz gogoratzen naiz George nire mutilarekin, eta berorrek ere bai, Mister Wilde. Gaur, patioan ikusi dut berori, gurekin batera obo-inguru berari bueltak ematen behin eta berriz. Presoek begiak lurrean jarriak ditugu, goenean, harresiak baino gorago igarotzen diren. Lainoei ikara izango bagenie bezala. Bata besteari segika joan behar dugu, zelatari krudel hauen so burdinezkoaren pean. Arropa zahar ikumen zakarreko hauek soinean, eta zikin-briloa nabarmen gure belarrondo bezuetan. Gernu arrastoak galtzetan nonnahi, eta odol-gorotzez ere ziprztinduriko praka kolorgetuak. Izan ere, sartu eta aurren berritan normahi erasaten duen disenteria alu honek ez gaitu uzten, harik eta ate zabalenetik arrastaka edo atzeko ttikitik, hankak aurrera, irten arte.

Usain itogarria dago zeldetan.

Airea biziatu egiten da gaeuz, horrenbeste, goizean atea zabaltzera datorren zelatariak maiz goragalez botaka ihardun behar izaten baitu barruko sabel-urdailak ahoko zulotik atera beharrean. Erabat hutsik ageri dira pareta zikinak, inskripzioak, hori bai, eta egun igaroak errepresentatu nahi duten marra motzak soilik. Izkina batean, pertz bat, egin beharrak egiteko, egunean hirutan hustu behar duguna. Lau ohol, uharka modura, loa galerazteko jukutria, eta azkenik, orain bere gainean idazten ari naizen harri-alasa eta zurezko aulki bizkar gabea.

Leihorik ere ez du nireak.

Izan dut berorregana hurbiltzeko gogorik. Hogeitahiru ordu zelda barruan pasa, eta ikuilutik larrera ateratzen diren azienden gisara ordu

beterako atera gaituztenean. Elkarri begiratu diogu, "berori ere honetaratua" esan nahi bide zuen soa luzatu diot eta imintzios agurtu dugu elkar patio hodei grisaskek estalian. Akaso ez zidatekeen ezer esango, berorregana hurbiltzeko keinua egin izan banu, ahapeka bada ere, hitzegite aldera, partzek eta zorriek bakean uzten duten jakite aldera; baina izu laborriak harrapatuta gauzka, zelatari prestuezok zernahi egiteko gauza baitira. Lehengo egunean, badaki berorrek nola zigortu zuten mutil-koskor hura, zer eta komunera joan beharra zuelako, ez zelako gauza izan esfinterrei eusteko... Nork izango du horretarako indarrik, ematen zaigun janari okaztagarria egunean-egunean irentsiz: olo aia sarea, gaizki egositako ogi koskorra eta giltzurrun manteka. Edateko ur zikina. Eta berori hurreratu zitzaionean, "Oscar" esan zuten, horrela, izen hutsez, berori, zeinek esan! "Oscar —berriz ere— utzi egiok gaxteak esku lardaxkatzeari". Eta barre egiten zuten algara.

Gustora joango nintzaion gaur goizean "animo" esatera, "laguntzarik beharko balu, maixu, hemen nauka". Hori besterik ez, egin ahal baneza! Izango ahal dut ezperen horretarako aukerarik.

Ezintasun horrek bultzatuta, gutun hau idaztera jarri naiz, sekula berorren eskuetara iritsiko denetz zalantzan jarrita. Bibliaren paper hau hautatu dut idazteko, hori baita kartzela sakonean edukitzen uzten diguten liburu bakarra. Ez da txarrena ere. Nik San Joanen ebanjelioa aukeratu diot idazteko, lerro hutsarte hauetan, berorrek ebanjelari horren lana estimatzen duelakoan.

Bada, dizipuluetarik bat, Jesusek maite zuena, etzana zagoen Jesusen bulharren gainera...

* Ipuin honek 1989ko Ignacio Arbeloa Saria irabazi zuen

ITZULPENAK

5

NARRAZIO



ISTVÁN
ÖRKÉNY

Minutu bateko ipuinak

Itzultzailea:
MAITE GONZALEZ ESNAL

MIROSLAV
HOLUB

Zientzilari baten ironia

Itzultzailea:
MAITE GONZALEZ ESNAL

XOSÉ LUIS
MENDEZ FERRIN

Marisorgina

Itzultzailea:
M. ANDRES URRUTIA


LOTOLORE BIKAINAREN
MONASTEGIA

*XVII mendeko
Txinatar anonimoa*

Itzultzailea:
KARLOS SANTISTEBAN

*Es kann kein Werk
durch Kraft bestehn/
Die Sehnsucht muß
im Bunde gehn.*

ISTVÁN ÖRKÉNY
(1912-1979)



Minutu bateko ipuinak

ISTVÁN ÖRKÉNY: ZENTZUGABEKERIEN ZIZTADAK

Gauza zabaldua da gure buruari iseka egiteko, edota gugandik at ematen diren zentzugabekeriez trufatzeko, umore absurdoaren aiztoa Erteuropan zorroztu dela batipat.

Eta zuzen hondoraino sartu ordez, aizto kupidagabe honek zartakoa trabeska ematen duelarik, agerian jartzen du zentzurik eza edo burugabekeria deitu ohi duguna, nola gugandik landa ez ezik, nork gure baitan mozorroturik daramagun pizti baldarra ere badela. Horixe egiten du István Örkény minutu batean: estenkadak laburrak eman esaldi zuritan mozorroturik, eta barre apala eragin, zer pentsatua ere ematen duten bitartean.

Adibide bezala hona hemen István Örkény hungariarraren minutu bateko ipuin sorta bat, fitxa bibliografikoaz osatuta.

Egile honen beste lanak:

Tot Familia (antzerkia)

MINIMYTHES (Paris, Gallimard, 1970)

Katemen jolasa (antzerkia)


INDUSTRIA ASTUNAREN FOLKLOREA

- Hor al da makinari saila, aditzen al duzue ?
 —Skultéti hemen, agindu nahi duzunerako.
 —Zenbat daude, Skultéti ?
 —Hogeamairu.
 —Hogeamairu zer ?
 —Zenbat zer, injenieru jauna ?
 —Ea zer diren hogeamairu.
 —Gutxiago behar al zuten, ala ?
 —Berdin dio, Skultéti, segi zurean.



INFORMAZIOA

- Hamalau urte daramatza sarrerako ateondoan eseria, leihatila baten atzean.
 —Bi gauza bakarrik galdetzen dizkiote :
 Montexeko bulegoak non, mesedez ?
 —Berak erantzuten du :
 Lehen solairua, ezker aldea.
 —Bigarren galdera hau da :
 Non da kortxo hondakin birziklatzaile saila, mesedez ?
 —Bere erantzuna :
 Bigarren solairua, bigarren atea eskubira.
 Hamalau urtetan sekula ez da nahastu, guztiek informazio zuzena jaso izan dute. Behin bakarrik gertatu zitzaion, andre bat leihatilara hurbildu eta ohizko galdera egin zionean.
 —Mosedez, Montexa bulegoa zein pisutan ?
 Inoiz ez bezala begiak urrutira zuzendu eta esaten dio :
 —Guztiok ezerezatik gatoz eta ezerezara bihurtzen gara. Andreak protesta egin zuen. Protesta aintzakotzat hartu eta aztertu eta eztabaidatua izan zen, azkenean ez entzuna egin zioten. Izanez ere, ez zen gauza larriegia.



AUKERA HAUNDIA

—Egunon, andrea.

—Zer nahi duzu ?

—Sonbreiru marroi bat nahi nuke.

—Nolakoa nahi duzu ? Zer tankerakoa ?
Deportiboa, tradizionala, hegal zabalekoa ?

—Zuk zer gomendatzen didazu ?

—Ikus dezagun...Hau arina duzu; ilunegia ez, argiegia ezta.

—Hor daukazu ispilua, nahi baduzu.

—Adizu, ba ez zait batere gaizki gelditzen.

—Horixe ezetz. Propio zuretzat egina dirudi.

—Ez nizuke lan gehiegi eman nahi, baina beste bat erakutsiko bazenit.

—Bai pozik ere gizona! Honako hau, esaterako, aproposa dela zuretzako esatera ausartzen naiz.

—Egia da, ondo gelditzen zait. Dudan nago zein aukeratu.

—Agian hirugarren bat. Honako hau estimu haunditan dauka jendeak, eta gelditu ere beste biak bezain ongi gelditzen zaizu.

—Arrazoi duzu. Zer alde dago hiruren artean ?

—Prezio berdina dute.

—Eta kalitate aldetik ?

—Ba, egia esatea nahi baduzu, ez dute batere alderik.

—Zertan bereizten dira orduan hiru sonbreiruak ?

—Ezertan ez, jauna. Izanez ere, ez daukat hiru sonbreirurik.

—Zenbat daukazu ba ?

—Hauxe bakarra.

—Hiru alditan bera probatu al dut, ala ?


—Bai jauna. Atrebentzia ez bada, ba al daukat jakiterik zein aukeratzen duzu ?

—Dudan nago. Agian lehenengoa.

—Honekin zaudela ondoena, iruditzen zait, beste biak baztertzeko modukoak ez badira ere.

—Ez horixe. Baina aurrenekoa hartuko dut.

—Nahi duzun bezala. Egun ona izan, agur.




ABERE KLASE BERRIA

Holandako zoologo kongresu batek abere klase berria badela ziurtatu du, Borsod Zoogenetika Instituto Hungariarrean egin den selekzioa medio.Mundua populatzen duten abere izendegian Zulatzaile Ez Ugalkorra (Varietas Hungarica) izenez sartu zen.

Zulatzaile Ez Ugalkor hau, lurra zulatzeaz gain, aurretik zerbait ihardun eta trebatu ondoren, gauza da baita : zulatutakoa atzera berriz lurrez bete, arratoi edo xaguak harrapatu, etxea zaindu, drama frantsesak bertsetan itzuli, eta baita errementari bikaina eta mendi injenierua izateko ere. Lana ondo betetzen du kontabilidade buru gisa, baita filosofo edo agintari bezala ere. Epaile zorrotza da, erabaki zuhurrak hartzen ditu beti eta egiten duen lana beti baliotsua izaten da. Gainera ezerk ere ez du bere onetik ateratzen. Jaten duena —hain baliagarria dela kontuan izanda— neurri oneko juzka daiteke: 2.500 3.000 kaloria eguneko.

Bersodeko jakintsuek ezugalkorra deitu zioten, ale bakarra lortu baizuten, eta???? kiderik ez duenez, ezin du ugaltu.



MANUAL INSTRUCTIONE COA

Ondoko ipuinok, laburrak izan arren, propio izan dira horrela idatziak. Alde ona badute: aste beteko edo hilabeteko arreta eskatzen ez dutenez gero denbora aurrezten dutela.

Arraultza egosten den edo telefono hotsa isiltzen den bitartean ematen baitigu beta minutuko ipuina irakurtzeko.

Aztoraturik edo nerbioak airean ditugula egoteak ere ez du inolako eragozpenik sortzen. Irakur ditzakegu zutik nahiz eserita, euritan zein haize boladen mende, edo jendez gainezka goazela autobusean. Gehienak atseginak gertatzen dira ibili ahalean irakurrita ere.

Gutziz garrantzizkoa da ondo erreparatzea tituloei. Egileak labur esan nahi zuen, beraz ezin inguru minguruka ibili.

Autobus atera igo baino lehen, begira ondo nora eramango zaituzten.

Ipuinon tituluek antzeko garrantzia dute. Honek ez du esan nahi, inolaz ere, tituluak irakurtzea aski denik. Hasi tituluetatik; edukira pasa gero; hauxe baita erabiltzeko modu zuzen bakarra.

Oharra!

Baten bat ipuina ulertu gabe geldituko balitz, irakur dezala berriro.

Hala eta guztiz, ulertzen ez badu, ipuinak egin du huts. Ez da hain motz den gizakirik, minutuko ipuin txarrak baizik.



MIROSLAV HOLUB



Zientzilari baten ironia

Miroslav Holub poeta eta zientzilaria da. Bere lehen poema sorta Pragan 1958an eman zen argitara. Lanbidez immunologoa izanik, bere poemetan antzeman daiteke gizakiarena adina harrigarri gertatzen zaiola zelulen eta txertoen bizitza; halaber, maila berean ipintzen dituela emozio estetikoa eta existentziala. Izan ere, poeta honen ustez biak baitira gauzak —edo bailiren ikusten ditu—. Beraz, emozioak gauzak ere direnez, gorputza edo egitura bat bederen daukate: perpausen baitan batzuek, formulen numero soiletan besteek. Finean, gorputza du ezustean mikroskopioan aurkitutakoak, nola giharra ere duen ahapaldiz ahapaldiz osatuz doan poemak.

Zientzilari ere den partetik, Holub, biengana hurbiltzen da galdera izkutua gordetzen duen orok sortzen digun herabeta-sun berberaz; herabe eta, aldi berean, jolas gazi-gozoan patua-rekin eta naturaren kapritxoekin, begia mikroskopioan ordez zerrikituren batean jarrita baleuka bezala.

Before & After liburuko poema sorta honekin, ezagutarazi nahi izan ditugu, poeta txekiar honen pentsamenduaren il-doak nondik doazen.

ALBERT EINSTEIN-ekin SOLASEAN

Paul Valeryk:

—Nola moldatzen zara ideiekin, Einstein
jauna?

Bururatu ala papereratzten al dituzu?

Gauetz bakarrik egiten duzu lan? ala
goizetan ere...

Albert Einsteinek erantzun zion:

—Monsieur Valéry, gure arloan
ideiak hain dira bakanak
non bateren bat jorik gertatzen denean
ez duen inolaz ere ahazten.

BURUTAZIO LABURRA LANGARI BURUZ

Langa bat
hasten da inon ez
bukatzen da inon ez
eta
bereizten du dagoen lekua
ez dagoen lekutik.

Halere, zoritxarrez
langak oro, hein batean,
pasabidek ere dira,
batzu gauza txiki
besteak haundientzat, halatan
langa batek ez du ezer bereizten, aldiz bai
seinalatu egiten du
zerbait bereiztua izan behar zitekeela
eta zigortua izango dela zeharkatzen duena.

Era honetan
langaren orde
hitz bortitz bat joan zitekeen,
edo baita hitz leun bat ere, baina
norma bezala azken hau
ez zaio inoiz inori gertatu.

Beraz,
langa erabat perfektoa
ezer-ez ezer-ezetik bereizten duena da,
ezer ez dagoen lekua
ezer ere ez dagoen leku batetik.

Hauxe da langa absolutoa,
poetaren hitzaren bezalakoa.

**HAURTZAROA Z BURUTAZIO LABUR
ZENBAIT**

Haurtzaroko zelai urdinketan haurtzaroa
besterik ez dago.

Orobat ez dago ezer zeru horixkan ere, ez
orma okre biluzietan,
ezta orma okre biluzien atzean, ez
ekialdeko zerumugan, ez
zerumugaz haruntza ere, ez etxe ttipian,
ez dianan, ez ispiluan ezta ispiluaz
bestaldean ere.

Haurtzaroa ezik.

Gauzak bitxiak eta arrotzak zaizkigu,
lehendik zeuden eta hor egongo dira.
Oroimena iristen zaidaneraino, beraz,
haurtzaroa izenik ez xederik ez duten gauza
eta gizaki konfederazio
baten erdiko bakardadea da.

Izenak eta helburuak geuk beranduago
pentsatuak dira.
Halatan uste dugu ormak zerbait beste
zerbaitetik
bereizten duela,
etxeak ekaitzatik babesten gaituela
eta urretxindorrek zoriona barreiatu duela
kantuz ipuinetan zoragarrietan.

Hauxe da guk sinisten duguna. Baina agian
ez da horrela.

Etxeen hustasuna mugagabea baita,
mugagabea ere
urretxindorren ankerkeria, eta ataka batetik
besterainoko
xendrak ez du amaierarik.

Eta bilatzeaz batera galdu egiten dugu, eta
aurkitzean izkutatu.


Zeren oraindik haurtzaroaren pezkizan
baikabiltza.

HEZURRAK

Bazter uzten ditugu
alfer hezurak
narraziaren bizkarrezurra,
katuaren matela,
ekaitzaren mokorra
Patuaren paparra.

Gizakioi
Hazten doakigun burua
eustearren
Bizkarra zuzen eutsiko digun
hezur baten bila
gabiltza.

XOSÉ LUIS MENDEZ FERRIN



Marisorgina
(*Mantis religiosa*)

Itzultzailea:

M. ANDRES URRUTIA

Besaulki grisean zegoen D. Orl, D. Orl jakintsu zaharra, bere begi ikertzaile eta argi haiekin, kontxazko antiparren atzean dizdiratsuak. Armairu handiek, luzez sapaiarainokoek, gelaren lau ormak estaltzen zituzten; barnean kortxozko xafletan finkaturiko insektuen herronka itzelak. Laneko mahaia, bazter batetan, liburu ireki, paperorri zabaldu, lente zenbaitzu, pintzak eta berrikitan harrapaturiko hiru edo lau alez estalita. Albo batetan, besaulki gris zaharra, doktorearen azpian, eta aurrean Els Bri gazte eta irudikorra. Honek hitz egiten ziharduen.

—Osaba Orl, zer kontatu behar didazula eta irrikitan nago...

—Bai, alabatxoa... xertxobait garrantzitsua da... garrantzitsua eta areago zure gustokoa. Etxean esan al zenuen niregana zentozenik?

—Bai.

—Badakizu, agian apurtxo bat luzatuko gara eta.

—Ez... ez. Gurasoek badakite zer gertatzen den... Ondo esan zidan aitak...; esan zuen berak: "Beti bezala, nahi duzun orduan etorriko zara, ...beti bezala osaba Orl-ek zer konta edukiko du... noski". Eta nik esan nion: "Aita, gaizki iruditzen bazaizu, izorra zaitetz".

—Ge, ge, ge... Semealabak demoninoak zarete..., demoninoak.

—Eta zuk zer dakizu, osaba Orl, umerik ez badaukazu?

—Ouh! Horrelakoak norberarengandik baino besteengandik jakiten dira, uste dut nik... Eta nobela hori, neska, nola doa?

—Utzi nuen.

—Baina... hori ez duzu egiterik!

—Begira... gaiak ez ninduen betetzen.

—Hortakoz, ondo egin zenuen.

—Baina, zer da kontatu behar didazuna?

—Ba, begira... zerbait oso arraro eta oso luzea... gai polita ipuin batentzat.

D. Orl altxa zen besaulki grisetik, txilina jo eta botilak eta gozokiak hartu zituen.

—Zer nahi duzu, Els, cognac?

—Ez al daukazu hobeto anisette edo Oporto?

—Badut bai... ez bota, beterik doakizu eta.

Orl zaharrak, bizartxo oraino gorrixka eta burua soildua, ixiltxo egiten zuen berba, fonema bakoitzean inflexio desberdina eginez... Bri-k entzuten zuen, entomologoaren berbakate zuri, urdin, magnetikoaren zain.

—Bai, neska-ziharduen berak-historia arraroa da. Ikusiko duzu... Ezagutzen ote duzu

"marisorgina" izeneko insektua?

—Bai ez al da "Santa Teresa" edo "Txirrina-pantika"?

—Horrela da... Ba insektutxo jakingarri hori nire historiaren protagonista da. Zatoz nirekin.

Terraza batera atera ziren. Mahai luze baten gainean lerrokatzen ziren beirazko kutxa batzu, katesarez estaliak, banean lur idorrak eta ezein bedarren multzo batek marisorginaren egongela osatzen zutela.

—Begira marisorginei-esan zuen irakasleak-kontura zaitetz kutxan bakarrik dagoen honetan, atsedean egoeran: bularra pitin bat tente eta aurrekaldeko anka berarizkoak, otoitzeko tenorean. Probentzakoek "Jainko-otoi" deitzen diote... Jainkoari otoika... arrenka dabilela dirudi... Begira: kaltegabea, bildurtia, anka, gorputzaren luzeera... Lekaime aszetikoa! Baina horrelakoa dioenez ez dio deus ere igarri. Begira honi.

Orl Doktoreak kutxa batetik hartu zuen armiarma handi eta sabelaundi eta marisorginaren egongelan askatu zuen.

—Begira orain armiarma nola dabilen korrika kanpaitik, dakusazu? Orain marisorginak ikusi du eta jada hiru egun pasatxo badira jatekorik eman ez diodala.

—Orain —esan zuen Doktoreak-bere osoa haren banean irentsia izan denean eta lurraren gainean soilki alboak eta anakak direnean, orduan marisorgina bere maitalez osoki jabetzen da.

—Itzela...

—Ba orain, nahi baduzu, goazen bulegora. Badakizu marigorriez nahikoa... badakizu ankerrak direla borrokan eta beren arrak jaten dituztela... ge, ge, ge... Jarri zaitetz, neska. Beste kopatxorik?

—Ez... ez, asko edan dut.

—Har ezazu.

—Ez... ez osaba.

—Harretaz hartu.

—Ondo dago.

—Ba begira Els: duela hilabete bat nire bizitzaren esperientziarik harrigarriena eduki nuen. Hemen nengoen, mahai honetan. Aldizkari bat irakurtzen niarduen, logale nengoen, bero larria zen. Arratsaldeko lauak edo lau t'erdiak ziren. Lotan hasia nengoela. Bei otoz-otoan sartu zen gelan, arinketan eta zurbil, motelki kontatuz terrazan gertatutako zerbait... Ikusiko duzu... berak kontatuko du.

Orl Doktoreak Bei bere morroiari deitu zion. Hura sartu zen. Hogeitamar urte inguruko mutila zen, erdi burusoildua jada eta gihartsua. Begirunez agurtu zuen berak.

—Jauna. Ah, hemen dago berori... Asko pozten naiz andereñoa... Arratsaldeon.

—Nola zabilta? erantzun zion Els Bri-k.

—Entzun Bei —agindu zuen Doktoreak-nahi dut nire lobarri terrazakoa kontatzea.

—Hangoa?

—Bai, bai, konta ezazu.

—Ba, begira ezazu andereñoa. Banindoa doktoreak aginduta mokolaburreko* diseatu batzuei hautsa kentzera... eta txoriak atera nituen terrazako kanpoaldera, barnean garbitzekotan laborategi osoa zikintzen nuelako. Trankil joan nintzen, terrazara atera, mokolaburrekoak terrazako mahai hutsean utzi... aurrez aurre, muturretan emakume batekin topo egin nuenean.

—Emakumerik?

—Bai, andereño. Baina ez zen beste emakumeak lakoxea, esaterako zure modukoa. Beste gauza zen. Luze eta oso liraina. Begi borobil eta handiak zituen, aurpegi hirualdetakoa. Gero besoak luzeak ziren eta eskuak besondoak bezain luzeak, atzazal izugarriekin. Eskuak besondoetan bezain luzeak, atzazal izugarriekin. Eskuak besondoetan tolestuak legez zeuzkan ikusi nuenean eta tunika berdea zeraman eta zirkinik egiteke, otoika dagoenaren antzera zegoen... Inozorena egin eta harreta handiz galdetu nion:

“madama azaldu ezaidazu hemen dagizuna”. Berak lipar batetan begiratu ninduen eta gero atzera egin, burua altzatu, hagin zorrotzak erakutsi, beso hezurtsuak, luzeak zabaldu... burdinezko atzazalak zituzten esku luze haiekin. Gero haizea sortu eta tunika berdea atzetik altzatu zitzaion eta bere gorputzaren inguruan dantzatu zuen. Bera dardaratu zen oso eta oin punttetan jarri zen, airean keinu izugarria besoekin eginez... Bitartean sugea lakoxe ufaka... Ihes egin nuen eta terrazako atea itxi.

Handik laburrera-jarraitu zuen Doktoreak-agertu zen nire aurrean mutiko haun den-dena kontatuz. Berehalakoan terrazara heldu eta luzaroan begiratu nuen. Norbera oso hurbiletik aurreratzen ez bazen, bera geldirik zegoen, besondo eta esku handiak tolestuak, otoi dagoenaren tenorean. Ikaratu, besoak zabaldu eta bafoka jartzerakoan... burua astindura elektriko baten modukoak betetzen zidala diotsut; bildurra zen. Bi egunetan eduki nuen itxia eta nire zakurra **Noli** nola jaten zuen gordinik ikusi nuen izutua.

—Baina osaba... nor zen? Zer egiten zuen hemen?

—Ez dakit —inork ez daki... inork ez du sekula ere jakingo. Nik egin behar nuena egin nuen. L. Boyt nire lagun psikiatrari deitu, hemen egon zen eta ikertu zuen, gero nire marisorginak erakutsi nizkion. Ezin izaten zuen sinetsi ikusten zuena... emakumeak marisorginaren jarrera berberak hartzen bait zituen, ohitura eta sena ere harekiko bat zirelarik.

—Eta nola amaitu zen dena? galdetu zuen Els Bri-k.

—Ba —Orlek barre egin zuen— jake zurizko lau gizon etorri eta izena “Erotetxea” zuen automobil batetan sartu zuten.

—Eta zuk nola azaltzen duzu emakume honen erokeri hain berezi hori?

—Hori psikiatrek berek ere ez dakite. Gutun hau L. Boyt-ena duzu. Irakurri egizu:

“Orl Doktore estimatua:

Hartu nuen zure oharra, emakume arraroaz jakin nahian. Berrikitan bota genuen osategitik erozain bat “andre marisorgin”az gozatu nahi eta berak onartu eta gero... baina jarraian ia desegin zuen haginkadaz... “marisorgin”aren beste berezitasuna ez al da hau, Orl laguna? Oraino ez naiz iritsi ero honen interpretazio batera. Kasua zaila da, eta are zailagoa egiten du bera erabat mutu izateak. Ene lagun, nire azterketen berri emango dizut.

Besterik gabe agurtzen zaitu “z.z.-k, L. Boyt.”

Berak ez zuen hitzik egin, morroiak ez zuen berbarik esan eta irakasleak ere ez. Azkenean Els-ek esan zuen:

—Ondo, eta zuk zer diozu guzti honi buruz, osaba?

—Ba esatekorik badut zuretzat “ex profesoa” asmatuiko fantasia bat —Orl Doktoreak barre egin zuen— eta badakit atsegingo zaizula. Izadia misterio hutsa da. Ni eboluzionista naiz eta badakit gizona bere egungo mailara igo zela insektuen egoera baina beheragokoak diren estatuetatik... Irudi ezazu emakume bihurtuko litzatekeen marisorgin bat, izugarritzko borondate gainditze baten bidez, urrats batetan emakume izatera pasatuko litzatekeena. Ge, ge, ge...

—Ederki! baina... L.Boyt-ek eta besteek ero arrunta dela esango dute eta erokeri berria asmatuko dute “entomokeria” edo antzeko zerbait. Penagarria! baina historia izugarria da, alabaina, osaba!

Els Bri-k bere figura luze eta armonikoa jaso zuen. Orl Doktoreak pipa piztu zuen. Bei-k ez zuen bere begirunezko joera aldatu eta joan egin zen. Eguzkia, ortzadarra odolez tintatuz, hiltzen zihoan. Gero Els etxera joan zen, Bei-k bere lanean jarraitu zuen eta irakaslea bakarrik gelditu zen, kirkil baten hegatsaren idazkera misteriotsuari begiratzen ziola.

*conirostros (moko laburreko txori mota) jatorrizko testuan.



LOTOLORE BIKAINAREN
MONASTEGIA



*XVII mendeko
Txinatar anonimoa*

Itzultzailea:

KARLOS SANTISTEBAN

Betiereko Garbitasunaren hirian Lotolore Bikainari eskeinitako monastegi handia zegoen. Ehundaka gela zituen eta zenbait mila hektareatan zabaltzen zen. Erlikia ezagun bat zuenez oso aberatsa zen.

Monastegian ehunen bat bonzo bizi zen ezti mamitan, eta bisitariei harrera beroa egiten zieten beti, tea eta goxokiak hartzera gonbidatuz. Tenpluan Hurren Kapera delakoa zegoen, oso ospetsua bertute mirakulutsu bat omen zuelako: haurdun gelditu nahi zuten emakumeek bertan intsentsua erretzen gaua emanez gero, lortu egingo zuten.

Areto nagusiaren inguruan zenbait gela zegoen. Haurdun gelditu nahi zuten emakumeek, horretarako sasoi egokian egon behar zuten eta edozein gaixotasunetatik libre. Zazpi eguneko baraua egin ohi zuten eta gero tenplura sartzen ziren Foren aurrean makurtu eta iragarpen-makiltxoak begiratzera. Seinaleak aldekoak baziren, gau oso bat ematen zuten bakarka giltzapeturik geletariko batetan, otoitz egiten. Seinaleak kontrakoak baziren, otoitzak zinezkoak ez zirelako zen, eta orduan zazpi eguneko barauari ekin behar zioten berriro otoitzetan hasi aurretik. Geletan ez zegoen inolako irekidurarik hormetan eta emakume penitentea gela batetara joaten zenean senideek lagundu ohi zuten. Gaua heldu orduko, gelan gelditzen zen giltzapetuta eta bonzoek senideren batek gaua gelako ate aurrean eman zezala eskatzen zuten, emakumeak inoren bisitarik ez zuela jasotzen ziurtatzeko. Emakumea bere etxera itzultzen zenean, haurra eraturik zegoen. Beti pottolo eta eder jaiotzen ziren, inolako akatsik gabe.

Funtzionari publikoak nahiz jende arrunta izan, etxe guztiek bidaltzen zuten emakumeren bat Haurren Kaperara otoitz egitera. Eta probintzietatik bertatik heltzen ziren ere.

Egunero monastegia mendien edo itsasoaren tamainako jendetzak betetzen zuen, eta tokian zurrumurrurik ezberdinenak zeuden. Emakumeei gauean P'u-sak nola egin zuen haien nahia betetzeko galdetzen zitzaizkion, batzuk Fok ametsetan haurra izango zutela besterik ez ziela esan erantzuten zuten. Beste batzuk lo-an bat heldu eta beren ondoan oheratzen zela amestu izan zutela esaten zuten. Ametsik ez zutela izan esan zuten beste batzuk. Eta baziren aurpegia gorritu eta erantzuteari uko egiten ziotenak ere. Zenbait emakumek ez zituen berriro errepikatzen otoitz haiek; beste zenbait aldiz, ahal zuen guztietan joaten zen tenplura.

Gauero Pu-sa eta Fo monastegira joaten zireneko istorio honek funtsik ez duela esango

didazue agian. Kontutan hartu behar da aldiz eskualde hartako jendeak gehiago sinesten zuela aztiengan sendagileengan baino, eta ez zekiela aizuna eta benetako bereizten. Ondorioz, beren emazteak tenplura bidaltzen jarraitzen zuten denek.

Itxuraz hain gizabidetsuak eta zuzenak ziren bonzo haiek, barrutik haragikoi hutsak ziren.

Gelak itxita omen zeuden arren, egia esan ezkutuko atea zeukaten denek. Emakumeak sakon lo eginda zeudenean, bonzoak ixilpean sartzen ziren geletara eta biktimak esnatu orduko beluegi zen. Protesta egiteko gogoia zutenak ixildu egiten ziren beren izena garbi gordetzeko.

Emakumeak gazte eta osasuntsuak ziren; bonzoak indartsu eta kementsuak. Gainera, bonzoek zenbait pilula ematen zizkieten beren bisitariari. Honenbestez, oso arraroa zen otoitzak entzunak ez izatea. Emakume zuzenek nahiago zuketena hil senarrari egia aitortu baino, eta gainontzekoei dagokinean, ixil-ixil gelditzen ziren berriro errepikatu ahal izateko.

Horrelaxe zeuden gauzak eskualde hartarako Gobernari berri Wang jauna izendatu zutenean.

Bere karguaz jabetu eta berehala, Lotolore Bikainaren monastegiaren aipua jaso zuen eta honela hausnartu zuen:

“Tartean Fo eta P'u-sa badaude, nahikoa izan beharko luke otoitz egiteak. Zertarako, bada, joan behar dute haraino emakumeek eta tenpluan gaua igaro? Azpikeriaren bat dago hor”.

Frogatik gabe ezin zuen ezer egin aldiz; beraz bederatzigarren hilabeteko bederatzigarren eguzkia arte itxaron zuen, orduan jai handia egingo zelako tenpluan, eta bertara joan zen eta jendetzarekin nahastu.

Ate nagusitik igaro eta gero, ehundaka urteko arkazi eta pinuen azpira heldu zen. Aurrez-aurre tenplua zegoen, gorribiziz margotua. Ohol batetan hurrengoia zegoen, idatzia: “Lotolore Bikainaren Atsedan-Monastegia”. Ezker-eskuin zenbait pabeloi zegoen, zeinetan hainbat bisitari

sartu-irten egiten baitzen.

Gobernaria ikusi zuen lehen bonzoa lasterka abiatu zen bere lagunei jakineraztera. Wang jauna geldierazten saiatu zen, baina alde egin zion eta laster kanpaiek eta danborrek jo zuten haren ohorez, eta monjeak, bi lerrotan jarririk, aurretik igarotzen zenean makurtu egiten zitzaizkion.

Tenplura sartu zen eta zenbait intsentsu-zotz erre zituen. Ondoren monje buruak gurkera bat eginez harrera-aretoa joan eta atsedean har zezan eskatu zion. Tea zerbitzatu zuten. Gero, bere benetako asmoa ezkutatu, zera esan zuen Gobernariak:

—Atsedeenleku saindu honek duen izen onaren berri izan dut eta Enperadoreari eskatuko diot ohorezko ohol bat eman diezazuela, bonzo guztien izenak inskribatzeko.

Jakina, monje burua makurtu egin zen eskerrona agerteko, baina Gobernariak jarraitu zuen:

—Kapera mirakulutsu baten entzutea izan dut ere. Egia da kontatzen dutena? Nola egiten dira otoitzak bertan?

Monje buruak ezbaierik gabe kontatu zion baraualdia zazpi eguneko zela; baina emakumeen nahia eta haien otoitzak hain benetakoak ziren non eskaerak jeneralean monastegian igarotzen zuten gauean betetzen baitziren.

Gobernariak, gizabidea gordetzeko zer neurri hartzen zuten galdetu zuen, eta besteak geletarako sarrera bakarria atea zela eta beronen aurrean beti zegoela gauean senideren bat azaldu zion.

—Honela bada —esan zuen bisitariak— emaztea ekarriko dut hona.

—Benetan haur bat izatea nahi baduzu, nahikoa da biok zuen jauregian zinez otoitz egin diezazuela, eta mirakulua beteko da— ziurtatu zion berehala monje buruak, agintariak arazoan sartuta egotearen beldur zelako.

—Beraz, zergatik etorri behar dute hona jende

arruntaren emazteek nireak horren beharrik ez badu?

—Ez al zara zu gure doktrinaren babeslea? Ez da normala beraz izpirituek zure otoitzei arreta berezia egitea? —erantzun zion bonzo maltzurak.

—Honelaxe izan behar luke —baiezatu zuen Wangek—. Baina kapera ospetsu hori ikusi nahi nuke, mesedez.

Aretoa emakumez beterik zegoen. Kwan-jinen irudia lepoko brodatuez jantzia zegoen. Haur bat zeukan besoetan eta beste lauzpabostek tunikatik eusten zioten. Aldarea eta hormak opariz estalita zeuden, abarketa brodatuez gehienbat. Argimutiletako besoetan ezin konta ahala kandela zegoen. Barneluzego handia intsentsu-keak betetzen zuen. Ezkerraldean seme-alabak hornitzen dituen Txang hilezkorra zegoen. Eskuinaldean “Biziraupen Luzearen Izarreko Funtzionaria”.

Wangek gurkera bat egin zuen Jainkosaren aurrean. Gero penitenteen gelak ikustera joan zen. Sabaiak lorez margoturik zeuden eta behea eta oheak tapizek estaltzen zituzten; mahaiaik eta aulkiak garbi-garbi zeuden.

Arreta handiz aztertu zituen gelak toki guztietatik eta ez zuen ezer erroririk aurkitu. Ez sagurik ez txinurririk sar zitekeen bertara. Txunditurik irten zen handik eta, ohizko zere-monien ondoren, alde egin zuen monastegitik, bonzoek ateraino lagundurik.

Atsotitzak dioenez *eskuinera pentsatuz eta ezkerrera batzirrikatuz*, Gobernariari egitasmo bat otu zitzaion bat batean. Jauregira heldu zen bezain pronto, bere idazkariari hots egin zion eta zera esan:

—Zoaz eta ekar diezazkizazu bi emagaldut, emakume onestuen arropaz jantzirik. Emaiozu batari kutxatila bat tinta beltz eta besteari gorribizia, eta gero monastegira bidal itzazu gaua ematera. Norbait hurbiltzen bazaie, marka diezaiotela burua gorritz edo beltzez. Ni neu jo-

ango naiz bihar zer gertatzen den ikustera. Eta, batez ere, hau guztia ezkutuan geldidadila.

Idazkaria ziztuan irten zen, ezagutzen zituen bi urdangaren bila. Batari Mei-txieh zeritzon eta besteari Wan-ehr. Etxera eraman, Gobernariaren aginduak azaldu zizkien eta arropa dotorez jantzi zituen. Itxurazko bi penitenteak angaila banatan jarriarik, monastegirantz abiatu ziren. Idazkariak beren geletan utzi zituen emakumeak eta alde egin zuen.

Joan eta gero, monje sarberri batek tea eraman zien egun hartako bisitariari. Hamar baino gehiago baziren: nork susma zezakeen ezer bi heldu berriei buruz?

Lehenengo beilaren ordua jo zuenean, logela guztiak giltzaz itxi zituzten. Emakumeen senideak nor bere atearan aurrean jarri ziren. Bonzoak beren geletan giltzapetu ziren.

Mei-txiehk, bakarrik egon zenean, tinta gorribizia zeukan kutxatila burkoaren ondoan jarri zuen, erantzi eta etzan egin zen. Baina, bere zereginaz oldoiztuz, ezin lorik hartu eta oheko gortinen artetik etengabe zelatan zegoen.

Bigarren beilaren ordua jo zuen. Toki guztietan amatatu ziren giza-izatearen hotsak eta dena ixilik gelditu zen. Bat batean honako zarata entzun zuen behearen azpian: ko-ko. Ohean zutitu zen, arratoi bat zelakoan, eta behe-zati bat alde batera irristatzen zela ikusi zuen. Buru soil bat agertu zen eta ondoren gorputz guztia. Bonzo bat zen eta Mei-txiehk hurrengo pentsatu zuen harriturik: "beraz monje trankarti hauek emakume onestuak laidoztatzen ari dira". Baina ez zen mugitu. Bonzoak eskuargia itzali zuen, ohera hurbildu zen eta bere tunika botaz oihaletik irristatu zen.

Mei-txiehk lo egitearen plantak egin zituen. Bonzoak hanka bat albo batetara eramaten ziola senti zuen eta orduan esnatzearena egin zuen, hau zioela:

—Nor zara gauez laidoztatzerazatozen hori?

Bultzada batez bazterrerazi zuen, baina

bonzoak besoetatik hartuz besarkatu zuen, zera xuxurlatuz:

—Lo-han bat naiz, urrezko gorputza daukat eta zuri haur bat ematera etorri naiz.

Hitz egiten zuen bitartean, bere zolitasunaren arabera aritzen zen. Esan beharra dago bonzo guztiek ulerpide handia dutela hodei eta eurien kontuetan, eta hau gizontasun kementsuaz hornituriak zegoela. Mei-txiehk eskarmentu handia zuen arren ezin izan zion aurka egin eta, luzera, zinkuriak ixiltzeko lanak izan zituen ere. Dena dela, bonzoa zirraren goreneko unera heltzen zen liparra aprobetxatuz, hatzak kutxatilan sartu zituen eta burua markatu zion. Alde baten ondoren, bonzoa ohetik jaitsi zen, emakumeari fardeltxo bat utziz, hurrengo ziotzola:

—Pilula hauen laguntzaz zure otoitzak bete egingo dira. Egunero ur beroaz hartzen badituzu haur bat izango duzu.

Gorputza nekatu, Mei-txiehk begiak itxi zituen bezain pronto beste ukipen batek iratzarri zuen eta, bonzo bera itzulia zela usterik, hau esan zion harriturik:

—Nola? Ni honen nekatua nagoela zu berriro itzultzeko gauza zara?

Baina bonzoak berehala erantzun zion:

—Oker zaude. Oraintxe heldu naiz eta oraindik ez duzu dastatu neure kontsolamenduan zaporea.

—Baina, nekatuta nago...

—Har ezazu pilula hauetariko bat bada...

Eta fardeltxo bat eskaini zion. Emakumeak pozoina izan zitekeela pentsatu zuen ordea eta ohe gainean jarri zuen, aldi berean hatzak tinta gorribizia zuen kutxatilan sartuz, helduberriaren burua zipriztintzeko.

Hau aurrekoa baino kementsuagoa izan zen eta ez zen lasaitu oilarraren kukurrukua arte.

Goizaldean beste bonzo bat agertu zen eta honela hitz egin zion aurrekoari:



—Aseturik egon behar duzu honez gero. Ez al da nire txanda helduko?

Lehenengo bonzoak barre egin zuen hozartean, baina jaiki eta joan egin zen. Orduan bestea ohera sartu eta, poliki-poliki, Mei-txiehren gorputz guztia laztatzen hasi zen.

Emakumeak irentsi behar izan zuen pilula sartu zion ahora. Ahotik sudurretik sartu zitzaion lurrina altxa zen eta hezurak urtzen zitzaizkiola senti zuen, gorputz guztia beroska samurrean murgilduz.

Baina bere plazerraz pentsaturik ere, Meixiehk ez zituen ahaztu Gobernariaren aginduak. Eta bisitari honen burua markatu zuen ere, hau zioela:

—Hau bai buru distiratsua!

Bonzoak barre egin zuen.

—Zirrara samur eta xeratsuez beterik nago. Ez naiz zure herriko gizon truskilak bezalakoa. Zatoz maiz ikustera.

Eta alde egin zuen.

Bitartean, Gobernaria boskarren beilarekin batera irten zen bere egoitzatik, eguna argitu aurretik, kateak eta eskuburdinak zeramatzen ehun gizonek lagunduta.

Oraindik itxita zegoen monastegiko atera heldu zenean, segizioko gehienei ezkuta zitezela agindu zien eta berarekin hamarren bat gizon baizik ez ziren gelditu. Idazkariak atean jo zuen, Gobernaria bertan zegoela eta sartu nahi zuela oihukatuz.

Oihua entzun zuten lehen bonzoak arin jantzi ziren bisitariari harrera egiteko. Baina Wang Jauna, haien gurrerei jaramonik egiteke, monje buruaren gelara abiatu zen. Jantzirik zegoen eta ongi etorriaren erritualari hasiera emateko gertu. Gobernariak aldiz, bonzoak bil zitzala eta komentuko erregistroa erakutsi ziezaiola agindu zion zorrozki.

Apur bat asaldaturik, monje buruak kanpaiak eta danborrak jotzeko agindua eman zuen eta

bonzoak, lotatik aterata, lasterka abiatu ziren haraino multzoka. Erregistroan zeuden izenen zerrenda irakurri eta gero, Gobernariak bonetak ken zitzatela agindu zien monje harrituei.

Goizeko argi betean kolore gorribiziz markaturiko hiru buru zegoela ageri zen. Baina, miraria!, tinta beltzez seinalaturiko buruak gutxienez hamaika baziren.

—Honez gero ez nau harritzen otoitzek hainbesteko arrakasta izatea —murmurikatu zuen idazkariak—. Egia esan monje hauek biziki ahalegintzen dira beren lanean.

Wang jaunak errudunak seinalatu zituen eta katea zitzatela agindu zuen, hau galdetzen zietela:

—Nondik datoz seinale gorri eta beltz horiek?

Baina monje txundituek elkarri begiratzen zioten zer erantzun jakiteke.

Bitartean, idazkaria Haurren Kaperara joan zen eta, oihuka, bi emagalduek jaikierazi zituen, lozorro goxotik iratzarritz.

Emakumeak arin baino arinago jantzi ziren eta Gobernariaren aurrean belaunikatu ziren.

—Zer ikusi duzue gaueon? Esan ezazue egia osoa —agindu zien.

Emandako zeregina betetzea onartu zuten, emakumeek gaueko gertaeren errelatu zehatza egin zuten, bonzoek eman zizkieten pilulak eta tinta gorribizi eta beltzaren kutxatila erakutsiz.

Bonzoek, gibela irten eta bihotza gelditzen zitzaiela senti zuten. Negar egin zuten etsiturik, errudunek kopetaz behean joka barkamena eskatzen zuten bitartean.

—Haratustel zikinok! Ergelak engainatzeko eta bertutetsuak laidoztatzeko Jainkoez baliatzen ausartzen zarete? Zer daukazue zuen alde esateko?

Baina monje buruak plan bat bilbatu zuen. Bonzo guztiei belaunika zitezela agindu zien eta hauxe esan zuen:

—Kondenatu dituzun horiek ez dute atxakirik, baina gainontzeko monjeak garbiak dira. Erru-

dunen lotsa aurkitu duzu eta heriotza baizik ez dute merezi.

Gobernariak barre egin zuen:

—Emakume hauek egon ziren gelez gain ez dago ezkutuko sarrerarik duen gehiagorik?

—Bi horiek besterik ez —erantzun zuen monje buruak, lotsarik gabe.

—Gainontzeko emakumeei galdetuko diegu eta gero ikusiko dugu zer egin.

Hainbeste zarataz esnatu ziren bisitariak, banan-banan joan ziren aitortzera. Denak bat etorri ziren: ez zuen ezein bonzok haien loa durduzatu. Baina Gobernariak bazekien lotsak hitz egitea galerazten ziela eta, beraz, arakatzeko agindu zuen. Emakume bakoitzaren sakelan fardeltxo bana pilula aurkitu zuten. Pilula haiek nondik atera zituzten galdetu zien emakumeei, baina hauek ixilik egon ziren.

Bitartean penitenteen senarrak heldu ziren. Haserreak zuhaitz bateteko hostoen modura dardarazi zituen. Arazoa urrunegi eraman nahi ez zuen Gobernariak bisitariari joateko baimena eman zienean, senarrek gaitzidurari eutsi eta emazteekin batera joan ziren.

Monje buruak oraindik ez zuen amorerik eman. Pilulak monastegira sartzen zirenean ematen zizkietela emakumeei esan zuen. Baina bi urdangek berriro baieztatu zuten haiek bonzoen bisitaldietan jaso zituztela.

—Arazoa argi dago —esan zuen azkenik Gobernariak—. Katea itzazue adultero horiek!

Bonzoak jarki egingo ziren gogoz, baina ez zuten armarik eta gutxiago ziren kopuruz. Aske gelditu ziren bakarrak intsentsua pizten zuen agure bat eta oraindik haurtzaroan zeuden hasberri txiki bi izan ziren.

Monastegiko atea itxi zuten eta soldadu bat utzi zuten zaintzeko. Bere jauregira itzuli zenean, Gobernaria bere eserlekuan jezarri zen Justizia Aretoan eta presoak ohizko moduan interroga zitzatela agindu zuen. Min eta oinazeak sorte-

razten zien beldurrak mihia eskatu zien eta heriotz zigorra jaso zuten denek. Zigorraren baieztapena itxaroten zen bitartean gartzelara eraman zituzten.

Gartzelako arduradura lokarriak aztertzeko erronda egiten ari zen batetan, monje buruak hurrengo xuxurlatu zion belarrira:

—Ez dugu ezer ekarri, ez jantzirik, ez janaririk.

Hiruzpalau ekarri, ez jantzirik, ez janaririk.

Hiruzpalau monjerekin monastegira joateko baimena ematen badidazu, zilarrezko ehun ontza emango dizkizut gogoz.

Presondegiko arduradunak bazuen monastegiko aberastasunen berri. Barre egin eta esan zuen:

—Ehun ontza niretzat eta berrehun nire gizonentzat.

Monje buruak keinu bat egin zuen, baina kopuru askoz handiago hau prometitu behar izan zuen. Zaintzaileek elkarri galdetu zioten eta finean, gaua heldu zenean, monje burua eta hiru bonzo gehiago eraman zituzten monastegiraino. Geletan zegoen ezkutuko toki batetatik monjeek prometituriko hirurehun ontzak atera eta zaintzaileei eman zizkieten. Pisatzen eta banatzen zituzten bitartean, gainerako altxorak hartu zituzten eta zenbait arma eraman zituzten ezkutuan: dagak eta aiztoak. Ardoa eraman zuten ere. Honela zamaturik, zaintzaileak eta monjeak batera heldu ziren gartzelara eta jai bat antolatu zuten. Bonzoek zaintzaileak mozkor zitezela lortu zuten. Gauerdian, armak atera zituzten eta, elkarri kateak kendurik, ateak bortxaz ireki zituzten. Agian alde egitea lor zezaketen, baina Gobernaria hainbeste gorrotatzen zutenez, haren jauregia erasotzera abiatu ziren lehenbizikoz. Polizia indarrak ugariak ziren eta ongi armatuak, eta bonzoak arin meneratu zituzten.

Monje buruak bere gizona gartzelara lehenbaitlehen itzuli eta, armak utzirik, matxinatuak bakar batzu besterik ez zirela izan esateko agindu zien, honela gainerakoak salbatu ahal

zitezen, baina zaintzaileek hain sutsuki salatu zituztenez berriro denak kateatu zituzten.

Krimen berriaz gain matxinada egin zuten.

Biharamunean, Eguzkia goian zegoenean, Gobernariak epaia eman zuen. Ehun eta hamabi monjeak artez eraman zituzten merkatuko plazara eta bertan lepoa moztu zieten denei.

Zuziz hornituriko gizon taldeak monastegira joan ziren eta su eman, laster errauts bihurtuta gelditu zelaririk.

Hiri hartako gizon guztien aurpegietan nabaria zen alaitasuna, baina emakume askok negar egin omen zuen ezkutuan...



ITZULPENAK

1

poema



SAN JUAN DE LA CRUZ (1542-1591)

Cántico Espiritual

Itzultzaileak:

GAZTELU, ORIXE, SANTI ONAINDIA

ETA LINO AKESOLO



Hona hemen poema bat eta lau itzulpen. Joanes Gurutzekoak merezi zuen bere heriotzaren laugarren mendeurrenean oroitzapen bat karmeldarraren jarraitzaileon partetik, berea baita kritikari aunitzenez erdal poesiagintzako gailurrik handien, goren eta bikainenetakoa.

Bidenabar joan bedi lerro hauen bitartez Lino Akesolorentzat gure azken-agurrik samurrena cuskal literaturaren alde burutu duen lan eskergaitzagatik.

Juan [J.]
CÁNTICO ESPIRITUAL
Canciones entre el alma y el Esposo

Esposa

1. ¿A dónde te escondiste,
 Amado, y me dejaste con gemido?
 Como el ciervo huíste,
 habiéndome herido;
 salí tras ti clamando, y eras ido.

2. Pastores los que fuerdes
 allá por las majadas al otero,
 si por ventura vierdes
 aquel que yo más quiero,
 decidle que adolezco, peno y muero.

3. Buscando mis amores,
 iré por esos montes y riberas,
 ni cogeré las flores,
 ni temeré las fieras,
 y pasaré los fuertes y fronteras.

4. ¡Oh bosques y espesuras,
 plantadas por la mano del Amado!
 ¡Oh prado de verduras,
 de flores esmaltado,
 decid si por vosotros ha pasado!

Gaztelu [G.]
MAITE KANTAK
*Kristo eta Anima ezkontideen
 alkar arteko olesak*

Emazteak

Nora zaitut kuku,
 Maitea, ni emen lagaz intziri?
 Zauri nuzu-ta, ba zoaz
 oreña bezela nigandik;
 oiuz narraizu, eta Zū igesi.

Arditegitik larrera
 ibilli zabilzten artzai oriek,
 baldin nere maitena
 badakuszue, gaixo
 nagola esan, miñez, il-urren.

Ibar-mendi gaindik
 nere maiten billa joanen,
 eztut lore biltzerik,
 basa-piztiez ez izu,
 gaztelu ta muga iraganen.

Oi baso eta itzalpe,
 Maiteak eskuz landuak naro,
 oi zelai ori-urdin,
 lore pinpiñaz bitxi,
 esan zuetatik al dan igaro!

Erkaketaren gora-beherak eta xehetasunak irakurri nahi dituenak jo beza lan honetara:

J. Urkiza, P. Altuna, X. Mendiguren; «Joan Gurutzekoaren «Cántico espiritual» euskaraz: erkaketa eta kritika». *Karmel*, 1491 Loiolako Inazio-Joan Gurutzekoak 1591. Uztaila-Abendua 1990, 3/4, 439-475.

Dena den espero dugu euskal idazle edonork bertso hauek irakurtzerakoan eta dastatzerakoan bere ondorio propioak atera ditzan.

P. U.

Orixe [O.]
JAINKORAKO MAITE-LELOA

Santi Onaindia [S.O.]
BARNE-KANTA

Lino Akesolo [L.A.]

Anima

Non zaude kuku, Maite?
Emen nuzu mingulin.
Oreiñak antzo, iota
nadukazu maitemin.
Atzetik oska nuzu,
ta Zuk neri aldegin.

Sarobitik muñora
ardien zai oana,
baldiñ ikusten ba'duk
nik maitteen dudana,
esaioiok nola nagon
min, illun, ill-urrana!

Zure billa niazu,
piztien bildur gabe
ez loreak biltzera,
mendira, ibarrera
arresi ta gaztelu
bizkor igarotzera.

Oi nere Maite orrek
landa zaituten oian
eta baso itsuak,
esaidazute, esan,
belardi loretsuak,
emendik igaro dan!

Emazteak

Nora jun zara, Maite,
ni emen lagarik min-garrasika?
Orein antzera zoaz
iges ni zauriturik;
emen nozu deiez, ta Zu gordeka.

Artzaiñak, larre-bidez
ortik bait-zoaze muñioan zear,
nik maitteen dodan A
baldin ba'dakuzue,
aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Maitasunaren billa
mendi-aran orreik zear noake;
ez dot loraik artuko,
ez ni piztien bildur,
zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Oi, baso ta leku itsu,
Maiteak jarriak eskuz emaro!
Oi, lorez jositako
barazki-zelai musker,
esan zuetatik danez igaro!

Emazteak

Non zara, Maite, ostendu
olan nozula izten zotifñez?
Oreina lez zara aldendu,
ni jo ondoren maitemifñez;
deika atzean ni... eta zuk iñes!

Artzaiok, zuen zortea
balitz larrez lar or zabiltzela
ene Maitea aurkitzea,
esaiozue onela:
Eri ta miñez ilten nauela.

Maitea non idoroko
mendi ta ibar naz billa joango;
ez dot lorarik jasoko,
ez pizti-izurik izango,
ta arresi ta mugak iragango.

Itauna gizakiei

Zuok, baso eta abaro,
Maiteak bere eskuz jarriok;
zuok, lorez txit oparo
iñaurritako zelaiok;
esan or zear al dan igaro.

[J.]

Las criaturas

5. Mil gracias derramando
pasó por estos sotos con presura,
y yéndolos mirando,
con sola su figura
vestidos los dejó de hermosura.

Esposa

6. ¡Ay!, ¿quién podrá sanarme?
Acaba de entregarte ya de vero.
No quieras enviarme
de hoy más ya mensajero,
que no saben decirme lo que quiero.
7. Y todos cuantos vagan
de ti me van mil gracias refiriendo,
y todos más me llagan,
y déjame muriendo
un no sé qué que quedan balbuciendo.
8. Mas, ¿cómo perseveras,
oh vida, no viviendo donde vives,
y haciendo porque mueras
las flechas que recibes
de lo que del Amado en ti concibes?
9. ¿Por qué, pues has llegado
a aqueste corazón, no le sanaste?
Y pues que lo has robado,
¿por qué así le dejaste,
y no tomas el robo que robaste?
10. Apaga mis enojos
pues que ninguno basta a deshacellos,
y véante mis ojos,
pues eres lumbre dellos,
y sólo para ti quiero tenellos.

[G.]

Izakiak

Amaika eder-jario
zailu joan da zuazti otatik,
eta begira zoala
aren itxuraz utsez
bai eder utzi ere jantzirik.

Emazteak

Ai, zerk senda nazake?
Egizu noizpait neregana!
Etzaidazu gaurgero
mandataririk bidali,
eztakiteta nik nai dudana.

Or dabilzkit denak
zure ainbat ederren goresle,
eta naukate minbera;
il-urran ere nagozu
zer zeraz ari dirala zezele.

Baña nola dirauk,
bizia, euregan bizi ezik,
Maiteaz gogoratzez
datozkikan gezitan
il-bizian agola errerik?

Biotz au zaurtu eta,
nola eztutu senda nai izan?
Ostu izanik, nola
uzten duzu onela,
ta ostu duzuna ez eraman?

Itzali nere kezka,
ezer ez baitu aringarri!
Zakuszatela begiok,
auen argi bai zera:
Zuretzat bakar nai ditut ekarri.

[O.]

Izakiak

Ariñ igaro zaigu
zoramen dariola,
ta begiratzuz utsez,
gu ikusiz doala,
daukan edertasunez
apaindu gaitu ola.

Anima

Ai, nork senda nazake!
eman zakit egitan!
Ez ibili geiago
neri mandaritan,
ez dakite mintzatzen
nik nai nuken neurritan!

Andik emendik, Zure
zoramen esanekin
zauritzenago naute
eziñ-esanarekin:
iltzear nadukate
bar-bar total orrekin!

Zelan bizirik iraun
ez-leku ontan biziz,
eta maite-geziak
amuts geldieraziz,
Arek egin-ukitu
guziak illeraziz?

Zauritu baitidazu
biotz au, esaidazu,
ez al duzu sendatzen?
Lapurtu ba'didazu,
orrelan utzi bage
lapurtu au ar zazu!

Arren, begion argi,
ez eduki mingarri
nereok, senda itzezu
zaitzaten ikusgarri,
Zutzat bakarrarentzat
nahi ditut ekarri!

[S.O.]

Izakiak

Milla eder-jarioz
arin igaro zan ibar otatik,
ta begiratu soillez,
bere itxuraz bakarrik,
guztia itxi euskun eder jantzirik.

Emazteak

Ai, nok osa nagike!
Onezkero neure zaitetz, egitik.
Ez egidazu igorri
gaurgero geznairirik
nik naia esaten ez dakidanik.

Bai, or-an dabiltzanak
milla zoragarri Zutaz diñostez:
danak zauritzenago,
ta il-urren naukie
itz erdizko esan-ezin motelez.

Baiña zelan dirauzu,
bizi, zagozanez ezin bizirik,
ta il-bearrez ba'daustazu,
zergatik olan itxi,
zergaitik ez dozu lapurtua artzen?

Zauritu bait-daustazu,
biotz au zelan ez dozu osatzen?
Ta ostu ba'daustazu,
zergatik olan itxi,
zergaitik ez dozu lapurtua artzen?

Ito nere sumiña,
au itzaltzeko beste ezpaita nainor;
zakusela begiok,
euron argi bait-zara,
ta Zutzat soilki nai ditut izan zor.

[L.A.]

Izakien erantzuna

Ederrak eder ereiñez
txara otatik joian lasterrez
eta euroi so egiñez
bere irudi uts bakarrez
jantzirik ditu itxi ederrez.

Emazteak

Oi, nork osatu naike ni?
Emon zakidaz Zu Zeu bein baten.
Ordainik ez bial eni,
ez dakie eta asmaten
gogoko dodan ezer esaten.

Guztiak niri or doaz
millaka eder Zutaz kontaten.
Eta zauri barri joaz
il-ainik nabe lagaten
total deustenez esan-mesaten.

Zelan bizirik dirauzu,
zeugan bizi ez baldin bazera,
ta gezi ilgarri badozu
len Maiteaz zeuk atera
edo dakizun guztia bera?

Zelan biotz zeuk baitu au
zauritu ta ez dozu osatzen?
Zelan zeuk ostu dozun au ez dozu
Zeutzat eskatzen
ta bein ostu au zeureganatzen?

Ixildu nire antziok,
Zeuk bestek ori ezin dau-eta;
asetu nire begiok,
euron argi zaitue-ta;
Zeu besterik ez dabe nai-eta.

[J.]

11. Descubre tu presencia,
y máteme tu vista y hermosura;
mira que la dolencia
de amor, que no se cura
sino con la presencia y figura.
12. ¡Oh cristalina fuente,
si en esos tus semblantes plateados
formases de repente
los ojos deseados
que tengo en mis entrañas dibujados!
13. ¡Apártalos, Amado,
que voy de vuelo!

Esposo

Vuélvete, paloma,
que el ciervo vulnerado
por el otero asoma
al aire de tu vuelo, y fresco toma.

Esposa

14. Mi Amado, las montañas,
los valles solitarios nemorosos,
las ínsulas extrañas,
los ríos sonoros,
el silbo de los aires amorosos;
15. La noche sosegada
en par de los levantes de la aurora,
la música callada,
la soledad sonora,
la cena que recrea y enamora.

[G.]

Ager zakit beingoan,
il nadi zure ederra ikustez;
ain zuzen maitemifiak
ez baitu sendatzerik
begiz begi ikustez bestez.

Oi iturri gardena,
zure zillar-azpegi oietan,
barnean irarririk
dauzkatan begiñoak
erakuts bazenetza bepetan!

Ken itzazu, Maitea,
egan noa-ta.

Senarrak

Zatoz, usoa,
ara muñoa gaindik
zure egal-aizetan
zauriz oreña, t'atsartuz dagoa.

Emazteak

Nere Maitea mendi,
zelaigune bakar, oiantsu,
urrutiko izaro,
ibai durundatsu,
aize ez tien arnas-xistu;

gauaro izar lorea,
goizalde bitartera danean,
murmurika ixilla,
bakartasun ozena,
apari pozgarri maitasarrean.

[O.]

Maitemiña sendatzen
ba-dakit neke dala;
aurpegi eder ori
agertu dakidala!
Zu begiz ikusteak
eriaz il nazala!

Oi iturri gardenal
zillar-leiar orretan
agertuko ba'lira
nik nere erraietan
irarririk dauzkadan
begi oiek bet-betan!

Ken, Maite! Ba-niazu
egan

Kristo

Itzul, usoa,
orein zauritu onek
gainduko du muñoa.
Zure egal oietatik
arturik otzaroa!

Anima

Nere maitea!: baso,
zelai gorde, oiantsu,
urrutiko izaro,
erreka txurrutatsu,
aize maiteen xixtu:
ori ta are zera Zu.

Gau ixil paketsua,
goiz-argitik urbilla,
bakardi ozenean,
musikaren ixilla,
maitasuna dakarren
apari zuzpergilla!

[S.O.]

Erakuts betartea,
ta il nagizu zeure zizta ederrez;
maite-miña ziurki
ez dau ezerk osatzen
itxurak ezik ta begiz ikustez.

Oi, iturri leiar bizi,
zeure zidarrezko nini orreitan
nik muiñean josirik
daukadazan begiak
ñirñir ba'zeuskidaz dardar gozotan!

Ken egistazuz. Maite,
egazka noa-ta.

Senarrak

Biur, usoa;
or orein zauritua
zure egaizez da ageri
muiño-gain, eder daua otz-aroa.

Emazteak

Oi, ene Maite!, baso,
ibar-arte, zelai bakar oiantsu,
oi ez lakoxe ugarte,
erreka soiñulari,
aize bigunaren maitezko txistu.

Gauaro ixil baketsu,
argi-nabarretik ur danekoa,
musika-ots ixilla,
bakar-leku ozena,
apari eder maite-min eztizkoa.

[L.A.]

Arren, zakidaz ageri,
il nadin Zure ederra ikusita;
maitasunez dana eri
Maitea aurean eukita
bestela ezin dozu bizi-ta.

Iturri leiarrezkoak:
ai, zuen zidar-ispilluetan
Aren begi ain gozoak
banekusaz nik berpetan,
tint markatuak nire erraietan!

Ai, begiok ein albora,
egaz noa-ta.

Senarrak

Usoa, atzera;
or ageri da muiñora
zure egadaren aizera
orein eria egurastera.

Emazteak

Ene Maitea: mendiak,
ibar bakarti abarotsuak,
ugarteko lur barriak,
ur-andi durundutsuak,
aize legunen maite-txistuak.

Gauaro ixil baketsua,
egunsentia ingurukoa,
ots ixillezko soiñua,
soiñudun bakar-giroa,
maitezko apal-ordu gozoa.

[J.]

16. Cogednos las raposas,
que está ya florecida nuestra viña,
en tanto que de rosas
hacemos una piña,
y no parezca nadie en la montaña.
17. Detente, Cierzo muerto;
ven, Austro, que recuerdas los amores,
aspira por mi huerto,
y corran sus olores,
y pacerá el Amado entre las flores.
18. ¡Oh ninfas de Judea,
en tanto que en las flores y rosales
el ámbar perfumea,
morá en los arrabales
y no queráis tocar nuestros umbrales!
19. Escóndete, Carillo,
y mira con tu haz a las montañas,
y no quieras decillo;
mas mira las compañías
de la que va por ínsulas extrañas.

Esposo

20. A las aves ligeras,
leones, ciervos, gamos saltadores,
montes, valles, riberas,
aguas, aires, ardores,
y miedos de la noche veladorés:
21. Por las amenas liras
y canto de serenas os conjuro
que cesen vuestras iras,
y no toquéis al muro,
porque la Esposa duerma más seguro.

[G.]

Axeriak atzeman,
loretan baitago gure maasti;
larrosaz bitartean
egiñen dugu bilgo,
eztedi iñor mendian nabari.

Ago i, Ipar illa;
ator i, Egoa, maite-ekarle,
ufaka usaionez,
egiok baratzari,
Maitea loretan dedin ase.

Ots, judear neskatil,
lili eta larrosa artean
urin-usai dirauno,
zagozte auzoetan,
ez egin otsik gure atean!

Kuka zaitte, Kutuna,
soizu arpegiz mendi-aldea,
ta ez esan iñori:
orra izaroz bakar
dabillen onen lagun-taldea.

Senarrak

Egazti ariñ eta
leoi, basauntz, orein jauzkale,
mendi, zelai, ugaran,
euri, aize, sargori,
gaueko laztura begirale.

Lira atsegiñ eta
sirenen zora-kantuez, arren,
bego zuen aserre,
ormarik ez ikutu,
Lagunak ongiroz dezan atsedan.

[O.]

Matsa lore daukagu,
ta axariak atzeman,
egin dezagun xorta
arrosaz bitartean,
ez baita nabariko
iñor gure landetan.

Ixo! Ipar, erio!
Ego, maite-ekargarri!
io nere baratzean
usaien zabalgarri;
an aseko Maiteak
loreetan egarri.

Iudar neskax-lagunak!
lili ta arrosa artean
usai onek dirauño,
zaute aldamenean;
arren, ez egin oles
gure etxeke atean!

Kuka zaitte, Maiteño,
menditara begira,
gorde ixil-gordea,
neskax-lagunak dira
izaro galduetan
dabilanaren billa.

Kristo

Arren, egazti ariñ,
leoi, orein txantxari,
ibar, mendi, ugalde,
euri, aize, sargori,
esnai ta amets artean
gau latzaren zaindari!

Sirenan zora-kantuz
dagizue arago,
gorde asarre ori;
ez txintik ein geiago
andregaiak lo egin
dezan seguruago.

[S.A.]

Azeriak eizatu,
loretan bai dago gure maastia;
larrosaz bitartean
egingo dogu txorta;
ez begigu iñortxok izu mendia.

Ago geldi, Ipar illa;
ator i, Ego leun, maite oroikor;
jo ene baratzean,
Aren usain-jario,
lilietan doke Maiteak azkor.

Oi, judear neskatzak,
lore ta larrosak lurrun-ixurka
dirauen bitartean,
zagoze basaurian,
gure etxondoan ez ekin oin-oska!

Gorde zaitetz, Maitetxo,
jo begi-zartaka mendi-erpiñak,
t'ez gero iñori esan;
baiña jo, ugarte arrotz,
deslai doanaren neskatz-lagunak.

Senarrak

Egazti ego-arin,
leoi, basauntz, orein, orkatz jauzkari,
mendi, zelai, uralde,
euri, aize, sargori,
gau ernai igaroen izu dardari.

Arren, lira atseginkor
ta itxas-zora-kantuz dagituet zin,
bare zuen sumiñak,
t'ez ikutu ormarik,
Kutunak baketan atsedean dagin.

[L.A.]

Uxatu lukiak urrun,
loratan da-ta gure mastia;
artean egin dagigun
larrosaz sorta gorria,
eta iñor barik bego mendia.

Geldi, Ipar-aize, ator i,
maite pizgarri, Ego leguna;
gure ortura etorri,
ta ixuri eure lurruna,
lore-usaiz ase dadin Kutuna.

Judako ninfa gazteak,
urrin-jario diran artean
larrosoz ta loreak,
zagoze kanpo aldean
eta, arren, ez jo gure atean.

Ostendu zaitte, Maitetxo,
aurrez aur beitu mendietarantz:
baiña ez esan ezertxo;
beitu bai irla atzetarantz
joakunaren lagunetarantz.

Senarrak

Zuoi nago, txori laster,
leoi, orein, orkatz triskarioi;
aran, mendi ta ibai bazter,
euri, aize sargorioi
eta gau-izu itzargarrioi:

Lamiñen kanten ederrez,
zuoi arentzat arrenka nago;
asko dau zuen aserrez,
ez jo esian geiago
lo egin daian aseroago.

[J.]

22. Entrádose ha la Esposa
 en el ameno huerto deseado,
 y a su sabor reposa,
 el cuello reclinado
 sobre los dulces brazos del Amado.

23. Debajo del manzano,
 allí conmigo fuiste desposada,
 allí te dí la mano,
 y fuiste reparada
 donde tu madre fuera violada.

Esposa

24. Nuestro lecho florido,
 de cuevas de leones enlazado,
 en púrpura tendido
 de paz edificado,
 de mil escudos de oro coronado.

25. A zaga de tu huella
 las jóvenes discurren el camino
 al toque de centella,
 al adobado vino,
 emisiones de bálsamo divino.

26. En la interior bodega
 de mi Amado bebí, y cuando salía
 por toda aquesta vega,
 ya cosa no sabía,
 y el ganado perdí que antes seguía.

27. Allí me dió su pecho,
 allí me enseñó ciencia muy sabrosa,
 y yo le di de hecho
 a mí, sin dejar cosa:
 allí le prometí de ser su esposa.

[G.]

Emazteak egin du
 gogozko atsegin baratzerá;
 bere gogara datza,
 lepoa makurturik
 Laztanaren besarte narera.

Sagarrondo azpian,
 antxe zindudan nerekin ezkondu,
 an nizun esku eman,
 zure ama galdu zan
 toki berean zifian bizkortu.

Emazteak

Gure oea loretan,
 leoi-aitzuloz bilbil ertsia,
 purpuraz edaturik,
 paketan eraikia,
 urrezko milla iskilluz ornia.

Neska gazteak bidez
 or dabiltz zure lorratzean,
 pindarrez ukiturik,
 ardo onduaz birbiz,
 Jainko-urrinte-jario betean.

Ardangela barrunen
 Maitetik edanik, gero ibar
 inguru nindoala,
 ez nekian besterik,
 lenik narraion saldoa ere gal.

An nindun eradoski,
 an zerakuskidan jakite naro,
 eta naizen au osorik
 Ari nintzaion eskeñi,
 an nion itzeman emazte antzo.

[O.]

Sartua da Laztana
gogo zun baratzean;
bere gogara datza
loa, bete-betea,
lepoa makurturik
Maiteren besartean.

Elkartuak gaituzu
sagar-ondo azpian,
an, eskuak emanez
senar-emazte gifian;
osasuna arki duzu
amak galdu tokian.

Anima

Gure oia lore da,
leoi-zuloz ertsia,
purpuraz ifauririk,
pakeak iraikia;
bizkorren iskiloez
inguruan iantzia.

Zure urratsen segi
nexka gazteak doaz,
txinpartak ikituak,
birbiz, on dan ardoaz,
biotza bizkorturik
Iainko-usai gozoaz.

Maiteren ardangelan
edana naiz barnean;
berriz landa ontara
atera nintzanean,
saldoa galdu nendun
ezer ez oroitzean.

An eradoski nindun
iakite txit guriaz;
an eskeñi nintzaion
nerau, dudan guziaz;
bere nindula agindu
nion, danak utziaz.

[S.O.]

Sartua da Emazte
opa eban baratz zoragarrian,
ta gogo beroz datza,
samea makurturik
Maite duanaren besarte ez-tian.

Sagar-ondo azpian,
antxe zifnean bai nigaz alkartu,
an neutzun emon esku,
zure ama galdu zan
tokian bertan zu zifñan osatu.

Emazteak

Gure oe loreti
ingurutik leoi-lezaz esia,
gorritan edatua,
bakerik eragia,
eun urre-ikurdiz eder jantzia.

Zure lorratz atzetik
bidean dabilta neska gazteak,
txinpartak ikututa
ardao onduaz txerbel,
Jainko-lurrunetan bizkor barneak.

Ardangela ixillean
Maiteaz ni ase, ta gero ibarrez
abia nintzanean,
enekian ezertxo,
lengo elia be ez neban jarraiez.

An nindun ugatzatu,
an irakats eustan eztizko jakintza;
nik, ostera, nazana
oso neutsan eskiñi
betikoz emonik emaztezko itza.

[L.A.]

Sartu da sartu laztana
bere gogoko baratz maitean
eta an da asero etzana
burua bake bakean,
bere Maitearen besartean.

Sagarpe zoriontsua!
Antxe zindudan bein emaztetu;
an emon neutzun eskua
ta zure ama bein loitu
zan lekuantxe zaitut garbitu.

Emazteak

Lorez dago gure oia,
leoi-zuloz ondo zaindua;
errege-estalkiz jantzia,
bakean oiñarritua,
milla urre-estalkiz koroatua.

Neska gazteak badoaz
zure atzean antxintxikari,
txinparten ikututxoaz,
ardo gozoa edari,
Jainkozko urrin onez igari.

Maiteren gelan edanez
egonik, andik kanporakoan
zelaian zear joanez
danaz azturik niñioan,
lengo ilirik barik ondoan.

An edei eustan barrua
bere gozoen an emon barri;
eta an nik neure burua
Aren mende osoz jarri;
an emazte-itza emon berari.

[J.]

28. Mi alma se ha empleado
y todo mi caudal en su servicio;
ya no guardo ganado,
ni ya tengo otro oficio,
que ya sólo en amor es mi ejercicio.
29. Pues ya si en el ejido
de hoy más no fuere vista ni hallada,
diréis que me he perdido,
que andando enamorada
me hice perdida, y fui ganada.
30. De flores y esmeraldas,
en las frescas mañanas escogidas,
haremos guirnaldas
en tu amor florecidas
y en un cabello mío entretejidas.
31. En solo aquel cabello
que en mi cuello volar consideraste,
mirástele en mi cuello
y en él preso quedaste,
y en uno de mis ojos te llagaste.
32. Cuando tú me mirabas,
su gracia en mí tus ojos imprimían;
por eso me adamabas,
y en eso merecían
los míos adorar lo que en ti vían.
33. No quieras despreciarme,
que si color moreno en mí hallaste,
ya bien puedes mirarme,
después que me miraste,
que gracia y hermosura en mí dejaste.

[G.]

- Arima, dudan guzia,
Aren meneko jarduki baita,
orain enabil saldozai,
besterik ez eginkizun,
maite-izan dut soil ariketa.
- Gaurtik erri-basoz
ez ikus ez arki ezpanendi,
galdu naizela esan,
maitetan ibil-eta
galdu-ustez nautela beretsi.
- Goizalde otxaroan
bilduriko lore ta pitxiz
egifien dugu txorta,
zure maitetan lore,
loturik nere adats-izpiz.
- Nere lepoan bakar
zuk egan zenekusan berean,
so-eta an atzi geldi
baitziñan, eta zauri
erori begi otako batean.
- Begira zindudala,
zureen itzalak nindun jantzi;
maite-samur zindudan,
orrela zuten merezi
nereak, Zugan joa jauretsi.
- Ez nazazula gaitzets,
baldin lenen beltxeran banintzan,
so eidakezu orain,
begira ninduzunetik
doaez eder bainuzu ni baitan.

[O.]

Anima, dudan oro
eman nion mendeko;
enaiz geio saldo-zai,
ez dut deus egiteko;
ontarako bakar naiz:
Maitea maitatzeko.

Aurrera larraiflean
ikusten ez nautela,
esanen dute, naski,
maitez galdu naizela:
galgarri nintzalarik
irabazi nutela.

Goiz otxean bilduzko
lore ta pitxiekien,
egifien dugu xorta
Zure maitasunekin,
eta nere buruko
ille eio batekin.

Lepoan egan bakar
nik nenkarren illean;
so zenegion eta
bertan lotu ziñean;
zauri ziñan erori
nere begi batean.

Begi oiek neretan
eder ziran ixuri;
ala nintzan txit maite,
ala zuten merezi
zuretan zekustena
nereetan iauretsi.

Ez esker gaizto neri,
nizaizulako beltzun;
so egidazu, beintzat,
begiz io baininduzun,
ederrez, zoramenez,
apain iantzi ninduzun.

[S.O.]

Kemen ta dodan oro
Aren morroitako dot aukerazi;
ez naz gero eli-zain,
ez nik beste arlorik,
maite izan dot soilki jardun berezi.

Gaurtik ni usa zear
ez baldin ba'nabe ikus-idoro,
galdu nazala esan,
maite-jolaska ibilki,
galdua egifiek nabela atxilo.

Lora ta pitxi guriz
—goizalde otzean biok batuta—
egingo dogu txorta,
Zure maite-suz gara,
ene ule batekin alkar eiota.

Ule bakarño ari,
nik lepoan egaz nenkarrenari
ene saman so zeuntson,
eta, Zu bertan barro,
neure begi baten jaus ziñan zauri.

Zuk ni begiz jotean
begiok ninduen doaiz edertu:
alan ninduzun maite,
ta alan eben merezi
Zugan ekusena, nireak gurtu.

Enagizu ezetsi,
beifñola azal baltz ba'ninduzun aurki;
orain so eikedazu,
Zuk begitu ondoren
eder-dirdira bai eustazun itxi.

[L.A.]

Nire gogo ta dodanak
Arentzat baiño eztau legerik;
agur, lengo artzai-lanak,
gaurtik ez dot egiterik
maitatzekoa baiño besterik.

Gaur gero ez banakuste,
ez eta aurkitzen lengo lanetan,
galdu nazanik ez uste,
neure maitezko bidetan
irabazle urten dot, ez kaltetan.

Lore ta esmeralekin,
goiz-ozkirritan zoli baturik
sortak dagiguzan egin,
zure maitez loraturik,
neure ule-izpi bat az loturik.

A, Zuk nire idunean
egaz ikusi zendun izpia!
A ikusiaz bat ziñean
atan gelditu josia
ta nire begi batak eria.

Zuk niri begituago
zeure ederra zeunstan ixurtzen,
ta ninduzun maiteago,
ta neu ninduzun makurtzen
Zugan nenkusan guztia gurtzen

Ez naizu, bada, gatxetsi;
len Zutzat izan banaz baltz ero,
ondo naikezu miretsi
Zuk begiratuaz gero
ederrez jantzi nozun ezkerro.

[J.]

Esposo

34. La blanca palomica
al arca con el ramo se ha tornado,
y ya la tortolica
al socio deseado
en las riberas verdes ha hallado.

35. En soledad vivía,
y en soledad ha puesto ya su nido,
y en soledad la guía
a solas su querido,
también en soledad de amor herido.

Esposa

36. Gocémonos, Amado,
y vámonos a ver en tu hermosura
al monte y al collado,
do mana el agua pura;
entremos más adentro en la espesura.

37. Y luego a las subidas
cavernas de la piedra nos iremos
que están bien escondidas,
y allí nos entraremos,
y el mosto de granadas gustaremos.

38. Allí me mostrarías
aquello que mi alma pretendía,
y luego me darías
allí tú, vida mía,
aquello que me diste el otro día.

39. El aspirar del aire,
el canto de la dulce filomena,
el soto y su donaire,
en la noche serena
con llama que consume y no da pena.

[G.]

Senarrak

Uso zuria kutxara
itzuli doa altxuma mokoan,
ta orain usapalak
maitekide laguna
batu du ibaiondo naroan.

Bakarrean bizi zan,
bakarrean du kabi egin,
bakarrean darama
bere maiteak bakar,
bakarrean dira maitemin.

Emazteak

Pozkida gaiten, Maite,
eta goazen zure ederrean
un gardena darion
mendi-muño ikusle,
egigun barnago itzalunean.

Ondorean gorengo
artzulutara joanen gaituzu,
ondo gordeak baitagoz;
eta barnera egiñik,
mingrana-mistela edanen dugu.

An ager zaidakezu
nere arimak ain gogo izana,
an emanen didazu,
nere bizi zerana,
aurretik eman zenidana.

Eguras-artze ura,
urretxindorran txiunta gozoa,
ibarra, ango giroa,
gauaro izar narean
miñ gabe sar oi dan sultanboa.

[O.]

Kristo

Ba-dator uso txuri
mokoan muskilakin
kutzara; uxapala
maite zeukan Arekin
urondo urdiñetan
batu dira alkarrekin.

Bakarrean bizi zan,
bakarrean kabia
egin du, bakarrean
du maite gidaria;
bakartasun aretan
artua du zauria.

Anima

Maita igun elkar, Maite,
goazen oian-barnera,
Zure edertasuna
mendian ikustera,
muñoiari darion
uretik edatera.

Andik gorago dauden
artzuko gordetara,
aietan bi-biñook
ixil sartuko gara,
ta puni-sagardoa
dedakegu gogara.

An erakutsiko Zuk
nik gogoan dudana,
emain ere didazu
—nere bizi zerana—
aurreko egun artan
an eman zenidana.

Aizearen arnasa
txindorraren txioa,
izar dagon gaean
inguru on-giroa,
min gabe erretzen dun
sugarren lanboa.

[S.O.]

Senarrak

Uso zuria barriz
abarraz kutxara yaku biurtu,
baita usapalak bere
ur-ertz orlegietan
maite eban laguna jarrugi dausku.

Bakarrean bizi zan,
ta bakarrean dau abia egin,
bakarrean daroa
bere maiteak soilki,
bakarrean au be maite-zauriz min.

Emazteak

Goza gaitezen, Maite,
ta goazen zure doaz asetzen
ur gardena darion
mendi-muñoi aldera;
barnego itzalean sartu gaitezen.

Eta andik aurrerantza
artzulo goitara goakez gero,
txit ostenik bait-dagoz;
an bi-biok sarturik,
granada-mistela dogu txastauko.

An Zuk erakutsiko
nik apeta biziz gogo nebana,
baita emongo bere
an Zuk, ene bizia,
beste egunean emon zeustana.

Aizearen ats mea,
txindor eztiaren maite-leloa,
ibar ta ango giroa,
izar dan gau narean
min gabe erretzen daun sugar-lanboa.

[L.A.]

Senarrak

Sartu da uso zuritxoa
arkan abarra bere mokoan;
batzandu da usapaltxoa
nai ebanaren ondoan,
ibar orlegien abaroan.

Bakar bizi zan usoa,
bakarrean dau bere kabia,
ta bakarrean daroa
Maiteak aren bizia,
berau be antxe maitez eria.

Emazteak

Poztu gaiten, Maite, bion
ederra ikusiz zeure ederrean;
ta sartu ur garbi darion
mendi eta tontorrean;
barnago daigun jo txara artean.

Gero goiko atxetarantz
bi biok gara bai zuzenduko,
ta arzulo gordeetarantz
joanda an gara sartuko,
ta granat-ura an miaztatuko.

An deustazu agertuko
ene gogoak naien ebana,
an niri eskuratuko,
neure bizi zaitudana,
lengo egunez emon zeunstana:

Aizearen bafadea
urretxiñolen kantu gozoa,
txarako atsein betea,
gauaro ederrekoa,
sugar errekor minik bakoa.

[J.]

40. Que nadie lo miraba,
Aminada tampoco parecía,
y el cerco sosegaba,
y la caballería
a vista de las aguas descendía.

[G]

Iñor ez ikusmira,
Etsaia ere izkutu zegoan;
bare zegon esia,
eta zalditeria
ur-begitik beera zijoan.

[J]

Etzegon iñor beha,
Txerren leize zuloan;
esi-barrua pake
iabalean zegoan,
eta zalditeria
ur-begitik zioan.

[S.O.]

Etzan iñor begira,
etzan Txerrena be agiri iñondik,
esia bake egoan,
zalditeria barriz
ur-begi aurrean joian jatsirik.

[L.A.]

Ez dauka iñor begira,
Aminadab bere ez da somaten;
lasaituz doa estira,
ta zaldundia azken baten
ara uren aurrez berantz joaten.



BOLETINA AZKEN BERRIAK



BOLETINA. AZKEN BERRIAK

EUSKO JAURLARITZARI HAINBAT PROPOSAMEN

1991ko hasieran Elkarteko ordezkari batek Jaurlaritzako kultura Sailburuari egin zion hainbat proposamenen artean honako hauek egon ziren :

1) Argitaletxeak zernahi laguntza jasotzeko, ezinbesteko kondizio bezala, idazlearekiko kontratua aurkez dezatela.

2) Euskal Literaturaren itzulpena bultzatzeko, beste komunitate autonomoetan egiten den lez, dirulaguntzak era ditzatela.

Eskaera hau onartua dago jada, Ekainaren 14eko EHAA-n ezagutzera eman zenez. Itzulpen batengatik laguntza jaso nahi duen orok honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du :

—Ikasketa, lanbide eta literaturazko curriculum vitae.

—Aurkezturiko proiektua garatua izan ez dela adieraziko duen zinpeko aitortpena.

—NAN-aren fotokopia eta banketxe zein aurrezki kutzaren datuak.

—Itzulgai den obratik erderaturiko lana, halaber dagokion euskerazkoarena.

—Euskarazko liburuaren fitxa bibliografikoa.

—Itzulpena burututakoan, xede hizkuntzara bihurtua 2.100 karakteredun (hainbeste) orrialde izango dituela adierazten duen agiria.

—Euskarazko obraren ustiaketa ekonomirako eskubideen jabe den pertsona edo erakundearen baimen idatzia.

—Argitaletxearen argitara konpromezu idatzia.

ORDAINKETA TARIFAK

—2.100 karakteredun (30 lerro bider 70 espazio) orri bakoitzeko.

HIZKUNTZA MULTZOAK :

A- Gaztelania.

B- Frantsesa, galegoa, katalana, portugesa, italianoa, ingelesa.

C- Jermanikoak, klasikoak (latina, grekoa), errusiera, txekiera.

D- Gainerako hizkuntzak.

ZAILTASUN MAILAK

I- Sorkuntzazko literatura orokorrean (saiakera, literatura orohar, ea)

II- Olerkia.

HIZKUNTZA MULTZOA ZAILTASUN MAILAK

	I	II
A	2.215	3.250
B	3.045	3.965
C	3.555	4.685
D	4.340	5.095


EUSKAL IDAZLEAK IKASTETXEETARA

Elkartearen eginkizunetako bat literatur zaletasunaren eragile izatea denez, Donostiako Udal Patronatuaren laguntzaz 1990-91 ikasturtean zehar hamairu idazle maila desberdinetako hamabost ikastetxeetatik ibili dira, nork bere obra komentatuz.

Urteko programa osatu eta gero, irakasleen zein idazleen balorazioa baikorra izan dela ikusita, plangintza bera baino idazle gehiagorekin Euskal Herri osora zabaltzea gustatuko litzaiguke. Hori dela eta, hasiak gara proiektua bideratzeko pausuak ematen eta laster Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuarekin hitzegitea espero dugu.

Hegats 5

1992ko urtarrilan Gráficas Lizarran inprimatu zen.
Argitalpena 800 alekoa da.



Irudiak:
KALLIGRAFISCHE
EXPRESSIONEN

Contrapas
Heuscara ialgui adi cápora

Garacico herria
Benedicá dadila
Heuscarari emandio
Beharduyen thornuya.

Heuscara
Ialgui adi plaçara

Berce gendec vñeçuten
Ecin scriba çayteyen
Oray dute phorogatu
Euganatu cirela.

Heuscara
Ialgui adi mundura

Lengoageranohi inçan
Estimatze gutitan
Oray aldiz hic beharduc
Ohoria orotan.

Heuscara
Habil mundu gucira

Berceac oroc içan ðira
Bere goihen gradora
Oray hura iganenda
Berce ororen gaynera.

Heuscara

Bafoac oroc preciátzē
Heuscara ez iaquin harrē
Oroc iccassiren dute
Oray cerden heuscara.

Heuscara

Oray dano egon bahiz
Imprimitu bagueric
Hi engoitic ebiliren
Mundu gucietaric.

Heuscara

Eceyn ere lengoageric
Ez francesa ez berceric
Oray ezta eridexten
Heuscararen pareric.

Heuscara
Ialgui adi dançara.



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
Etxague jeneralaren kalea, 6, behea. Tel.: 42 00 10
20003 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN